**Miren Elgarresta** | Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko organoaren Diputazioko zuzendaria

# "Indarkeria Matxistaren Aurkako Plana prestatzeko lanean ari gara"

- Diputazioak handitu egin ditu udalei zuzendutako laguntza kopuruak
- Oraingo astean bukatu da horretarako eskaerak aurkezteko epea

G.ARANA / U. MADERA | DEBAGOIENA

Genero berdintasunaren bidean Gipuzkoako Diputazioak tokiko administrazioarekin duen elkarlana sendotzeaz gainera, udalei zein emakume elkarteei zuzendutako diru laguntzak handitzeko asmoa iragarri du. Oraingo asteko astelehenean bukatu da laguntza horiek eskatzeko epea eta Oñatin bizi den Miren Elgarrestak (Zumarraga, 1965), Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako organoaren Diputazioko zuzendariak, Goienari jakinarazi dio handitu egin direla, eta nabarmen, gainera, laguntza horietarako eskaerak.

**Indarkeria matxista amaitzea izango da zuen lehentasun nagusi...**

Dudarik gabe. Azkenaldi honetan gertaera piloa entzuten ditugu, urtea hasi berri eta ja zortzi kasu izan dira (hildakoak); badirudi eguna esnatu, periodikoa zabaldu eta badaukagula albiste bat indarkeria matxistaren inguruan. Zoritxarrez, ez dira gertaera puntualak, baizik eta gure gizartean errotuta dagoen zerbaitetik datorren egoera bat. Kezka handia ematen duen gaia da, heldu egin behar diogu benetan ardura handiarekin, eta aztertu egin behar da gure lurraldean, Gipuzkoan, momentu honetan zein den egoera; eta egoera horren aurrean ondo aztertu behar dira zeintzuk izan behar diren gure lehentasunezko urratsak. Dudarik gabe, helburu nagusia da indarkeria matxista ezabatzea gure gizartetik, bukatzea, eta, zaila izan arren, gure ahaleginak hortxe egongo dira. Indarkeria Matxistaren Aurkako Plana prestatzeko konpromisoa hartu dugu legealdi honetan, eta egitasmo hori prestatzeko lanean ari gara.

**Indarkeria matxistak eragiten dituen hildakoak daude, batetik, baina azken boladan sarri entzuten dira abusu sexualen kasuak ere. Esan duzu azterketa egin beharko dela benetan Gipuzkoako egoera zein den ikusteko. Edozein kasutan, irudipena da ahaleginak egin arren ez dela gai honetan aurrera egiten edo ez, behintzat, nahi beste aurrera egiten. Zer gertatzen zaio gaur egungo gizarteari?**

Gure gizartearen egituran dago, gure gizarte patriarkal honetan, adituek behin eta berriz esaten dute horrela dela, eta hortxe dagoela oinarri bat gure gizartean ezberdintasunak gertatzeko. Ezberdintasun horien azkeneko ondorioa dira indarkeria matxista eta abusu sexualak. Beraz,



Miren Elgarresta, Oñatin. | GOIATZ ARANA

## "Indarkeria eta abusuak gizarteko ezberdintasunen azken ondorio dira"

zuztarrari heldu egin behar zaio, zaila izan arren, kasu hauek bideratzen joateko. Baina ez da erraza. Garbi dago hau ez dela lortzen urtebetean edo legealdi batean. Denborarekin lortu behar dugun emaitza da.

**Duela hilabete eskas eman zenuten genero berdintasunari lotutako aurrekontuaren eta diru laguntza lerroen berri. Tokiko administrazioarekin elkarlanean sakondu nahi duzuela azaldu zenuten aurkezpen hartan. Zergatik da hain garrantzitsua udalen egitekoa berdintasunaren alde lan egiterakoan?**

Berdintasuna zeharkako politika da. Zeharka garatu behar den eginkizuna da, eta ez da Foru Aldundtik bakarrik garatu behar den zerbait. Zeharkakoa den neurrian, udalerrietan (udaletan eta gure gizartean), eurek duten

## "Udalen eskaeretan ikusten da gehikuntza, %25ekoa-edo"

gertutasunarengatik aukera handiagoak daude jarduera horiek, berdintasunaren aldekoak, garatzeko. Beraz, gure harremanak estua izan behar du udalerriekin. Udalerrien bitartez eta euren lankidetzarekin posible izango da egin beharreko politikak, bai udaletxe barruan, eta baita ere kanpoan, hainbat jarduera eta sentsibilizazio garatu ahal izatea.

**Horregatik erabaki duzue eurei ematen dizkiezuen diru laguntzak handitzea?**

Batetik, ikusi beharra dago berdintasun politikak nahiko berriak direla gure politika eginkizunean. Hamar bat urte dira berdintasunari erreparatu diogula, eta apurka-apurka eginkizun horiek gorantza doaz. Ikusten dira beharrak geroz eta gehiago direla; udalekin dugun harremanarengatik eta eurek egiten dituzten eskaerengatik ere ikusten da beharrak geroz eta handiagoak direla. Horrexegatik, aurten pentsatu dugu (eta uste dut azkeneko urteotan joera berdinarekin ari garela) laguntza horiek ugariagoak izatea komeni dela.

**Orain arte ez bezala, gainera, 2016an diru laguntzen onuradun izan ahalko dira berdintasun teknikaririk ez izan arren zerbitzu hori kontratatzen duten udalak ere...**

Halaxe da. Garrantzitsuena da politika garatzea eta berdintasunaren alde egingo dituzten jarduerak gero eta gehiago garatzea. Ikusten genuen bazeudela udalerri batzuk arazo ekonomikoengatik ezintasuna zutenak pertsonal tekniko propioa kontratatzeko, berdintasun espezialitatean adituak direnak. Aldiz, aukera bazuten kontratazio partzial baten bitartez edo kanpoko aholkularitza zerbitzuaren bitartez jarduera garatzeko. Beraz, nahi izan dugu handitzea aukera hori eta udalerri gehiagotara iristea.

**Emakumeen elkarteei eta irabazi asmorik gabeko elkarteei zuzendutako diru laguntza lerroa ere indartzea erabaki duzue.**

Emakume elkarteak oso aktiboak dira, lurra ukitzen dute, zuzen-zuzenean landu egiten dituzte berdintasunaren aldeko jarduerak eta eurak dira harremanetarako dauzkagun interlokutore nagusienetako bat.

**Diru laguntzak eskatzeko epea astelehenean bukatu zen. Ze datu dituzu esku artean? Zenbat eskaera izan dituzue?**

Oraindik nahiko goiz da emaitza finkoak emateko. Eskaerak handitu egin dira bai udaletatik eta baita elkarteetatik ere. Adibidez, elkarteei dagokienez, bikoiztu egin dira eskaerak aurreko urtetik hona eta udalek egin dituzten eskaeretan ere ikusten da gehikuntza, %25ekoa-edo izango dena.

**Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako Organoan badiharduzue kontziliazioaren gaineko lanketa bat egiten ere. Asko dago horretan ere egiteko oraindik... zertan diharduzue?**

Bagabiltza lanketa berezia egiten, ikusten dugulako lanean emakumeen eta gizonen artean arazoak dituztela familia eta lanbidearen arteko kontziliaziorako. Horretan klabeak zeintzuk diren asmatu egin behar dugu, kontziliazioa geroz eta hobea izan dezagun, gure biziztari ahalik eta egokien erantzuteko esparru horietan.

# Mobilizazio eta batzar deia Bergaran, erretiratuendako

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Gipuzkoako erretiratuen Duintasuna Elkarteak deialdi bikoitza egin du datorren martitzenerako, otsailaren 16rako, Bergaran.

10:00etan elkartuko dira lehenengo, San Martin plazan, murrizketen kontrako elkarretaratzea egiteko. Eta ordu erdi geroago, Irizar jauregira joko dute, hileroko batzarra egiteko.

Bi ekimenak Bergaran izango diren arren, eskualdeko erretiratuei egin diete bertaratzeko gonbita.

**1.080 euroko pentsioak**

Izan ere, batzar horretan, Duintasuna Elkartea protesta kanpaina batean sartuko dela partekatuko dute bertaratutakoekin. Hain justu ere, erretiratuen pentsio txikienak 1.080 eurora iristeko –duin bizitzeko Europan aurreikusitako gutxieneko pentsioa da hori– beharrezkoa den diru desberdintasuna Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzea eskatzen zuen Herri Ekimen Legegileak. Baina atzera bota dute eskaera, esanez, besteak beste, eskumen hori ez dela Jaurlaritzarena. Edozein modutan, orain Duintasuna Elkarteak proposatuko duena da sinadurak batzen hastea herriz herri, Jaurlaritzari egindako aldarrikapen hori babesteko. "330.000 erretiratu baino gehiago daude 600 euro baino gutxiago kobratzen dutenak", jakinarazi du Itziar Usandizagak, Duintasuna Elkarteko kideak.

Eta horrekin batera, beste aldarrikapen baten gainean ere jardungo dute martitzeneko batzarrean: *Murrizketarik ez ongizatean.*

## Langabezian dauden ekintzaileak erakartzeko ekimena

Etorkizuna Elkarrekin Eraikiz! proiektuaren bigarren edizioa, E3 ekimena, martxan jarri dute Mondragon Goi Eskola Politeknikoak eta Mondragoneko BACek. Ekintzaile-izaera duten 15 titulodun langabe bilatu nahi dituzte, ekintzailetza edo interekintzailetza prozesuak garatzeko euskal enpresetan. Enpresa horiek oinarri teknologikoa izango dute, eta sei hilabetez prestatzeko aukera izateaz gain, ekintzailetza-proiektuak garatzea izango da xedea. Proiektuan interesa dutenek euren curriculuma *e3.mgep@mondragon.com* posta-helbidera bidali, edo 943739714 zenbakira deitu beharko dute. Martxoaren 15a baino lehen eman behar da izena.



Makina hondeatzailea Zabaleta esparruan dagoen Cartonajes Esma lantegiaren kanpoko aldean. | JOKIN BEREZIARTUA

# Arrasate sarreran supermerkatu berria eraikitzeko asmoa, ate-joka

## Aurrera eginda ere, zerbait eraikitzen hasi orduko bi urte pasatuko lirateke

UBANE MADERA | ARRASATE

Arrasate sarreran, Zabaleta eremuan supermerkatua eraikitzeko egitasmoa ate-joka du Arrasateko Udalak. Izan ere, Arrasateko sarrerako esparruari –Bergaratik etorrita– dagokion Plan Berezia garatzeko eskaera du mahai gainean.

Cartonajes Esma pabiloiaren eta berorren lursailaren jabe den Txomintxu Promotoreak egin du eskaera. Bizkaiko promotore hori da 2007an esparru hartan merkataritza-gune handi bat sortzeko proiektua aurkeztu zuen promotore bera. Eta dagoeneko badihardu Zabaleta eremuko lursailean zundaketak egiten.

30.718 m2 dituen esparrua da Zabaleta, Egitamu Orokorrean jasotakoaren arabera. Bertan sartzen dira Ibai-Ondo etxea, Cartonajes Esma, Carrocerías Danona, Caldería Epele eta Zabaleta baserria.

**Mercadona, oraingoz ez**

Gune horretarako Plan Berezia Ino Galparsororen gobernua ezkero (2007-2011) dago zehaztuta. "Plan Berezi horretan esaten da Zabaleta eremuan ze jarduera jar daitekeen eta ze jarduera ezin daitekeen jarri. Eta momentu honetan Zabaletan jar daitekeen jarduera bakarra da komertzioarekin eta elikadurarekin zerikusia daukan jarduera", esplikatu du Maria Ubarretxena alkateak.

Gauzak horrela, eta Txomintxuk plan hori garatzeko baimena eskatu duela kontuan hartuta, argi dago bertan supermerkatua eraikitzeko asmoa dutela. Are gehiago, zentzu horretan, supermerkatu hori Mercadona izango dela ere entzun izan da. Nahiz eta Mercadonako ordezkariei galdetuta, haiek erantzun duten "gaur-gaurkoz" ez dutela horretarako asmorik. Adierazi dute Gipuzkoan hiru zentro zabalduko dituztela etorkizun hurbilean: Irunen, Oiartzunen eta Eibarren. "Baina Arrasaten, %100ean ez dugu zabalduko orain; hemendik urte batzuetara? Batek daki, baina orain ez", erantzun du Nahia Nebrak, Mercadonaren Euskadiko komunikazio arduradunak.

**Bi urte, eraikitzen hasi orduko**

Beraz, oraingoz, Mercadonak baztertu egin du Arrasate, baina ateak ez ditu erabat itxi. Eta era berean, Txomintxu Promotoreak eskatutako baimenak luze joko du. Arrasateko Udalari aurkeztutako proposamenak aurrera eginda ere, "hor zerbait eraikitzen hasi orduko bi urte pasatuko dira", azpimarratu du Ibon Arrupek, Arrasateko Hirigintza zinegotziak. Hark zehaztu du, gainera, Txomintxuk zundaketak egiteko baimena duen arren, oraingoz, han ezin dela "beste ezer egin".

Edozein modutan, Txomintxu promotorearen baimen eskaerak legea betetzen badu, Arrasateko Udalak ezin dio horren erraz ukatu esparrua garatzeko baimena. Maria Ubarretxena alkateak esplikatutako moduan, egin dezakeena da proposamenari baldintzak jarri: "Legalki pribatu batek esan diezaioke Udalari Plan Berezi hori garatu nahi duela, eta legalki eskubide guztia dauka horretarako (…) Udaletik baldintza batzuk jarriko dizkiogu plan horri, presentatu dituzten gauza askorekin ez gaudelako ados", esan du alkateak.

Besteak beste, Txomintxuk garatu gurako zukeen planak jasotzen dituen azpiegiturak dira esparruari berari zerbitzua emango diotenak: bidea, aparkalekuak eta biribilgune txiki bat. Eta esparru horretatik pasatuko litzateke eskualdeko bidegorriaren zati bat.

Hori bai, egitasmoak Caldereria Epeleri bere horretan mantentzeko aukera ematen dio, hari atxikitako eraikinak antolamenduarekin bat datozela jasota. Berdin gertatzen da Zabaleta baserriarekin eta Ibai Ondo etxearekin.

**"Beharrezkoa ez"**

Edozein modutan, Arrasateko alkateak azpimarratu du Arrasateko Udalean ez dutela begi onez ikusten udalerri kanpoko aldean supermerkatu berri bat eraikitzea "Momentu honetan ez dugu ikusten beharrezkoa denik edo Arrasatek behar duenik beste supermerkatu potolo bat edo horrelako beste ekimenik. Zergatik? Aurreko legealditik erabakita, Musakolara badatoz BM eta Lidl, Dia bat ere zabaldu zuten orain dela gutxi zentroan… eta apustua baldin bada herriko komertzioa indartzea eta komertzio lokala indartzea, Arrasateko Udaletik ez dugu positibo ikusten horra etortzea supermerkatu handi bat; eta guk hala jakinarazi diegu eurei"."

**Debekatzea zaila**

Mezu hori abiapuntu, bada, eta Galparsororen garaian egin zen moduan Zabaletan supermerkatu berririk eraikitzea debekatzea ahalbidetuko zukeen Egitamu Orokorraren balizko aldaketaren gainean galdetuta, Hirigintza zinegotziak esplikatu du hori egitea ez dela erraza: "Ezin da aldatu debekatzeko. Justifikatu egin behar da. Terreno horren ugazabak ditu eskubideak alegazioak sartzeko aldatzeko nahi horri. Ja ez gara Francoren denboran bizi. Esanez gero agertu direla aztarna erromatar batzuk… justifikazio objektiboa behar duzu plan bat aldatzeko. Legeak bermatzen du erabakia ez egotea tokatzen den politikariaren irudimenaren arabera. Adibidez, aurreko legealdian Bildu ahalegindu zen Lidl eta Super BM Joma zegoen tokian ez jartzeko Egitamu Orokorra aldatzen, baina, Jomako ugazabak sartu zituen alegazioekin, legalki ez zen posible izan eta ezin izan zuten egitasmoa aldatu", esplikatu du Ibon Arrupek.

**Baimen barik**

Bestalde, Txomintxu Promotoreak hanka okerrarekin hasi du harremana Arrasateko Udalarekin. Baimen barik sartu zituzten hondeatzeko makinak Esmaren esparrura, zundaketak egiteko. Inguruko auzotar baten salaketa jaso zuen Udalak horrengatik, eta espedientе zigortzailea zabaldu diote enpresa promotoreari. "Espediente horri alegazioak aurkez diezazkioke enpresak; eta ondorioa da edo artxibatu egingo dela edo isuna jarriko zaiola. Halako kasuetan, isuna izaten da 500-5.000 euro bitartekoa", esplikatu du Hirigintza zinegotziak.

**Bi urte barru ikusiko da**

Kontuak kontu, hasi besterik ez da egin Arrasateko sarrerako esparrua garatzeko egitasmoa. "Lehen pausoa" besterik ez dute eman. Aurkeztutako proposamena GAOra bidali, jendaurrean jarri, alegazio epea zabaldu, ugazabei jakinarazi… hori guztia egin beharra dago beste ezer baino lehen. Hasi besterik ez da egin, eta 2007an Txomintxuren asmoak aurrera egin ez zuen bezala, bi urte barru ikusiko dugu zein den Zabaleta esparruaren erretratua.

# Mankomunitateari eman dio arrazoia epaileak

## Epeleko isurtegian hainbat lan egin dituen Murias enpresak sei aldiz eraman du epaitegietara

U.M. | DEBAGOIENA

Construcciones Murias SAU enpresak jarritako bi apelazio errekurtsotan Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak Debagoieneko Mankomunitateari eman dio arrazoia. Halaxe jakinarazi dute hileroko Gobernu Juntan, oraingo astean egindakoan. Unai Elkorok, bertako presidenteak, esandakoaren arabera, pozik daude sententzia horrekin, irmoa delako. Bestela esanda, Murias enpresak ezin du berriro errekurritu.

Izan ere, sei bider eraman du Murias enpresak Debagoieneko Mankomunitatea epailearen aurrera, guztiak ere Epeleko isurtegian egindako lanen bueltan.

Azkeneko bi apelazio errekurtsoetan, Epeleko lanetako proiektu aldaketa justifikazio modura baliatuta, Donostiako enpresak obra horien esleipen prezio gehikuntza erreklamatzen zion Mankomunitateari. Bestela esanda, obrarengatik diru gehiago erreklamatzen zuen. Epailearen sententziak ez du zenbatekorik zehazten –gehikuntzari dagokiona–, baina epaileak eraikuntza enpresari arrazoia emanez gero, Mankomunitateak ordaindu beharreko kopurua altua litzateke, "milioi bat eurokoa-edo", Mankomunitateko presidentearen esanetan.

Bestalde, enpresa berak jarritako beste bi errekurtso Epeleko obren amaieraren atzerapenarengatik zabalduko espediente zigortzaileen kontrakoak izan ziren. Horien eraginez, Muriasi 109.061 euroko isuna jarri zion Mankomunitateak (bi isunen batuketa da). Bada, bi errekurtso horietan ere, epaileak erabaki zuen Mankomunitateak duela arrazoia. Edozein modutan, beste bi errekurtso ditu aurkeztuta Murias enpresak. Eta horien sententzia erabaki barik dago. Horietako bat, adibidez, dagokio Epeleko isurtegiko eremu bat iragazgaizteko erabilitako telaren kalitateari. Mankomunitatetik esplikatutakoaren arabera, enpresak esandakoa baino kalitate txikiagoko tela jarri zuen, eta ondorioz, Mankomunitateak dirua kendu zion enpresari; bada, hain justu, diru murrizketa hori errekurritu egin du Muriasek.

Epeleko isurtegia dela-eta urteak daramatza Debagoieneko Mankomunitateak epaitegietan.

Enpresari gaiaren gainean galdetuta, ez dute adierazpenik egin nahi izan.

**Argiteria publikoa berritzeko**

Bestalde, Gobernu Juntan onartutako beste puntuetako bat izan da hainbat udalerritan argiteria publikoaren instalazioak berritzeko proiektu bateratua egitea. Eta horretarako, dagozkien udalekin lankidetza hitzarmenak sinatzea Espainiako Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren baitan dagoen IDAE erakunde publikoari lan horiek egiteko diru laguntza eskatzeko.

Izan ere, laguntza horiek lortu ahal izateko, aurkeztutako proiektuak gutxieneko diru kopurua izan behar du, eta horregatik erabaki dute proiektu bateratua egitea Debagoieneko bost udalerriren artean.

Datutan, 1.719.552 euroko laguntza eskatuko diote IDAEri bost udalerriren artean, energia murrizketa abiapuntu hartuta, argiteria publikoa berritzeko. Honela banatuta: Arrasatek 548.638 euroko proiektua aurkeztu du; Bergarak 449.849 eurokoa; Eskoriatzak, 405.133 eurokoa; Aretxabaletak 244.541 eurokoa eta Oñatik 71. 391 eurokoa.



Udalerri sarreran dagoen Arrasateko hipermerkatuaren aurreko aldea. | GOIENA

# Eroski hipermerkatua eta beste hamar saldu dituzte

## Likidezia lortu gura izan du taldeak, zorraren amortizazioa kentzeko

**LEIRE KORTABARRIA** | DEBAGOIENA

Eroski Taldeak higiezin aktibo multzo bat saldu du 358 milioi eurotan, eta likidezia lortu du bere zorraren amortizazioa kentzeko.

Hain zuzen ere, hamaika hipermerkatu saldu ditu Gonuri Harizartean SL Higiezinen Sozietateak –Eroskik enpresa horren %45 du– prezio horretan. Tartean dago Arrasateko hipermerkatua, udalerri sarreran dagoena.

Haren jabe berria Invesco enpresa da eta higiezin horietako errenta kontratuei eutsiko die Eroski Taldearen sozietateekin.

### Max Centerra ere bai

Arrasateko hipermerkatuaz gain, Leioako Artea merkataritza-zentroa, Barakaldoko Max Center eta Euskadin eta Nafarroan kokatutako beste establezimendu batzuk saldu ditu Eroskik.

Gonuri Harizartean SL enpresako kapital sozialaren gainerakoa honela banatzen da: %50 Topland-ena da, eta %5, Mondragon Inbertsioena. Operazio horri gehitu behar zaio Espainiako erdialde eta hegoaldean supermerkatuak saltzearekin egin zuen desinbertsioa, 2015ean. 143 milioi euro berreskuratu zituen horrela.

Eroskiko finantza zuzendari Jose Ramon Anduagak oso baikortzat jo du Gonuri Harizarteanek higiezin aktiboak saltzeko egin duen operazioa: "Higiezin sozietateetako inbertsio finantzarioetatik itzuli zaigunari esker, bermeekin egin ahal izango diegu aurre finantza berregituratzeko akordioan bankuarekin hartutako konpromisoei", esan du Anduagak. Operazio horiekin, konpainia ari da Plan Estrategikoa betetzen. Plan estrategiko horren helburua da indargunetan gehiago oinarritzea eta errentagarriagoa izatea.

# Bi 'whatsapp' mezuak gezurtatu egin dituzte

## Ustezko ume-bahiketa eta bahiketa saiakera banaren gaineko mezuak zabaldu dira

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Asteon bi *whatsapp* mezuk alarma eragin dute eskualdeko guraso askoren artean. Laburbilduz, biek ala biek erreferentzia egiten zioten ustez Eskoriatzan gertatutako ume-bahiketa eta ume-bahiketa saiakera banari; bi kasuetan, furgoneta zuri batekin lotuta zeuden ustezko gertakariak.

Bada, Ertzaintzak gezurtatu egin ditu *whatsapp* horien bitartez zabaldutako bi mezuak.

### Martitzenean, lehena

Martitzeneko mezuak zioen oraingo asteko astelehenean eta joan den asteko egubakoitzean Eskoriatzan ume bahiketa saiakerak izan zirela.

Mezu horren kasuan, Ertzaintzak aditzera eman zuen eurek ez dutela ez gertakari baten eta ezta ere bestearen salaketarik jaso. Aldiz, jakinarazi zuten mutiko baten gurasoek jo zutela eurengana astelehenean jazotako gertaera baten abisu emanez. Haien arabera, 10-12 urteko mutiko batzuk Eskoriatzako skate-parkean jolasean zebiltzala furgoneta zuri bat pasatu zen, eta mutikoek ikusi zuten barrutik begira zeudela eurak zebiltzan ingurura. Mutikoek izutu eta alde egin zuten.

Poliziak emandako informazioaren arabera, mutikoak beldurtu egin ziren, ze zurrumurru baten arabera barikuan ume-bahiketa ahalegina izan zen Eskoriatzan leku berean. Edozein modutan, azken zurrumurru horren berririk ez du poliziak, ez salaketa eta ezta jakinarazpen modura ere.

Kontuak kontu, Ertzaintza harremanetan jarri da Eskoriatzako Udaltzaingoarekin, eta inguruak zaintzen ibiliko direla adierazi dute.



Whatsappeko mezua. | GOIENA

### Eguaztenean, bigarrena

Hala ere, eguaztenean beste mezu bat zabaldu zen Whatsappez; kasu honetan, Arrasaten, Eskoriatzako ustezko gertakaria aipatuz, eta, gainera, bigarren mezuak zioen ertzainen esanetan Eskoriatzako ume bat desagertuta zegoela zapatuaz geroztik. "Ez dakigu zein iturritatik aterako zuten Ertzaintzak esan duela zapatutik Eskoriatzako ume bat desagertu dela, baina hemendik ez da atera, ez baitaukagu horren berririk. Beraz, ez da egia, inondik inora", adierazi dute. Eta gaineratu dute: "Kasu hauetan gertatzen den bezala, Whatsapp oso erreminta kaltegarri bilakatzen ari da eta ustezko gertakaria larritzen ari da, baita gezur bilakatzen ere. Ez dugu ezagutzen hori esaten duen testigurik, eta ez daukagu sare sozialetan dabilen furgoneta zuri susmagarri horren berririk, ezta matrikularik…".

### "Deitu, eta gu joango gara"

Era berean, Ertzaintzak eskatu du halako gertakari bat izanez edo ikusiz gero, ahalegina egin behar dela datuak hartzen: matrikula, modeloa, gidariaren deskribapena… eta ahalik eta lasterren eman abisua Ertzaintzari. "Momentuan deitu, eta gu joango gara", azpimarratu dute.

# Amaia Albesek egindako soineko bat Goya sarietan izan da

**MIRARI ALTUBE** | ARRASATE

Nagore Ezeiza donostiarra Amaia Albes diseinatzailearen soinekoarekin izan zen joan den zapatuko Goya sarietan. *Hijos de la tierra* film laburrean kamerari laguntzaile lanetan jardun du Ezeizak eta haren bikotekide Axel O'Mill argentinarra zuzendarietako bat da. Dokumental labur onenaren saria jaso zuen, hain zuzen, *Hijos de la tierra* nafarrak.

### Zorionak soinekoari

"Nagorek berak deitu zidan. Internet bidez ikusi zituela nire diseinuak eta ea soinekoren bat utziko nion Goya sarietara joateko eskatu zidan", jakinarazi du Albesek. Hala, Arrasaten duen tailerrera etorri zen hura egun batean, probatu eta eraman egin zuen soineko beltz dotore bat. "Etxetik jarraitu nuen ekitaldia, eta oso-osorik ikusi nuen, Nagore ikusi nahian. Baita ikusi ere, dokumentalaren izena esandakoan jaiki egin zen eta".

Gauerako bereziki gertatutako soinekoa da Albesek diseinatutakoa: "Beltza, luzea, atzeko partea lurreraino duena, lumaduna eta beirazko osagarriekin, bizkarra zabalik, gorputzari ondo itsatsia, sirena itxurakoa… Nire azken bildumako soineko bat da, eta horri begia botata etorri zen Ezeiza. Beste hainbat probatu zituen hemen, baina hasierako ideiarekin geratu zen. Eta, egia esan, beretako egindakoa zirudien soinekoak, ez nion konponketarik ere egin behar izan!".

Sari banaketaren biharamunean harekin hitz egiteko aukera izan zuen telefonoz: "Saria jaso ondoren ospatzera joan ziren, jende ezagunez inguratutako festa batera, eta soinekoagatik ere askok zoriondu zutela esan zidan", dio arrasatearrak, pozik. Eta aurtengo soinekoak asko gustatu zaizkiola gaineratu du diseinatzaileak: "Eleganteak izan dira, baina sexy ukituarekin".



Ezeiza, soinekoarekin. | NAGORE EZEIZA


Amaia Albes diseinatzailea Ezeizari soinekoa probatzen . | AMAIA ALBES

# %0,9 handitu da Laboral Kutxaren irabazia, 2014ko datuarekin alderatuta

**L.K.** | DEBAGOIENA

Laboral Kutxak 110 milioi euroko zerga osteko irabazi bateratuak izan zituen 2015ean, astelehenean jakinarazi duenez –119,6 milioi euroko mozkin gordina–. Beste emaitza batzuen gaineko datuak ere eman zituen; adibidez, finantza sektoreko errentagarritasun ratiorik onenetakoa du batez besteko aktibo osoaren gainean. Gaineratutakoen artean, Laboral Kutxak azpimarratu du bankuen krisiaren ondorengo aroa da honako hau; bereziki bankuen kaudimenean (solbentzian), berankortasunean (morositatean) eta likidezian arazoak eragin zituen krisiaren ondorengoa.

# 18 milioiko isuna zortzi 'catering' enpresari, prezioak adosteagatik

Horien artean, Mondragon Korporazioko Ausolanen hiru enpresa daude

A.T/M.T. | DEBAGOIENA

Legearen Euskal Agintaritzak 18 milioi euroko isuna ezarri die Euskal Autonomia Erkidegoko eskola publikoetan jantoki zerbitzua emateko kontratua izan duten zortzi enpresari, prezioak adosteagatik. Erakunde horrek orain arte ezarritako isunik handiena da.

Zigorra jaso duten enpresa horien artean Mondragon Korporazioko kide den Ausolan enpresa dago, Auzo Lagun, Cocina Central Goñi eta Cocina Central Maguiren jabe dena.


Ausolango langileak Arrasateko zentroan. | LEIRE KORTABARRIA

**Zazpi milioitik gora**

Enpresa bakoitzari zigorrak ezartzeko, kontuan hartu dituzten faktoreak izan dira negozio bolumena, nolako parte hartzea izan duen bakoitzak arau haustean, eta kontratu horiek duten pisua enpresen fakturazio osoan.

Hori dela eta, Ausolanen kasuan, zigorra 7.400.000 eurokoa da. Lehia Agintaritzak frogatutzat jo du 2014ra arte, hamar urtez, enpresok ez zirela euren artean lehiatu, eta eskaintza adostu zutela, zerbitzua ematea bermatzea eta prezioak igotzea lortuaz. Lehia Agintaritzaren iritziz, urraketa "larria" da.

Ikasturte honetan kontratazio sistema aldatu du Eusko Jaurlaritzak, eta lehiaren zabaltze horrek soilik zazpi milioi euro aurreztea ahalbideratu du, Lehia Agintaritzaren esanetan.

**Ausolanen oharra**

Ausolanek ohar bidez adierazi du inoiz ez duela egin lehiaren kontrakotzat jo daitekeen ekintzarik bere berrogeita zazpi urte baino gehiagoko ibilbidean. Azaldu du, baita ere, "egiaztatu gabeko informazioan oinarritutako ebazpena" izan dela, testuingurutik ateratako datuetan oinarritua. Horregatik, Ausolanek iragarri du erabakia errekurritu egingo duela.

**Familiengan eraginik ez**

Hezkuntza sailburu Cristina Uriartek azaldu du, bestetik, gertatutakoa larria dela, baina baieztatu du familiak ez direla ekonomikoki kaltetuak izan, ordaintzen zituzten kuotak finkoak zirelako.

# Bergarako Arcelorko langileak "kezkatuta", baina "itxaropentsu"

O.E/M.T. | BERGARA

Arcelor-Mittalen Bergarako lantegiko langileak "kezkatuta" daude Sestaoko planta ixteak haiengan izan dezakeen eraginagatik. Xabier Garitano langileen batzarreko kidearen esanetan, "lantegia ez dabil duela urte batzuk bezain ondo". Arrazoietako batzuk dira energiaren prezio altua, Txinak ekartzen duen produktuaren prezioa hemengo kostuena dela eta, orain, burdina urtzeko labe integralak erabiltzen dituztela. Horietako labe bat dute, esaterako, Asturiasen, eta hara eraman dute Sestaoko altzairutegia.

Gaur egun altzairua laminatu egiten dute Bergaran. Altzairutegia 2009an itxi zuten eta ordutik honako egokitzeak direla-eta 28 langilek Zumarragako lantegian dihardute; Labegaraietan 176 langile daude egun.

**Itxaropentsu**

Hala ere, Garitanok badu etorkizuna "itxaropenez" ikusteko arrazoi bat; egubakoitzean enpresako ordezkariak deitu zion komiteko kide bati hitzarmen berria negoziatzeko. Atzo egin zuten lehen bilera eta datorren martitzenean dute hurrengoa. Olaberrian ere zabalik dago negoziazio mahaia. Zumarragan eta Zaragozan, ordea, ez.

Enpresak, berriz, adierazi du altzairugintzak egoera zaila bizi duela Europa osoan. Alberto Carrero komunikazio arduradunak esandako moduan, "kostuak eta zorrak gutxitzeko lan estrategikoa" aztertzen ari da orain enpresa.


Arcelor-Mittalen Bergarako lantegia. | OIHANA ELORTZA


ARAMAIO EZAGUTZERA NATOR!

SAIO BERRIA

GOIENA TELEBISTA
OTSAILAREN 18AN, EGUENA, 22:00ETAN

SAIOAREN EKOIZLEA:
MONDRAGON UNIBERTSITATEA



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

## ZABALIK



PATXI OLABARRIA IRIZAR
goiena.eus/komunitatea/

# Hil ondoren zer?

Inoiz pentsatu al duzu munduan kasualitate hutsez gaudela? Egin ezazu zure arbola genealogikoa eta zer pentsatua emango dizu: zure gurasoek elkar ezagutu izan ez balute, zure bi amonek zure bi aitonak ezagutu izan ez balituzte, zure lau birramonek zure lau birraitonak ezagutu izan ez balituzte… ez zinateke existituko. Gainera, zure arbasoen bikotekide bakoitzeko, justu espermatozoide eta obulu konkretu bana elkartu behar izan ziren zu momentu honetan artikulu hau irakurtzen egon ahal izateko. Bilioika bilioi konbinazioren emaitza gara, beraz.

Aste honetan garizuman sartu berri gara, eta eliza katolikoak Jesusen heriotza eta *piztuera* ospatuko du. Elizak heriotzaren eta piztueraren misterio hori erabili izan du historian zehar bere indarrari eusteko. Inork ez omen daki heriotzaren ondoren zer izango den, baina egia al da ez dakigunik?

**"Jaio aurretik ezagutu genuen eternitate bera izango dugu"**

Ariketa erraz bat planteatuko dizut: jarri pentsatzen Elhuyar anaiek wolframioa deskubritu zutenean non zeunden, edo Gaztelak gure herria konkistatu zuenean, edo Harri Aroan, edo *Homo sapiens* sortu zenean, edo Big-Banga izan zenean, edo duela infinitu urte… Oraindik jaio gabe zeunden, baina zer da jaio gabe egotea? Bizirik ez egotea ez al da hilda egotea? Ondorioz, badakigu zer den hilda egotea.

Eternitate bat pasatu da gu mundura etorri aurretik; beste eternitate bat pasatuko da gu mundutik joaten garenetik. Gizakiak betidanik galdetu izan du: hil ondoren zer datorkigu? Badakigu erantzuna: jaio aurretik ezagutu genuen eternitate bera izango dugu hil ondoren.

Antzuolako hilerriko atearen alde baten *Como te veo me vi* jartzen du eta beste aldean *Como me ves te verás.* Zer pentsatua ematen dute bi esaldi hauek. Hala ere, uste dut bizidunok beste esaldi bat jarri beharko genukeela: *Nire burua ikusi nuen bezala ikusiko dut nire burua.*

## USTEAK USTE

MIRARI ALTUBE | aretxabaleta@goiena.eus

# Agintaldi polita aurrez aurre

Ez dira kontu guztietan bat etorri, ezta komeni ere, baina batek eman du hemendik eta besteak handik, baita adostasuna lortu ere. Halaxe onartu dute Aretxabaletako 2016ko Udal aurrekontua. Alde batean dago Udal gobernua, EAJ eta Alderdi Sozialista, eta bestean, oposizioa, EH Bildu eta Irabazi; eta guztiak dira Gobernu Batzordeko kide. Ez da ohikoa hori, apartekoa seguru asko, eta horrek erraztuko al du informazioa jasotzea, elkar ulertzea eta adostasuna lortzea! Izan ere, guztien helburuak izan beharko luke: Aretxabaleta eta aretxabaletarrak. Eta diru gutxi egonda ere ekimenetarako, borondate politikoak zeresan handia izango du. Agintaldi honek itxura polita dauka.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Gutxiengo

**Angel Erro**
http://goo.gl/CLRxB0

Gutxiengoa garelako ustean hezi gara eta maiz eskatu dugu, gutxienez, gutxiengo gisa zor zitzaigun begirunea. Hori ere ez genuen eta.

Nagoen tokitik ari naiz. Iruñetik.

Egunotan bururatu zait ez ote genukeen pentsabidea aldatu beharko eta ohartzen hasi gutxiengoan garenak ez garela gu, euskaldunok, gaztelaniazko elebakarrak baizik.

Elebidunok berez bagara erdal kulturaren zati, gehiengo horren berezko partaide. Gure herriko beste hizkuntza ezagutzeak ez gaitu hortaz gabetzen.

Gauzak hala, ezin da gehiengo-gutxiengo eskema bat erabili. Eta erabiltzekotan, ez elebiduna, zapo erdara darabilen menditik jaitsitako abarkadun gisa irudikaturik, gutxiengoan kokatzeko.

Euskarak gure hainbat auzorengan eragiten duen ezinikusia ez da garai batekoa, nik uste, eta gaur elebakarren gutxiagotasun ustetik heldu da.

Gogoan ditut Nafarroako euskal eta erdal poeten topaketa bakan batean Madrilgo editore bat liluratzeko erdal poeten ahalegin lizunak.

Gogoan dut nola so egin zidaten une batean editorea eta biok Sá de Miranda eta Camões portugaldarren gaztelaniazko olerkiez mintzo hasi ginenean, euskararik itxienean ariko bagina baino ezinduagorik solasean parte hartzeko, eta niri Xalbador aipatzea beste ezer ez balegokit bezala.

# Azken gutuna

**Joxe Aranzabal**
http://goo.gl/tFiW0J

Aurreko egun batean, Durangon nintzela, altxor txiki bat aurkitu nuen Hitz liburu-dendan: *Azken gutuna eta beste,* Vassili Grossman idazlearena. Liburu txikia da, 75 orrialdekoa, eta Erein argitaletxeak 2005ean plazaratu zuen *Oroimenean barrena* bilduman.

Liburuak hiru lan ditu: *Azken gutuna, Ikonnikoven gutuna* eta *Ama Birjina Sixtotarra.*

Hirurak Felipe Juaristik ederki euskaratuak.

*Azken gutuna* horixe da, naziek hil behar duten ama batek seme bakarrari idazten dion azken gutuna. Hunkigarria gutxi esatea da, erabat astintzen zaitu-eta kontakizunak. Antza denez, oinarrituta dago Vassili Grossman-en amaren kasuan, naziek hil baitzuten ghetto batean, semea gerra-berriemaile ari zenean Armada Gorriarekin.

*Ikonnikoven gutuna,* berriz, bestelakoa da. Bertan egileak bere ikuspegia azaltzen du ongia eta ontasuna bereizteko orduan. Egileak gizakiaren ontasunean sinesten du:

*Gizabanako batek beste gizabanako baten aurrean erakusten duen ontasun hau lekukorik gabeko ontasuna da, ideologiarik gabeko ontasun txikia. Pentsamendurik gabeko ontasuna. Gizon-emakumeen ontasuna, erlijioaz edo giza ongiaz kanpo dagoena.*

*Ama Birjina Sixtotarra* saio labur bat da Rafael Sanzio pintore errenazentistaren koadro baten inguruan, zeina Armada Gorriak Dresdengo museotik eraman baitzuen Moskura. Koadroak iradokitzen dio gizatasuna dela gizakiaren altxorrik preziatuena.

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Garbiñe Beitia.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.850 ale
**Difusioa:** 18.507 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

## GUTUNAK / HANDIK ETA HEMENDIK

# Birziklapena bai Debagoienean, zabortegi kutsakorrik ez

**Alain Solupe Garcia**
Arrasate

Hainbeste iskanbila zaborraren inguruan eta orain, gauzarik normalena balitz bezala, zabortegi bat inposatu nahi digute, besterik gabe.

Soilik ahalegintxo txiki bat eginda, konturatu gara debagoiendar guztiok ohitura kontua dela hondakinak etxean ondo kudeatzearena, ez beste ezer. Utz ditzagun albo batera ika-mika politikoak eta zentzuzko erabakiak har ditzagun, beti herritarra eta ingurumena arazoaren ardatz hartuz.

Eta horixe da eskatzen dudana, *sentido común* delakoa gailendu dadila eta Debagoienean zabortegi kutsakor bat inposatzearen ideia albo batera baztertu dezatela. Baina ez hori bakarrik: ahaztu dezatela errauskailua ere behingoz! Inork ez duela nahi bere etxearen ondoan, inork ez. Gipuzkoar guztiok hondakinak Debagoienak biltzen dituen moduan bilduz gero –sistema desberdinen bidez– oso datu interesgarriak lortuko lirateke eta bilketa selektibo maila %80koa izatea lortuko lukete. Eta hori oso egingarria da, borondate politikoa besterik ez da behar; a, eta ezkutuko interesik ere ez egotea –ekonomikoak batzuen poltsikotarako–. Gauzatuz gero bilketa efektibo bat, kutsakorrak diren errauskailu eta zabortegirik ez genuke beharko.

Debagoieneko Mankomunitateak du azken hitza zabortegiaren baimenean; beraz, eurengana zuzentzen naiz eskatuz herritarrengan eta ingurumenarengan arreta gehiago jarri eta kontuan har dezaten herritarrek etxeetan hondakinak ez nahasten egindako ahalegina.

# Ezaguna, errutina, segurtasuna

**Zihara Enbeita**
http://goo.gl/hWp2Si

Autismoaren inguruko bideo bat ikusi dut egunotan. Bertan hiru gaztek autismoa nola bizi duten agertzen da. Haien hitzetan edota senitarteko eta lagunen hitzetan ezagutu dezagun. Zelan edo halan denok haien bizipenen parte izan gaitezen. Nola usaintzen duten kontatuko digute, nola ikusten duten, nola sentitzen duten. Zer den jende asko dagoen leku itxi batean bat-batean bertako soinu guztiak batera entzutea, bolumen berean eta minik ez hartzeko eskuak astindu behar hori, norbere ahotsa entzun behar hori. Zer den erdikoa bakarrik ikustea, edota ertzak bakarrik, edo bikoitza ikustea. Zer den usain batek min ematea. Zer den norbaitek kasualitatez ukitu eta deskarga elektriko baten kolpea jasatea. Zer den arroparen etiketak horrenbesteko kaltea egitea. Batzuei horrek guztiak ematen die min, eta beste batzuei bakar batek edo bakar batzuek. Eta, batzuetan, leku publikoetan, min horiek guztiak elkartzen dira. Berbaroa, usainak, argiak... Eta nola lasaitzen dituen errutinak, nola heltzen dioten errutinari. Erosoak dira errutinak. Edota ezaguna duten objekturen bat eurekin izateak ematen die lasaitasuna.

Mundua ikusteko era berezi horrek zenbait arlo besteek baino gehiago garatzera eraman ditu. Batzuk, adibidez, ia dena iruditan ikusten dute eta sekulako memoria fotografikoa dute. Beste batzuek, ordea, dena patroi batzuen arabera ikusten dute eta matematiketan apartak dira. Historialarien arabera, autistak omen ziren Newton, Picasso, Michelangelo edota Mozart.

Kuriosoa da errutina, ezagunak ematen duen lasaitasun hori dela era berean haien etsairik handienetako bat. Ezezagunari beldurra, ezezagunak sortutako mespretxua. Horregatik gura dute guk ezagutzea.

Bakarrak izate horrek egiten gaitu denok garena eta, hala ere, desberdina dena baztertzen dugu.

# Erlatibitatea

**Garbiñe Ubeda**
http://goo.gl/dNfyNv

Astrofisikariek hizki larriz seinalatuko dute gaurko eguna, 2016ko otsailaren 11, unibertsoko grabitazio uhinen zantzuak detektatu direla argitaratu eta beraz ofizialduko baitu *Nature* aldizkariak; edo bestela esanda, Albert Einsteinek arrazoi zuela —horretan ere—, hark duela mende bete aurreikusi bezala, espazio-denbora ez dela finkoa, ez dela gehienok irudikatzen dugun moduan lineala, eta bibrazio edo uhinon eraginez, aldatu, konprimitu edo zabaldu egin daitekeela, txalupa batek ibaian barrena sortzen dituen olatuek ur-azala zimurtzen eta ondulatzen duten bezala.

Bi zulo beltzen arteko kolisioa ikusita frogatu dute Einsteinen egia. Talkak grabitazio uhinak sortu omen ditu, espazioan barreiatu, unibertso osoa bibrarazi, eta hemen, bi munstrook bat egin duten puntutik horren urruti gauden arren, antzeman egin ahal izan omen da, tresna berezi eta sofistikatuen bidez. Ez dakit munduaren ulerbidean zer nolako ondorioak izango dituen aurkikuntzak, baina Einstein aipatzen den aldioroko burutazioa etorri zait gaur ere: nola litekeen inoizko bururik argiena, garaiei aurreratuena, aldi berean emakumeei boto-eskubidea ukatzeko edo zientzia ikasketak debekatzeko bezain atzerakoi, misogino eta inteligentzia eskasekoa izatea. Dena ez da erlatiboa.

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**

**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

**AHOLKULARITZAK**

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

**ARKITEKTOAK**

**BIARK ARKITEKTOAK**
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

## DUELA 10 URTE

2006-02-24

### San Pedron ere galtzada-harriak

Artekalean eta Arrizuriagan galtzada-harriak jarri ondoren, Goenkalean gauza bera egiten hasi ziren. Hango obrak bukatu ostean, San Pedro kalean eta epaitegi aurrean jarriko zituztela esan zuten. Galtzada-harriak eskuz jarri zituzten: lehengo zoru azpian galtzada-harriak zeuden. Kalea zulatu eta altxatu ondoren, azpiko harritxoak banan-banan atera zituzten, lanen bukaeran berriro gainean jartzeko.



Goenkaleko harritxoak, goiko estazioan. | O. ELORTZA

2006-02-03

### Arcelorrekin kezkatuta

Gaur egun moduan, orain dela hamar urte ere sindikatuek ez zuten batere argi ikusten Arcelork Bergaran zuen plantaren etorkizuna. Mittal Steelek EEP edo OPA areriotsua egin zion Arcelorri orduan, eta sindikatuetako ordezkariak Bruselan izan ziren, horri aurre egin nahian. Ez zuten lortu. Sasoi hartan Arcelorrek 300 langile baino gehiago zituen Bergaran. Gaur egun 176 langile daude Labegaraietako plantan.

## DUELA 5 URTE

2010-02-19

### Gutunik onena, Isazelaiak

Jardun Euskara Elkarteak antolatutako amodiozko gutunen lehiaketako irabazleen artean, gerora Bergarako alkate izango zen Jaione Isazelaia ere bazen. 18. edizioa zuen orduan lehiaketak eta Isazelaiak bergarar onenaren saria eskuratu zuen. Arantzadi Ikastolako euskara irakasle zen orduan.

## HERRITARRAK

BERGARA

**Jose Ramon Eguren** San Joxepe erretiratuen elkarteko presidentea da. Denbora eskatzen dio karguak, baina gustura dihardu. Paseatzea, irakurtzea, pilota... ere baditu gustuko | JULEN IRIONDO

# "Ogetarekin eta Bernedoko Txikitorekin eskupilotan jokatutakoa naiz"

Hitz jario onekoa da Jose Ramon Eguren (Bergara, 1947). Patxadaz eta zabal dihardu, bere egunerokoaren eta zaletasunen gainean, oraingoaz eta lehenagokoaz.

**Zer da zuretzat eta zer dakar San Joxepeko presidente izateak?.**
Ez da lan handia, baina bai dakar goizero hona etorri beharra. 11:00etatik 13:00etara egoten naiz, eta arratsaldeetan ere etortzen naiz, 17:00ak aldera. Gauzak egin beharra egoten da. Hamar gara zuzendaritzan, eta bakoitzak du bere zeregina. Ni saiatzen naiz dena koordinatzen, eta gero, adibidez, bidaia kontuetan ibiltzen naiz, eta beste edozein zerbitzutan ere lagun badezaket, laguntzen dut. Datorren jende dena hartzen dut, arazoak konpontzen saiatu... Eta gustatzen zait gauza berriak antolatzea, aldatzea.

**Arabarekin ze lotura duzu?**
Etxetxo bat dugu Rivabellosan. Emaztea arabarra da. Asteburuetan hara joaten gara. Hango lasaitasuna gustatzen zaigu, hura lasaia da, oso lasaia. Han ez dago zaratarik, zarata bakarra traktoreren batzuena izaten da. Han egunerokoan bizi diren bizilagunak bost besterik ez dira; denek nekazaritzan jarduten dute. Gauez ez dago zaratarik.

**Ortuan ibiltzen ei zara han.**
Han badut lana, bai. Mila metro koadroko jardina dut. Fruta-arbolak ditut, eta ortua ere jartzen dut: jartzen ditut bost piper klase, kipula mota desberdinak, tomatea, lekak, pepinoa, kalabazina, kalabaza... Dena etxerako, seme-alabentzat, amarentzat, arrebarentzat... Sagarrak aurten ikaragarri eduki ditugu. Badut sagarrondo bat, *Golden* motakoa; aurten zegoen inoiz egon ez den moduan. Bost karretilakada kendu behar izan nizkion aleak txikiak zirela, gainerakoak handitu zitezen.

**Ortua entretenimendu ona da.**
Nekagarria ere bada, baina ondo pasatzen da, bai. Beno, eta ni asteburuetan bakarrik joaten naiz; esaten didate: "Astean behin joan eta eman egiten dizu?". Nik astean behin ureztatzen dut, gehiago ez. Eta ondo berotzen du, gainera. Eguzkiak beti ematen dio, goizez eta arratsaldez.

**Beti izan duzu orturako afizioa?**
Bada, hasi nintzen etxea egin genuenean, duela 24 urte edo. Nik Gipuzkoako Ogasunean egiten nuen lan. Eta Bergaran bada, herri irteeran, baserri bat ortuko produktuak saltzen dituena, eta hangoek baserri berria egin zuten; baserri ederra egin zuten. Alta eman zioten Ogasunean eta hango semea etorri zitzaidan esaten kontribuzioa gehiegi ordaintzen zuten ustea zuela. Lagundu egin nion tramiteetan, eta azkenean arrazoia eman zioten. Eta lagundu izanagatik, berdura ekartzen hasi zitzaidan. Eta esan zidan: "Zergatik ez duzu ortua jartzen?". Landareak ekartzen zizkidan, eta hala hasi nintzen.



Jose Ramon Eguren, San Joxepeko bulegoan. | J.I.

> "Ez da lan handia hemengoa, baina bai dakar goizero hona etorri beharra"

> "Mila metro koadroko jardina dut: fruta-arbolak eta ortua dauzkat"

**Eta Bergaran zaudenean eta denbora librea duzunean, ze afizio duzu?**
Gustatzen zait paseoan egitea. Osintxuraino joaten naiz, eta buelta. Arratsaldeetan amarekin egoten naiz; 92 urteko ama dut. Irakurtzea ere gustatzen zait, denbora edukiz gero, ze askorako ez dit ematen egunak. Goiza San Joxepen pasata, ez da denbora egoten beste gauza askotarako. Baina egunkaria egunero irakurtzen dut, eta liburuak edonolakoak. Pilota partiduak ikustea ere gustatzen zait; jokatutakoa ere banaiz, ez asko baina... Eskola garaian, Araban, Ogetarekin, Bernedoko Txikitorekin... jokatutakoa naiz; sparring moduan, baina bai. Bernedoko mutil bat nuen gelan, eskolan, Gasteizen. Haiek eguenetan jokatzen zuten. Eta gelako lagunak ezagutu egiten zituenez, joan egiten ginen gu ere; eta esaten ziguten: "Zu jarri hor izkinan eta pilota badator, eman". Ez genituen bi pilotakada ere ematen, baina han ibiltzen ginen eurekin.

**Eta orain ikustea gustuko...**
Bergaran izugarrizko betekadak izaten ziren. Ni abonatua nintzen frontoian. Eguazten gauetan ere izaten ziren partiduak Udal Pilotalekuan. Eta izugarrizko jende pila etortzen zen, baita kanpotik ere. Eta gu hiru ginen, eta gure jarlekuak genituen, finkoak. Eta pena izan zen hori galtzea, ze Bergara eta Eibar ziren frontoi nagusiak.

## NIRE HERRIAN

:) **BONI LASKURAIN PASEALEKUA**

Boni Laskuraineko pasealeku hau oso ondo dago, oso polita; jende asko ibiltzen da. Eta Domingo Irala kalea ere oso ondo dago. Giro ederra izaten da Boulevard–a deitzen diogun kalean: dendak daude, tabernak... giro ederra sortzen da, eta oso polita da herrian giroa egotea, interesgarria da benetan.

:( **TABERNETAN ERRETZEA**

Gustatzen ez zaidana da tabernetan erre egiten dela. Debekatuta egon arren, erre egiten da oraindik. Egunez ez hainbeste, baina 19:00etatik edo 20:00etatik aurrera... Udaltzaingoak gehiago zaindu beharko luke... Eta asko erretzen da, gainera, marihuana, ezagun izaten da.

# HERRIAK

ANTZUOLA

## Mendia maitatuz eta bultzatuz

Aurtengo ibilaldi neurtua antolatzeko ardura Arrola mendi taldeak izango du, martxoaren 13rako

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Garaiak aldatzen doazen arren, mendizaletasunaren egoera osasuntsua da Antzuolan; hein handi batean, Arrola mendizale taldearen urteetako lanari esker. "Lehen, mendira joateko aukera askorik ez zegoenez, Arrolari esker irteerak antolatu eta egiten zituzten herritarrek asteburuetan. Egun, baina, ohiturak aldatu egin dira eta mendira edozein unetan joateko erraztasunak ere handiagoak dira. Hala ere, Arrolak antolatzen dituen irteerek mantentzen dute oraindik ere hasierako esentzia hori eta parte-hartzea ona da. Garaiak aldatzen doazen arren, antolatzen diren ekintzetan eta irteeretan antzuolarrek hartzen dute parte", azaldu du Arrola Mendi taldeko lehendakariak, Maialen Guridik. Arrolak 500 bazkide inguru ditu eta 70etik gora mendi federatu ditu. Talde oso dinamikoa da eta, hain justu ere, hortik jaio da Mendi hastea egitearen ideia. "MendiTour ekimena aprobetxatuz bertako dokumentalak Antzuolan botatzea proposatu zuen batzordeko kide batek. Hortik sortu zen Antzuolan Mendi astea lehenengoz egitearen ideia".



Maialen Guridi Arrolako Lehendakaria. | MAIDER ARREGI

### Argazki lehiaketa

*Mendia eta natura* argazki lehiaketa ere lehenengoz antolatu dute Mendi astearen baitan. "Aurtengoa lehena izan da, arrakasta eduki du. Antzuolatik kanpo ere parte hartu gura izan dute zenbaitek. Horregatik, datorren urtean antolatzea erabakitzen bada, baliteke Antzuolatik kanpo ere deialdia zabaltzea". Argazki lehiaketan parte hartzeko epea bukatu da, eta epaimahaiak otsailaren 18an jakinaraziko du irabazlearen izena. "Aurkeztutako lanekin erakusketa jarriko da Olaranen".

### Ibilaldi neurtua

Arrolarena izango da martxoaren 13an egingo den gaztetxoen ibilaldi neurtua antolatzeko ardura. Eskola kirolaren baitan, Gipuzkoako federazioak antolatzen duen ekimena da. "Trenbide zaharra berritua dagoela aprobetxatuta, bertatik barrena egingo dugu ibilaldia. Ondoren, San Martzialera igoko gara eta mokadutxoa jango dugu. Ondoren, Uzarragatik behera jaitsiko gara. Guraso zein gaztetxo, hortxe dute aukera".

## Arrola mendizale elkartearen ibilbideak izandako momentu eta irudi esanguratsuak


Urbian egindako kanpaldia.


Arrolakoak Kanpanzarren 1972an .


Elurraz gozatzen Azkuen 1987an.


Neuvilera egindako irteera 2000. urtean.


Trekutzeko iturria 1984an.


Urbasara bizikleta irteera 2001ean. | ARGAZKIAK: ARROLA

### MENDI ASTEA: EGITARAUA

**OTSAILAK 17, EGUAZTENA**

**18:30** Argazki lehiaketako sari banaketa Torresoroan. Ondoren, hitzaldia Mikel Linazisoro eskalatzailearekin.

**OTSAILAK 19, EGUBAKOITZA**

**19:30** Torresoroan, Bilboko MendiFilm jaialdiko hiru dokumentalen emanaldia. Sarrera 6 euro. Lehiaketarako aurkeztutako lanak ere ikusgai izango dira otsailaren 19an, 20an eta 21ean: 18:30etik 20:30era.

**OTSAILAK 21, DOMEKA**

**09:00** Mendi bizikleta irteeraAntzuola – Trekutz – Legazpi – Arrola – Antzuola.

**11:00** Eskolako patioan umeendako jolasak: eskalada, orientazioa...

UDESIGN-SHOP.COM

3D marrazkien bidez zure etxea IKUSI. Zure ametsak egia bihurtuko ditugu

Zure etxeko edozein espazioren marrazkiak 3Dn.
Marrazkian agertzen diren elementu guztiak benetakoak dira.







Hemen gaude: Juan Carlos Guerra plaza, 3-4 (sarrera: Otalora lizentziaduna kaletik) ARRASATE 943 77 18 74

# Garbiketa ordenantza, "adierazpen askatasuna mugatzeko lege berria"

EH Bilduk "lanketa serioa eta sakona" eskatu du arautegia onartu aurretik

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Garbiketa ordenantza berri bat onartzeko lanean ari da Udal Gobernua. Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordean lantzen ari diren arautegi berriak "kalitatezko espazio publiko bat" bermatzea du helburu, eta herritarrei udalerriko garbiketa estrategian "jarrera erantzunkide" bat eskatzen die. Hasierako asmoa da ordenantza berria martxoan jartzea indarrean, eta, oro har, garbiketarekin zerikusia duten hainbat esparru hartuko ditu aintzat. Horien artean, besteak beste, pintada, kartel, pankarta, pegatina eta antzerakoak jartzea erregulatuko duten neurriak aurreikusten dira: "Debekatuta dago pintadak egitea, bide publikoan, eraikin publikoen edo partikularren fatxadetan, hiri altzarietan, zuhaitzetan, monumentuetan eta, oro har, edozein kanpoko elementutan".



Adierazpen gunea (ezkerrean) eta euskararen aldeko mural bat (eskuinean). | J.B.

**Aurre-lanketa baten "beharra"**

Oposizioko talde nagusiak, EH Bilduk, ez du ordenantza begi onez ikusten: "Arrasate garbi baten aldeko apustua egiten dugu eta hala adierazi diegu Udaleko arduradunei. Baina aurre-lanketa baten beharra ikusten dugu; izan ere, ordenantza bat onartzea aurretik egindako ahalegin eta lanketen azken hautua izan beharko litzateke". Arazoak zeintzuk diren aztertzeko diagnostikorik jaso ez izana ere salatu du koalizio ezkertiar eta abertzaleak: "Diagnostiko hori ezinbestekoa ikusten dugu gaur egungo egoera ezagutzeko. Behin egoeraren berri izanda, heziketarako mekanismoak jarri behar dira martxan, hala nola sentsibilizazioa, adierazpenerako espazio berriak, neurri zuzentzaileak...". Zigorren artean –arau-hauste arinak, larriak eta oso larriak daude–, pintada bat egitearren 151 eta 250 euro arteko isunak jasotzen ditu ordenantzak, besteak beste. Bestalde, ez ditu muralak debekatzen, betiere egileak aurrez baimena eskatzen badu. Gainera, adierazpen askerako "gune artistiko" berriak sortzea aurreikusten du ordenantzak.

**"Mozal lege munizipala"**

Arautegiak herritarren adierazpen askatasuna mugatuko duela uste du EH Bilduk. Izan ere, "mozal lege munizipala" deitu diote ordenantzari: "Dokumentuaren ia hiru laurdenak adierazpen askatasuna mugatu eta zigortu nahi ditu. Adierazgarria da ordenantzan *debeku* hitza 18 aldiz agertzen dela, *isuna* hitza 17 aldiz eta *heziketa* hitza ez dela aldi bakar baten ere agertzen. Ordenantza zigortzailea da erabat, lanketa serio eta sakon bat egin gabe". EH Bilduren arabera, garbiketa hitza "apaintzeko" erabili da soilik: "Garbiketak ez du zerikusirik mezuen edukiarekin eta horien gaineko kontrolarekin. Gainera, mezuak zabaltzeko baimenak lortzeko epaile lanak Udalak egingo ditu. Erabaki horiek nork hartuko ditu? Teknikari batek? Kargu politiko batek? Alkateak? Erabat lekuz kanpo ikusten dugu adierazpen askatasuna mugatu nahi izatea", diote.

Horrez gain, Udalak aurreikusita dituen adierazpen askerako gune berrien "beharra" dagoela uste dute. EH Bilduk uste du garaiz daudela ordenantza bertan behera uzteko: "Harremanetan gaude Baleike eta Irabazi taldeekin eta herriko beste eragile batzuekin. Ordenantza geratu gura dugu, herritarron eskubideen kontra doalako".

## Zaintza zerbitzuko lan baldintzak hobetzeko sinadura bilketa

LABek eta Gipuzkoako erretiratu eta pentsiodunak ordezkatzen dituen Duintasuna Elkarteak ongizateko zaintza zerbitzuan lan egiten dutenen baldintzak hobetzeko sinadura bilketa egingo dute datorren astean. Hilaren 18an anbulatorioan egongo dira (09:30) eta hilaren 19an Laubide plazako azokan (10:30). Musakolako, Erguingo eta Etxaluzeko erretiratuen egoitzetako tabernetan ere sinatu ahalko da. Deitzaileen eskaera nagusia da langileen kopurua handitzea.

## Otsailean Musakolan elkartuko gara, ludoteka ibiltarian

Bihar, zapatua, ludoteka ibiltariaren lehen saioa egingo dugu Musakolako gazte txokoaren atarian. Goiza primeran pasatzeko aukera eskainiko dugu; izan ere, 10:30etik 13:30era bi hezitzaile egongo dira gerturatzen direnen nahiak betetzen ahalegintzeko. Musakolan otsailaren 13an, 20an, 27an eta martxoaren 5ean egongo da ludoteka ibiltaria. Martxoan eta apirilean San Andresen egongo gara.





Arbolapeta eta Muzibar artean ezkerreko espaloia zabaltzeko "behar handia" dago. | JOKIN BEREZIARTUA



Juan Antonio Urdangarin eta Maria Ubarretxena. | J.B.

# Herriko kale nagusietako bat nola geratuko den eztabaidatzeko unea

Arbolapeta eta Muzibar arteko proiekturako 21 proposamen ikusgai Kulturaten

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Otalora Lizentziaduna kalearen Arbolapeta eta Muzibar arteko kale zatia berrantolatu gura du Udalak. Aurreko agintaldian, Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko batzordeak eta Bizikletaren Mahaiak "behar handia" ikusi zuen espaloi zati bat zabaltzeko: "Goienara ematen duen espaloia oso estua da bertatik pasatzen den jende guztiarendako. Oinezkoendako ardatz horrek ez dauka zabalera nahikorik", esan zuen, Kulturateko klaustroan dagoen erakusketaren aurkezpenean, Maria Ubarretxena alkateak.

Epe luzerako proiektua izango da, baina herritarren iritzia jaso gura dute ezer egin aurretik: "Arrasate pasealekuan gertatu zena ekidin nahi dugu. Jendea oso ondo informatu behar da. Ez dugu presarik, gauzak ondo eta pausoz pauso egin nahi ditugu", dio alkateak. Erakusketa hilaren 18ra arte egongo da zabalik; astelehenetik eguenera 17:30etik 20:30era eta egubakoitzean 17:30etik 19:30era.

### Aukera bakoitzeko plano bana

Kale zati horren berrantolatzeko "lehen harri" moduan, Bidein ingeniaritza enpresaren laguntzarekin, Udalak 21 proposamen jarri ditu jendaurrean ikusteko. Aukera bakoitzeko plano bana: "Planoetan informazio guztia sartu dugu. Batetik, oinaren altuerako planoa dago non ikusten den zein izango litzatekeen afekzioa. Bestetik, sekzio batzuk ere jarri ditugu ondo ikusteko esparru bakoitzak hartzen dituen zabalerak zeintzuk izango liratekeen. Aparkalekuak, bidegorria, oinezkoendako zatia... Jendeak planoa ikusten duenean aukera bakoitza bere osotasunean ikusi dezake. Hori zen zailtasun handienetako bat, aukera horren zabala izanik, herritarrek ondo ulertzea plano bakoitza", zehaztu du Hirigintzako teknikariburu Juan Antonio Urdangarinek.

Bestela ere, erakusketa zabalik dagoen bitartean Udaleko teknikari bat bertan egongo da edozein zalantza argitzeko. Gainera, hilaren 11rako eta 18rako bisita gidatuak antolatu dituzte, 18:30ean.

### Askotariko alternatibak

Hiru multzotan banatu dituzte aukerak, errekaren bistaratzea irizpide hartuta: lehen multzoan, erreka bistaratu gabeko proposamenak daude; bigarrenean, errekaren zabalera txiki bat bistaratzen direnak; eta hirugarrenean, erreka zabalera handiago baten azaleratzen direnak. Planoetara joanda, denetarik dago. Erreka bistaratu barik, esaterako, proposamen askotan jasotzen da Otalorako zirkulazioa Arbolapetarako norabidean izatea eta Monterron parkearen altueran, kontrako norabidea Zarugalde kaletik bakarrik izatea. Hiru multzoetan aukera oso ausartak planteatzen dira; Zarugalde osoa oinezkoendako egokitzeko aukera dago, adibidez.

Horrez gain, planoetan koadro batek jasotzen du obrak izango lituzkeen ondorioak honako irizpide hauen arabera: ibaiaren errekuperazioa, aparkaleku galera, kostu ekonomikoa, oinezkoengan zein dendetan duen eragina, autoen zirkulazioan duen eragina eta diru laguntzaren aukera. Izan ere, ibaiak Ura Agentziaren eskumena dira, eta, beraz, Aramaio erreka bistaratzeko proposamenen bat aukeratuko balitz, Udalak Jaurlaritzarekin batera adostu beharko luke proiektua. Erreka zati bat azaleratzeak kostu ekonomiko handia badu ere, Jaurlaritzak diru laguntzak ematen ditu.

### Agintaldi honetan ez da egingo

Udalak ez du aurreikusten obra agintaldi honetan egingo denik. Lehen fase honetan herritarren iritzia jaso nahi da, eztabaida sortu. Aurrerago, aurre-proiektuen fasean, herritarrekin partekatuko da berriro. Zehaztu gabe dago, baina boto loteslea emateko aukera egon daiteke: "Herrian ahalik eta adostasun handiena lortu nahi dugu", gaineratu du alkateak.

**Bideoa ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

ESANAK

**"Pasealekuan gertatu zena ekiditea nahi dugu, gauzak ondo eta pausoz pauso egitea"**

MARIA UBARRETXENA | ALKATEA

**"Zailtasun handienetako bat izan da, aukera horren zabala izanik, jendeak planoak ondo ulertzea"**

J.A. URDANGARIN | HIRIGINTZA

## Testamentua eta beste hizpide hilaren 15ean Kulturaten (18:30)

San Felipe Apostol Elkarlaguntzarako Elkarteak antolatuta, hitzaldi interesgarria eskainiko du Arrasateko notario Jose Luis Amerigok otsailaren 15ean Kulturateko areto nagusian (18:30). Euskal Autonomia Erkidegoan testamentuetan eta oinordetzan izan diren berrikuntzen gainean egingo du berba Amerigok eta auto-tutoretzaren gaineko argibideak emango ditu. Bizi testamentua egiteko aholku garrantzitsuak ere emango ditu notarioak.

## Gidabaimenerako teorikoa doan, euskaraz egitearren

2015ean gidabaimeneko azterketa teorikoa euskaraz egin zuten arrasatearren artean zozketa egin du Udalak eta Nagore Gomez izan da irabazlea. 400 euroko saria jaso du Gomezek, azterketa teorikoaren prezioa, hain justu. Gaur egun Arrasateko autoeskola guztietan dago aukera teorikoa euskaraz egiteko. Udalak kanpainarekin bat egingo du 2016an ere: "Arrasatearrak animatu nahi ditugu gidabaimena euskaraz ateratzera", adierazi dute Euskara Zerbitzutik.



# Arrasateko Aratusteak bikain ospatu dituzte

**IMANOL BELOKI** | ARRASATE

Askotariko mozorroak eta karrozak ikusi ahal izan ziren Aratuste-zapatuan egin zen mozorro desfilean. Hipsterrak, Montserrat Caballe eta Freddy Mercury eta bikingo koadrila ederra, besteak beste. Arrasateko Hipster batzordeak irakurri zuen pregoia: "Gu ekologikoak gara, alternatiboak gara. Hori bai, telefono mugikorra merkatuko azkena eta Visa txartela poltsikoan, badaezpada". Aratuste-martitzeneko ospakizuna ere oso ondo joan zen, euriak lagundu ez zuen arren, eta egun honetan txikienek izan zuten protagonismoa. Arizmendi Ikastolako eta Arrasate Herri Eskolako gaztetxoek denetariko mozorroak jantzi zituzten.

**Sardina erreta agurtu**

Urtero moduan, SUDC elkartearen eskutik sardinaren hileta egin zen Aratusteei amaiera emateko. Nafarroa etorbidetik herriko plazarainoko bidea egin zuten, eta sardina erre zuten han.


wAndoni Altzelai.


Zonbi mihiluzea.


Arrasate Herri Eskolako Bedoñabe gunea.


Montserrat Caballe eta Freddy Mercury.


Hipsterrek pregoia irakurri zuten momentua.


Sardinaren hileta.


Sardinaren hiletaren segizioan partu zutenak talde argazkian.


Mozorro desfilea.


Gazteluondokoak (Arizmendi). | ARGAZKILARIAK: JOKIN BEREZIARTUA, ARIZMENDI, ANDONI ALTZELAI

Bertan
igogailuak | ascensores

• 24 orduko emergentzia-zerbitzua
• Pieza guztiak barne
• Industriako inspekzioak
• Iraupen-konpromisorik gabeko kontratua
• Emergentzia-telefonoa eta argiak bakarrik itzaltzeko instalazioa DOAN
• Dena, 100€-tik aurrera
• Euskarazko zerbitzua eta Debagoienetik bertatik eskainia



www.bertan.eus | info@bertanigogailuak.eus
Garaia. Goiru 1A - 20500 Arrasate • Tel.: 943 90 34 50 | 691 64 79 65

## ARTk Escor Gaztediren aurka jokatuko du

**I.B** | ARRASATE

Kanpazar Arrasate Errugbi taldea denboraldi borobila egiten ari da aurten; izan ere, orain arteko partidu guztiak irabazi dituzte, eta sailkapenean lehen postuan daude 48 punturekin. Aurreko jardunaldian, Arratiko ZK taldearen aurka 17-29 irabazita, astebururu honetan Escor Gaztedi taldearen aurka neurtu beharko dituzte indarrak, berriz ere, etxetik kanpora.

Partidua domekan izango da, 11:30ean, eta, orain arteko bideari jarraituz, garaipenaren bila joango dira arrasatearrak arabarren aurkako norgehiagokara. Aurkariak sailkapenaren erdialdean daude, laugarren postuan, baina lidergoa mantentzeko galdu barik jarraitu nahi dute Igor Isasiren mutilek.

## ZALDIBAR

**EMAITZAK (8.JARDUNALDIA)**

| | |
|---|---|
| Sonografos - Dribling | 3-6 |
| Aldatz - Lasagabaster | 2-1 |
| Rayo Makabro - Sonografos | 4-8 |
| Olympiakojos FC - Betrayer | 2-2 |
| Elorra JMA - Dribling | 4-4 |
| Monte Taberna - Abokajarro | 4-2 |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Aldatz | 19 | 8 |
| 2 | Dribling | 19 | 8 |
| 3 | Monte Taberna | 18 | 8 |
| 4 | Lasagabaster | 13 | 8 |
| 5 | Sonografos | 13 | 8 |
| 6 | Abokajarro | 12 | 8 |
| 7 | Betrayer | 10 | 8 |
| 8 | Elorra JMA | 8 | 8 |
| 9 | Olympiakojos FC | 4 | 8 |
| 10 | Rayo Makabro | 0 | 8 |

**PARTIDUAK (9. JARDUNALDIA)**

OTSAILAK 13, ZAPATUA
**11:30** Elorra JMA - Rayo Makabro / **Dribling**
**12:30** Monte Taberna - Dribling / **Elorra JMA**

OTSAILAK 14, DOMEKA
**11:00** Lasagabaster - Betrayer / **Sonografos**
**12:00** Olympiakojos - Sonografos / **Betrayer**
**13:00** Aldatz - Abokajarro / **Olympiakojos**



*Sute perfektua* diskoaren aurkezpen birako lehen kontzertua Arrasateko Gaztetxean. | IMANOL SORIANO

# Anger taldeak 'Azken sute dantza' eskainiko du gaztetxean

Bihar, birako azken kontzertua emango dute, agertokietatik jaitsi aurretik

**MAITE TXINTXURRETA** | ARRASATE

Anger taldeak oraingo zapatuan, otsailaren 13an, Sute Perfektua biraren amaiera ospatuko du Arrasateko gaztetxean, *Azken sute dantza* izenburupean. "Euskal Herriko hardcore talde handienetakoa" den Fly Shit talde bergararra ere izango da oholtza gainean, eta kontzertu ostean DJ Basaranak eta DJ Pontxek girotuko dute gaua. 22:30ean hasiko da kontzertua. Taldeko kideek dei egin diete zaleei Arrasateko gaztetxean eurekin batera ospatzeko azken emanaldiarekin.

Aurkezpen birak izan duen harreraz galdetuta, hauxe dio Arkaitz Biainek, taldeko abeslariak: "Gure mailan harrera oso ona izan duela esan daiteke". Taldekoak eurak ere oso gustura ibili dira. "Kontzertuetan jendea gustura baldin badago, eta norbera ere bai, horrek emaitza positiboa ekartzen du", adierazi du.

**Zehaztu gabeko geldialdia**

*Azken sute dantza*-ren ondoren agertokiak utziko ditu Angerrek. Euren asmoa da "zehaztu gabeko denbora baterako geratzea", eta ez dakite itzuliko diren: "Planteatu genuena izan zen bira bukatzea, eta hemendik aurrera, ikusiko dugu...".

Nabarmendu du hemezortzi urtean talde moduan aritu ostean "lagun talde bat" direla, eta "laguntasunak eta sormenak" batzen dituela. "Aurrera begira, laguntasuna hor egongo da, jakina, eta sormenerako gogoa eta aukerak baldin badaude, horri eutsiko diogu; baina hori ez bada etortzen ere, ez da ezer gertatzen, lagun talde horrek existitzen jarraituko duelako, eta guretzat hori da garrantzitsuena"; hala azaldu du Anger taldeko kideak.

**Etxean hasi eta bukatu**

Duela urtebete pasa hasi zuten Sute Perfektua bira, eta Arrasateko gaztetxean bertan eman zuten lehen kontzertu handia. Orain, agurra ere toki berean egingo dute, lagunez inguratuta. "Leku desberdinetan ibili gara, baina etxean jotzea beti da polita, eta bira bukaeran, are politagoa".

## Arrasate Musikaleko bandak joko du domekan

**M.T.** | ARRASATE

Arrasate Musikaleko bandak kontzertua eskainiko du otsailaren 14an, domeka, eguerdiko 12:30etan hasita, Amaia Antzokian. Emanaldirako sarrera doan izango da.

Modu honetan, Aratusteak pixka bat luzatzea pentsatu dute eta domekakoa aste honetako jai giroaren agurra izango da. Kontzertu honetarako hautatu dituzten piezak "oso atseginak eta entretenigarriak" dira entzuteko, Edorta Aiastuiren esanetan, eta "benetan kontzertu polita" izango da.

Bandaren zuzendaria Mikel Markiegi da.

*Francisco Alegre, Orpehus in der Onderwerein, Beauty and the Beast, Guliver's travels, John Williams in concert* eta *Movie Spectaculars piezak joko dituzte.*

## Akatzen doinu jamaikarrak Kooltur ekintzan

**M.T.** | ARRASATE

Euskal Herri mailako ska-reggae talderik beteranoena dugu Bilbotik datorren Akatz taldea, eta erreferente dira ska, reggae eta rocksteady estiloetako doinuei dagokienez. Unai Quecedo *Bita* buru duen formazio honek 23 urte daramatza Euskal Herriko hainbat eta hainbat txokotako jendea dantzan jartzen, eta eguenean Kooltur ekimenaren baitan kontzertua eskainiko dute.

Duela hilabete batzuk kaleratu zuten euren azken lana, *Vuelta y vuelta* izenekoa. Taldeak, eszenatokia betetzeaz gain -bederatzi musikarik osatzen dute Akatz-, gaztetxea ere bete nahi du; azken finean, belaunaldi desberdinetako jendeak ezagutu ditu euren ibilbide luzean zehar. Otsailaren 18an, 22:00etan hasita, Gaztetxean. Sarrera: 5 euro.



MAITE TXINTXURRETA

## Gari, Montxo eta Joselontxo

**Pailazo hirukoteak alaitu zien Aratuste–martitzena Arrasateko hainbat eta hainbat neska–mutikori. Amaia Antzokia ia–ia goraino bete zen hirukote barregarri horren emanaldia ikusteko. Kanpoan euria ziharduen, eta aterpean egoteko plan ezin hobeaz gozatu zuten.**

## Kontzertu bikoitza bihar eta otsail bete-betea Jai Zalen

**M.T.** | ARRASATE

Bihar, 18:00etan hasita, Aggresive Combat eta Hexen taldeek kontzertua eskainiko dute Jai Zale tabernan. Lehena etxeko taldea da, eta bigarrena, berriz, Bilbo aldetik dator eta lau emakumezkok osatzen dute.

Talde biek ala biek oi! giroko punk-rock estiloa jorratzen dute. Hexeni dagokionez, nahiko talde berria da, eta, oraingoz, Cock Sparrer, Perkele eta Evil Conduct taldeen bertsioak jotzen ditu.

Aggresive Combati dagokionez, Skarmento taldearekin batera *Donra vs Mondra* EPa atera dute. Biharkoa aurtengo lehen kontzertua izango da.

**Hemendik aurrerakoak**

Hurrengo egubakoitzean, otsailak 19, Manex&Maria bikoteak emango du kontzertua, 22:30ean. Hurrengo egunean, zapatuan, WC Roca And Rollen txanda izango da.

Hilaren 26an, egubakoitza, Antton Aranburu bakarlaria izango da, 22:30etik aurrera.

Eta hilabetea ondo bukatzeko, 28an, domeka, Peppermint Quartet donostiarren blues eta jazz doinuak izango dira entzungai 19:30etik aurrera.

### Vanessa Gonzalezen ipuin kontaketa martitzenean

Vanessa Gonzalez ipuin kontalari arrasatearrak beste saio bat eskainiko du datorren martitzenean, otsailak 16, Kulturaten. Oraingo honetan, ipuin kontaketa hiru eta lau urte bitarteko umeei eta euren familiei zuzenduta dago. Arratsaldeko seietan hasiko da Gonzalezen saioa, eta hiru ordu laurden inguruko iraupena izango du.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

arbolapeta
arrasate
beinke

# Isidro Monzonen etxegintza berezia ikusgai Laboratoriumen

## Iparraldean lan egin eta, landa giroko paisaia babesten ez zen garaian, eraikinak ingurunean txertatzen aitzindari izan zen; tendentzia sortu zuen

JULEN IRIONDO | BERGARA

Larrun mendiko bordak hartu zituen erreferentzia Isidro Monzonek bere eraikinetarako; baita Larrungo harria erabiltzen ere, eta etxeak hara begira eraiki. Familia bakarreko 30 etxe egin zituen Iparraldean, eta bere estiloak arrakasta handia izan zuen bezero dirudunen artean.

"Bere lanak ingurunera egokitzen zituen eta azpiegitura berde horren barruan uztartzen zituen. Eta horrek balio berezia ematen die bere lanei", zioen Elena Lete alkateak; eta Olaso Dorrea Fundazioko kide Iñigo Elkorok gaineratu: "Hau deskubrimendu bat izan da guretzako. Bere etxeen estiloa beti izan da ezaguna, baina tendentzia bat edo estilo bat sortu duen pertsona izan zela deskubritzea Fundaziorako oso-oso sorpresa pozgarria izan da".

Arkitektoaren sorleku izan zenaren izena daraman fundazioaren bitartez antolatutako erakusketa aurkezterakoan egin zituzten hitzok Letek eta Elkorok. Martxoaren 13ra arte dago ikusgai mostra, Laboratorium museoan; Olaso dorrera eramango dute gero, ekainera arte. Etxeen argazkiak, marrazkiak eta planoak jasotzen ditu erakusketak. Monzonen lana aztertu duen arkitekto talde batek bisita gidatua eta hitzaldia ere egingo ditu.



Olaso Dorrea Fundazioko Kristina eta Iñigo Elkoro, udal teknikari eta ordezkari politikoekin, erakusketan. | JULEN IRIONDO



Isidro Monzonek egindako etxeetako bat, landa ingurunean. | GOIENA



Bergarako erdigunearen irudikapena, 1956ko marrazkian. | ISIDRO MONZON

### Telesfororen anaia gaztea



Isidro Monzon. | GOIENA

"Beti ezagutu dugu Telesfororen itzalean, baina ikusten da Isidrok bizitza propioa eta aberatsa izan zuela, intelektualki oso pertsona aberatsa izan zela". Arkitekto bergararraren "distira" nabarmendu zuen Iñigo Elkorok erakusketaren aurkezpenean.

Olaso oinetxean jaioa, Gasteizen eta Madrilen ikasi eta gero, Bruselako Arte Ederren Errege Akademian sartu zen Isidro Monzon (Bergara, 1906–Baiona, 1991), eta bertan diplomatu 1936an. Espainiako Gerran ibili ondoren, hura galdu eta urteak egin zituen erbestean, Hego Amerikan. Han ere jardun zuen arkitekto, eta itzultzean —Iparraldera— jarraitu; Sara eta itsasbazterra arteko 30 bat etxerekin tendentzia sortzeraino.

NIRE USTEZ



ANDER BOLIBAR

## Berrekiten

Larunbateko garagardoen artean astean buruan katramilatuko zaidan esaldia bota dit lagunak: "Modernitateak gure bailaran sortutako proiektu guztien krisi egoera bat bizi dugu".

Kooperatibetatik, alderdietara. Militantzia moldeetatik, herrigintzara. Euskalgintzatik, hezkuntza sistemara. Ematen du zer pentsatu.

Irautea sortzea dela gogoratu digu Kortxoeneak. Gure belaunaldiari sortzeko grina eskasa aitortu zaigu, aurrekoek sorturiko mastodonteak mugiaraztea eta birpentsatzea lana ez balitz bezala.

Sortzeko eta irauteko aukera eder bi ditugu hurrengo asteetan bailaran: *Berrekin.Berregin*, ekintzaileetasun soziala sustatzeko formazio programa (izen-emate epea zabalik dago otsailaren 15a arte) eta Antixenak tiraka Euskal Herriko Gazte Asanbladen Topaketak otsailaren 19-20-21ean Oñatin. Baionako alkatearen hitzak dira: "Gaztetxeak dauden inguruetan, eta hauek nahi ez dituzten herritarretan pentsatzen esaten dut hau, dinamika bereziak sortzen dira". Dinamika berezi horietatik ere edango du autoeraketa eta autogestioaren birsortzeak.

Irautea sortzea da, baina sortzea irautea da. Etorkizuna gure kabuz eraikiko dugu orain, edo etorkizuna izango gara beti. Gogora dezagun Galeanori segika jende txiki askok, leku txikietan gauza txikiak eginez, mundua berrekin dezakegula.

**"Sortzeko eta irauteko aukera eder bi ditugu datozen asteetan"**





Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918




Janaria ere etxera eramaten dugu

Plater gustukoenak:

- Xia-Jiao (ganba-enpanadillak)
- Curry triangeluak okelaz beteta
- Langostino frijituak almendrekin

*Etor zaitez!*

☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimerak*

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

# Umorez ere bustitako Aratusteak

JULEN IRIONDO | BERGARA

Ohikoa izaten da zerbaitekiko geratzen den aho gustua azkena dastatutakoaren araberakoa izatea. Eta aurtengo Aratuste-martitzena euriak baldintzatutakoa izan arren, ezin ahaztu mozorroak kalerik kale, busti gabe, luzitzeko aukera eman zutela aurreko egunek; eta euriarekin edo euririk gabe, ohi bezala, umorea izan da oraingo honetan ere bazter guztiak busti dituena, hori bai.

Ikastetxeen artean, aurreikusitako ibilbidea egiteko moduan izan ziren egubakoitzean Aranzadi eta Mariaren Lagundia; San Martin Agirrekoek eskolan ospatu behar izan zuten festa, martitzenean. Zapatuko desfilean askotariko mozorroz bete ziren kaleak. Eta martitzenean, berriz, Mizpirualden ere mozorrotu ziren. Eta batukada frontoian egin zen.



Emotikonoak, Mariaren Lagundian.



Nobedade's aretoko krispetak.



Mizpirualden ere, mozorrotuta.



Aranzadiko ikaslea adarra jotzen.



San Martin eskolako ikasleak.



Batukada herrikoia. | ARGAZKILARIAK: IKASTETXEAK, MIZPIRUALDE, ARIANNE KAREAGA ETA IMANOL SORIANO



Maite Arantzabal eta Nerea Madariaga. | JULEN IRIONDO

**Maite Arantzabal eta Nerea Madariaga** | Iaz parte hartutakoak

## "Aukera eta alternatiba asko eskaintzen ditu 'Berrekin. Berregin'-ek"

Iazko programan parte hartu eta proiektua dute martxan, ogibide bihurtzeko itxaropenarekin

J.I. | BERGARA

Astelehenean amaituko da bigarren ediziorako izen-ematea.

**Ze eman zizuen iazko edizioak?**

**Maite Arantzabal:** Ekonomia sozialaren gaineko ezagutza asko handitu genuen, eta askotariko esperientziak ikusi genituen, hizlari eta aditu asko izan genituen gurekin, eta oso aberasgarria izan zen. Bizpahiru hilabete oso trinko izan ziren, baina benetan eraginkorrak eta positiboak gai honen inguruko gure ikuspegi hori zabaltzeko.

**Ze proiektu sortu zenuten handik?**

**Nerea Madariaga:** Lau pertsona elkartu gara beste hirigintza eredu bat lantzeko, haurren ikuspegia kontuan hartuko duena. Gure oinarria da, parte-hartze bidez, haurrek nolako hiriak nahi dituzten entzun eta euren iritzia kontuan hartzea diseinatzerako orduan.

**Ze espektatibarekin diharduzue?**

**N.M.:** Horretan lan egin ahal izatea da gure ideia, hasiera batean. Eta ikusten dugu mugimendua badagoela gai horren inguruan. Interesa badago, eta kontua da probatzea nondik jo ahalko genukeen, aurrera egin ahal izateko.

***Berrekin. Berregin*-en edizio berrian ze egiteko izango duzue?**

**N.M.:** Eraikin berean egongo gara, eta ikasleek edozein zalantza dutela ere, han egongo gara gure ekarpena egiteko.

**Jendea anima dadila, ezta?**

**M.A.:** Bai, bai, zalantza barik. Izugarrizko aukera da, eskualdearen etorkizunerako eta gaztontzat, gaur egun ze egoeratan gauden ikusita. Ez pentsatu eta aprobetxatu, ze asko ikasiko duzue. Aukera eta alternatiba asko eskaintzen ditu formazio honek.

## Hitzaldia, kontzertua eta erakusketa, Hotz laguntzeko

JULEN IRIONDO | BERGARA

Jasotako materiala errefuxiatuei iritsarazteko diru bilketa kanpainaren barruan beste ekimen bat izango da domeka honetakoa, Gazte Asanbladarekin elkarlanean, Kartzela Zaharrean.

Honela, 18:30ean hitzaldia egingo dute, *Basque lifeguards* izenburupean, errefuxiatuei laguntzen jardun duten bi suhiltzailek, esperientziaren irudiak eta lekukotasunak uztartuz.

Eta 19:30ean kontzertua: Pelax & Cowboy´s Orchestra. Unai Pelayo donostiarra da Pelax. Rockaren maitale, bakarka –ahots gordinez eta gitarra elektriko zikin batez– zein taldearekin aritzen da, eta, 40 kontzertutik gora eskaini ostean, geldialdi bat egin aurreko azkenetariko kontzertua izango da Bergarakoa.

Honekin batera, Antonio Cossaren argazki erakusketa ere egongo da ikusgai domekan Kartzela Zaharrean.

### Astelehenean hasiko dira Zurradero kalea asfaltatzen, eta eragina izango du zirkulazioan

Lanek hiru egun iraungo dute, eta herri barruko zirkulazioan aldaketa nabarmenak izango dira egun horietan. Modu honetan, Ibargarai kalea palmondoko biribilgunean moztuko dute, eta handik erdigunera doan zirkulazio guztia Arrizuritik eta Artekaletik desbideratuko dute. Era berean, Matxiategi aldetik doan zirkulazioa Ibargarai kaletik kontrako norabidean desbideratuko dute. Azkenik, asfaltatze lanek irauten duten egun horietan, Pesako autobusek geltoki bakarra izango dute, Torrekoakoa, hain zuzen ere.

### Erramu Zapatuko txosna hartzeko eta taloetarako izena eman daiteke

Otsailaren 26an, 13:00etan, amaituko da izena emateko epea –udaletxean–. Erramu Zapatua martxoaren 19a izango da aurten, eta, batetik, euskal labeldun produktua erre eta saltzeko jarriko den txosnarako egin daiteke eskaera; bestetik, taloak saltzeko posturako. Herriko talde edo elkarteak beharko dute.

### San Joxeperen bidaia Andaluziara: izen-ematea, zabalik

Apirilaren 23tik 29ra egingo dute bidaia erretiratu elkartekoek. Sevilla, Kordoba eta Granada bisitatuko dituzte. 55 lagunentzako lekua dago, gehienez. San Joxepeko bulegoan eman behar da izena, martxoaren 8a baino lehen. Bidaiaren nondik norakoak ere bertan ezagut daitezke.

### Ogia egiten ikasteko ikastaroa, martxoan Pagomendi elkartean

Bizikasik antolatutako ikastaroa martxoaren 12an izango da, Angiozarko Pagomendin, 09:30etik 13:30era. Miguel Altunan eman behar da izena, 15 euro ordainduta. Parte-hartzaileek bol borobil bat –plastikozkoa hobe–, amantala eta kristalezko ontzi bat taparekin eraman behar dituzte.

## OHARRAK

**PENTEKOSTE JAIAK**

Jaiak antolatzeko lehen bilera: eguaztenean, 19:00etan, udaletxean. Herritarrak bertaratzera deitzen ditu Udalak.

**'OPARITU ZUHAITZ BAT'**

Hurrengo saioa, eguenean, 19:30ean, kultura etxean. Gaiak: kutsadura elektromagnetikoa; banku etikoak; kooperatiba energetikoak.

**EGUAZTENETAKO AZOKA**

Mikel Martinezekin globoflexia, haurrentzat –18:00–. Pintxo-potea, Kortazarren eskutik.

**HITZALDIA GURASOENTZAT**

*Banaketa ostean, erantzunkidetasunez familia osasuntsu baterantz*. Eguaztenean, 18:00etan, Irizarren. Hizlaria: Julia Rodriguez, AGIPASEko psikologoa. Zerbitzua ere aurkeztuko dute.

**Jon Beistegi** | Soraluce BKEko entrenatzailea

# "Matematikoki mantentzea posible den bitartean, jarraituko dugu"

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Denboraldia ez da gozoa izaten ari Bergarako senior mailako saskibaloi taldearentzat. Lurraldeko lehen mailara igota, liga hasieratik hamabost partidu jarraian galdu dituzte. Baina aurreko jardunaldian lortu zuten lehen garaipena, Beasain liderraren aurka. Bihar, 19:30ean, bigarren doan Iraurgiren aurka jokatuko dute Labegaraietan.


Jon Beistegi. | GOIENA

**Kostata, baina iritsi da garaipena.**
Bai, asko kostata. Gainera, liderraren kontra. Entrenatzeko beste modu bat eta poztasun pixka bat etorriko da orain.

**Nola irabazi diozue liderrari?**
Liga hasieran taldekideei esan nien Gabonak arte asko sufrituko genuela. Bi jokalari garrantzitsu joan zaizkigu: Jon Ugarteburu eta Mikel Gartzia. Urte berriarekin maila hobea hartu dugu. Talde polita da, eta uste dut orain arteko lana datozen hilabeteotan igarriko dela; izan ere, Beasainen aurkakoa baino astebete lehenago, bigarrenaren aurka hiru puntugatik galdu genuen. Orain ondo lehiatzen gabiltza; berandu izango da, agian, plaza mantentzeko, baina taldea sintonia onean dago.

**Beraz, taldea hobeto ikusten duzu.**
Bai. 18 urteko bost jokalari ditugu, senior mailan, lehen urtekoak. Helburua maila mantentzea zen, eta, lortu ezean ere, taldea mantendu nahi dugu. Talde gaztea da eta aldaketak izan ditu, baina denborarekin joango gara blokea finkatzen.

**Biharkoa nola ikusten duzu?**
Iraurgi gutxien gustatzen zaidan aurkaria da. Gazteak dira, korrika egiten dute, asko defenditzen dute... eta umetatik oso ondo prestatzen dituzte. Zaila da, baina lehiatuko gara.

**Mantentzea zail egon arren, gogoz ateratzen zarete kantxara?**
Noski. Partiduak galtzeak moralki eragina dauka, baina ilusioa izatea garrantzitsua da, eta urtea base on batekin bukatu nahi dugu, hurrengora begira ahalik eta ondoen egoteko. Matematikoki mantentzea posible den bitartean, jarraituko dugu.

**Zeintzuk dira taldearen abantaila eta desabantaila nagusiak?**
Gure abantaila nagusia barruko jokoa da. Jende altua dugu, indarra dutenak ere bai, eta errebotea oso ondo menderatzen dutenak. Bestalde, jendea konfiantza hartzen doa, eta solteago dabiltza. Eta desabantaila nagusia, gure burua. Bentaja txiki bat ateratzen digutenean joan egiten gara partidutik. Hori, eta batzuetan defentsan flojo samar ibiltzen garela.

# Frontoiko ikuskizunek arrakasta handia izan dute Aratusteetan

M.T. | BERGARA

Aratuste-egubakoitzeko kontzertua bergararrak jai giroan murgiltzeko modu paregabea izan zen. Pilotalekua goraino bete zen *The love boat* emanaldia ikusteko. Izen bereko 80ko hamarkadako telesail famatua oinarri hartuta, emanaldi benetan entzungarri eta dibertigarria izan zen.

Udal Musika bandak, Bergarako Orkestrak, Aritzeta Abesbatzak, Debako Kulunka datza taldeak eta norbanako boluntarioek hartu zuten parte.

**Pailazoak**

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunek ez zieten hutsik egin Bergarako umeei. Urtero etortzen dira Aratuste sasoian, eta bi saio eskaini zituzten zapatu arratsaldean.

Porrotx pailazoa pixka bat ondoezik zegoen arren, ikuskizun polita eskaini zuten eta Udal Pilotalekuan bildutako neska-mutikoak kantuan, dantzan eta barrez aritu ziren pailazo hirukotearen *Amalur* izeneko ikuskizun berriko abenturekin.


Musikariak mozorrotuta The love boaten. | IMANOL SORIANO


Pirritx, Porrotx eta Marimototsek pilotalekua alaitu zuten. | IMANOL SORIANO

## LABEGARAIETA

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Estrella Coja | 30 | 11 |
| 2 | Errefuxa | 27 | 11 |
| 3 | Komando Piperrak | 21 | 11 |
| 4 | River City | 20 | 11 |
| 5 | Poteo Izarrak | 20 | 11 |
| 6 | America | 17 | 11 |
| 7 | Birgerias | 12 | 11 |
| 8 | Arrano Zabalik | 11 | 11 |
| 9 | Vodka Juniors | 10 | 11 |
| 10 | Sanpe United | 9 | 11 |
| 11 | H.I.S | 9 | 11 |
| 12 | SVC | 6 | 11 |

**PARTIDUAK**

Otsailak 12, Egubakoitza
**22:00** K.Piperrak-Arrano Zabalik / **America**
**23:00** America-Poteo Izar. / **K. Piperrak**
Otsailak 14, Domeka
**18:00** Sanpe Ud.-Estrella Coja/ **Birgerias**
**19:00** H.I.S.-Birgerias / **Sanpe United**
**17:45** River City-Vodka Juniors / **H.I.S.**
**21:00** Errefuxa-SVC / **River City**

### Pol-Poleko beteranoek kostaldera irteera egingo dute 21ean

Otsailaren 21ean, domeka, Pol-Pol mendizale taldeko beteranoek kostaldera irteera egingo dute. Debatik hasita, Kalbarixotik pasatu eta Mendaroraino joango dira. Goiz irteera izango da. 08:00etan elkartuko dira frontoian, Fraiskozuri plazan. Izen ematearen prezioa 21 euro izango da, eta Pol-Polen Fraiskozuriko bulegoan egin daiteke astelehen, eguen eta egubakoitzetan 19:00etatik 20:00ak arte.

# Martitzenera arte eman daiteke izena 'La Traviata'-ko autobusean

M.T. | BERGARA

Otsailaren 21ean, 19:00etan, Donostiako Kursaalen izango da ikusgai *La Traviata* opera, eta doako autobusak antolatu dituzte. 17:30ean abiatuko dira Ibargaraiko geltokitik. Izen ematea otsailaren 16ra arte Udaleko Kultura zerbitzuan (943779159).

**Bergararrak tartean**

Valen Moñux bergararra da La Traviatako zuzendari eszenikoa eta eszenografoa eta Alex Odriozolarekin batera arduratu da eraikuntzaz. Haiekin batera, guztira hogei bergararrek hartuko dute parte emanaldian, zuzenean edo kanpoko lanetan.


Bergararrak lehen entseguan Zorroagako elizan. | VALEN MOÑUX

### Argazki eta margo erakusketak otsailean Bergarako tabernetan

Pol-Polen Gillermo Azkarate, Agustin Amasorrain eta Jon Zabaletaren argazkiak; Nahikarin Matilde Sainzen margoak; Dixulan eta Raizabalen, Selena Lizarzaburunenak. Artesanen, Azkarateren eta Amasorrainen argazkiak; eta Hamaikan Juan Martin Aristiren margo erakusketa.

### Dantza ikastaroak Eneko Galdosekin Musika eta Dantza eskolan

Martxoaren 1etik maiatzaren 10era bitartean, fandango eta arin-arin ikastaroa izango da martitzenetan (19:00-20:30). Prezioa: 56 euro (bazkideek 50 euro). Izen ematea: otsailaren 26a baino lehen. Larrain dantza ikastaroa maiatzaren 24tik ekainaren 28ra, sei saio. Prezioa: 40 euro (35 euro bazkideek). Izen ematea: apirilaren 11tik maiatzaren 10era.

### Bizikleta festa antolatu du Lokatzak biharko, Seminarioan

11:00etan hasiko da Lokatza ziklismo eskolak antolatutako bizikleta festa, Seminarioko patioan. Han, bizikletan ibiltzeko zirkuitu bat prestatuko dute. Helburua herriko neska-mutikoei txirrindularitza gerturatzea da, eta eskolan izena ematera animatzea. Seminarioan bertan horretarako aukera izango da.

### Gaur arratsaldean eta domeka goizean pilota partiduak frontoian

Gaur, egubakoitza, 19:30ean hasita, Udaberri Txapelketako bi partidu jokatuko dituzte Udal Pilotalekuan. Jubeniletan, Bergara-Otermin bergarrak azkoitiarren kontra, eta nagusietan, Diez eta A.Rezusta Belokikoen kontra. Domekan (11:30), kadeteen Euskal Ligan, Gallastegi-Gartzia Aldabidekoen kontra.

### Oscar Candendoren organo kontzertua izango da domekan

19:00etan hasita, Santa Marina parrokian kontzertua eskainiko du Oscar Candendo organo joleak. Sarreraren prezioa bost euro izango da. Bergarako Stoltz-Frères organoaren aldeko kontzertua izango da, San Pedroko organoaren konponketarako dirua biltzeko antolatu duten kontzertu sortaren baitan antolatua.

### Lauka teatroren 'Amodioaren ziega' antzezlana zapatuan

Lauka antzerki konpainiak helduentzako antzezlan bat eskainiko du bihar, otsailak 13, Zabalotegi aretoan. Iluntzeko zortzietan hasiko da emanaldia, eta sarrerak zortzi eurotan salgai izango dituzte leihatilan. Testua Xabier Mendigurenena da, eta istorioa kartzelako bisean biseko batean kokatzen da.

# Elurretarako irteera prest du Aloña Mendik

## Mendiak eta Herriak agentziarekin batera prestatu du zeharkaldia

OIHANA ELORTZA | OÑATI
Martxoaren 5etik 6rako asteburuan egingo du Aloña Mendiko mendi sailak elurretako aurtengo irteera. Candanchu eta Astun inguruetara izango zela aurreratu zuten, baina irteeraren zehaztapenak lotuta dituzte dagoeneko.


Vertice Anayaten jaitsiera. | FELIPE URIARTE

**Bi irteera**
Lehen eguneko irteera bospasei ordukoa izango da eta hauxe da profila: Astun (1.700 m) - Monjes Lepoa - Escalar gaina (2.200 m) - 400 metroko jaitsiera Midi d'Ossau aldera - 400 metroko igoera Astun lepora - Malacara (2.200 m) - Astunera jeitsiera.

Bigarren egunekoa, martxoaren 6koa, luzeagoa izango da, zortzi ordu ingurukoa. Vertice Anayet tontorreraino joango dira eta egingo duten bidea izango da hauxe: Aparkalekutik irteera - Vertice lepoa (2.350 m) - Vertice Anayet gailurra (2.574 m) - lepotik oinez joango gara gailurrera - Canal Roya (1.300 m) - aparkalekua.

**Materiala**
Aloña Mendiko mendi saileko ordezkariek azaldu duten moduan, ezinbestekoa izango da ARVA, pala, sonda, kranpoiak eta piloeta eramatea; baita material hori ondo erabiltzen jakitea ere. Hala ere, norbaitek ezer falta badu Aloña Mendiko mendi sailekoek aurreratu dute eskuragarri dituztela, eta eurekin harremanetan jarrita lor daitezkeela.

Irteera hau Mendiak eta Herriak agentziak zuzenduko duen zeharkaldia izango da, eta, edozein arriskuren aurrean, elur jauziak edo eguraldi txarra, esaterako, mendiko gidariek ibilbidea aldatu ahal izango dute. Afaldu, lo eta gosaldu Candanchuko Valle de Aragón aterpetxean egingo dute eta irteeraren kostua 70 eurokoa izango da, aterpetxeko egonaldiko pentsio erdian eta autobusa barne. Joan gura duenak hilaren 22a aurretik eman behar du izena eguaztenetan Aloña Mendiko bulegoan, 19:30etik 21:00ak arte edo *alonamendi.mendi@gmail.com* helbidera mezua bidalita.

**Urdaibaira**
Bestalde, otsaileko irteera Urdaibai aldera egingo dute, Oma basoa ikusita, hilaren 21ean. Bost ordu inguruko irteera izango da. Horra joan gura duenak 18a aurretik eman behar du izena.

# Bost oñatiar Gipuzkoako eskolarteko bat-batekoan

## Gaur hasiko da txapelketa, Legazpin, eta Gontzal Belategi eta Bittor Zubiagirre lehiatuko dira

O.E. | OÑATI
Urko Arregi, Aritz Irigoien, Aitor Tatiegi, Gontzal Belategi eta Bittor Zubiagirre oñatiarrek hartuko dute parte gaur, egubakoitza, hasiko den Gipuzkoako Eskolarteko Bat-Bateko Bertsolari txapelketan.

**Aretxabaleta eta Azkoitia**
Gontzal Belategik eta Bittor Zubiagirrek gaur dute euren saioa, Legazpin. Aitor Tatiegik eta Aritz Irigoienek Aretxabaletako Murualde elkartean egingo dute bertsotan eta Urko Arregiri martxoaren 17an Azkoitiko Iraurgi elkartean egitea tokatu zaio. "Afari giro formatuan daude antolatuta saioak. 15 eta 17 urte bitarteko gazteak dira eta afalostean jardungo dute. Parte hartu duten guztiekin zozketa egin da eta bost saio egongo dira Gipuzkoa osoan banatuta. Bakoitzean bospasei lagunek jardungo dute", adierazi du Oñatiko bertso eskolako Iñaki Olaldek.


Belategi, Tatiegi , Irigoien, Zubiagirre eta Arregi. | MIRARI SAGARZAZU

Puntuaziorik altuena lortutako zortziak sailkatuko dira apirilaren 17an Eibarren jokatuko den finalerako. 2014an Maider Arregi oñatiarra izan zen Gipuzko eta Euskal Herriko eskolarteko txapelduna.

Bestalde, idatzizko txapelketan parte hartuko dutenak Legazpin lehiatuko dira gaur.



IRATI ELORTONDO

# Euskaldun Berria gela da orain

Euskaldun berriei aitortza publikoa egitea onartu zuen udalbatzak joan den azaroko osoko bilkuran, eta herriko txoko, plaza, kale edo gune bati Euskaldun Berria izena jartzea onartu zuten udal ordezkariek. Euskara teknikariaren proposamena onartuta, Bidebarrieta kaleko erabilera anitzeko gelak izango du aurrerantzean izen hori.

# Osakidetzak euskaraz egiteko eskaerak

O.E. | OÑATI
Osakidetzan arreta euskaraz jasotzeko eskaerak batuko dituzte datorren eguaztenean Oñatin. Aplikazio informatikoak erabiliz egingo dute ekimena otsailaren 17an Euskaldun Berria gelan, 17:00etatik 20:00etara. "Bospasei ordenagailu eramango ditugu eta dokumentazio klinikoa, ekografiak, pediatria, ginekologia eta traumatologia zerbitzuak eta erresonantzien emaitzak euskaraz jasotzeko eskaria jasotzen dituzten idatziak prest ditugu", adierazi du Kepa Elortza oñatiarrak.

# Kantari saioko grabaketak asteburuan dira

O.E. | OÑATI
Goiena telebistako Kantari saioko grabazioak asteburu honetan egingo dituzte gaztelekuan.

Herriko 7 eta 11 urte arteko 192 gaztetxok hartuko dute parte aurtengo Kantari saioan. 45 talde ezberdinetan banatu dira eta talde bakoitzari abesti bat egokitu zaio zozketa bidez. Kantu hori interpretatu beharko dute orain. Gaztetxoek 15:30erako egongo beharko dute gaztelekuan zapatuan zein domekan, eta grabazioak 16:00etan hasiko dituzte.

## Sorkun zuzenean entzuteko sarrerak salgai daude

Sorkunek *Ziklomorphosia* diskoa aurkeztuko du hilaren 27an gaztelekuan eta sarrerak dagoeneko salgai daude. Bost eurotan eros daitezke Boga eta Ona tabernetan.

Bestalde, otsailaren 26an *Distancia 7 minutos* antzezlana ikusteko aukera egongo da gaztelekuan eta horretarako sarrerak *bibe.me* atarian eros daitezke.

## Bi Bala taldeak 22:00etan joko du gaur gaztetxean

Bi ekintza dituzte antolatuta gaztetxean gaurko, egubakoitza. Batetik, bertsoa eta rocka uztartzen dituen Bi Bala talde euskaldunak zuzeneko kontzertua egingo du 22:00etan. Horren aurretik, baina, 18:30ean, *Mexikoko herri indigenen errealitatea* izenburua duen hitzaldia egingo du Askapenako brigadista Ane Zendegik.

## Ostegun Kontalariak saiorako gonbidapenak har daitezke

Haur liburutegiak antolatzen duen Ostegun Kontalariak saiorako gonbidapenak datorren astelehenetik aurrera hartu ahal izango dira. Hilabete honetako ipuin kontalaria Izaskun Mujika izango da eta 3 eta 6 urte arteko umeendako saioa egingo du. Ipuin kontaketa hilaren 25ean izango da, baina plazak mugatuak dira eta gonbidapena behar da.

## Martitzenean da bilera Martxoaren 8a nola ospatu adosteko

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, nola ospatu adosteko eta egitaraua prestatzeko bilera irekia deitu du Oñatiko sare feministak. Datorren martitzenean, hilak 16, izango da, Andraitzek San Juan kalean duen egoitzan, 18:30ean. Oñatiko emakume guztiak daude deituta bilerara, antolatuta daudenak zein bakarkakoak.

## Enpatiari buruz berba egingo du parrokoak Pake Leku elkartean

Ostegun Gizen eguna, Santa Ageda bezpera eta Inauteriak ere ospatu dituzte Pake Leku elkartean hilabete honetan. Datorren martitzenerako, baina, hitzaldia antolatu dute. Joxan Larrañaga parrokoa izango da hizlaria eta enpatiari eta pertsonei buruz egingo du berba. Hitzaldia Pake Leku elkartean izango da otsailaren 16an, 17:00etan.

**Migel Anjel Moiua** | Fusilatu baten iloba

# "Gure amak gogoan zuen nola eraman zuten bere aita etxetik"

Nafarroako fusilatuen gaineko 'A un paso' dokumentala emango dute datorren egubakoitzean, otsailaren 19an, 19:00etan, kultura etxean

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Migel Anjel Moiuaren aitona, Ramon Pinillos, eta haren anaia 1936ko uztailaren 18an atxilotu zituzten, Muesen, eta urte bereko irailaren 9an hil zituzten, Oteitzan. Sartagudako Oroimenaren parkean daude bien izenak jarrita, beste 3.450enekin batera.

**Nolakoa da 'A un paso' dokumentala?**

Garai hartan eta ordutik hona Nafarroako fusilatuen senideek bizi izandakoa laburbiltzen du zazpi lagunen testigantza eta kontakizunen bitartez. Orduan zer gertatu zen jasotzen du, jendeak jakin dezan, ez dezaten ahaztu.

**Nola kontatu izan dizue amak bere aitari eta osabari gertatutakoa?**

Gure ama sei anai-arrebetan bigarrena zen eta bederatzi urte zituela atxilotu zituzten aitona eta haren anaia bat. Amak gogoratzen zuen nolakoa izan zen egun hura, nola eraman zituzten eta ondorengo egunak nolakoak izan ziren.

**Zer gertatu zen?**

Lizarra ondoko espetxe batera eraman zituzten atxilotu ostean; 1936ko uztailaren 18an. Urte bereko irailaren 9an Iruñera eraman behar zituztela esanez atera zituzten handik, baina Oteitzara eraman zituzten, eta fusilatu.

Gure ama hemezortzi urterekin etorri zen Oñatira, Naparrena tabernara. Bere anai-arreba guztiek ere utzi zuten jaioterria, Mues, hil behar zituztenen zerrenda egin zutenen ondoan ez zutelako gura bizi.

**Noiztik zara Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteko kide?**

Elkartea 2003an sortu zen. Dokumentala aurkeztuko duen Joseba Eceolazak bilera batera deitu gintuen, Burlatan, senideok, eta horren berri eman zigun. Ni 2008an egin nintzen kide.

**Inoiz ikusi duzu nola ateratzen dituzten gorpuak hobietatik eta aztertu?**

Bai, behin baino gehiagotan, Lan hori dakitenek egiten dute, baina laguntzera joaten naiz, bai.

**Gertaerak argitzeari buruz, ari dira gauzak aldatzen?**

Gizarteak gura du, bai. Nafarroan 2013an onartu zuten hildakoak eta senideak onartzeko legea. Aurrerabidea da hori.



Migel Anjel Moiua martitzenean Oñatin. | O.E.

> **"Ez zuten bizi gura zerrenda egin zutenen ondoan"**

NIRE USTEZ



**JON SAGARZAZU**

## Hipokrisia

*Krisia!* Ikara eta izua pizten dizkigun hitza. Azkarregi ahaztu ote dugu bere jatorrizko esanahia?

"Krisi" hitza greziarrek asmatu zuten, ez joan den urtean, duela 25 mende baizik. "Krino" aditzak jatorriz zerbait "argitzeko asmoz aztertzea" edo "epaitzea" adierazten du. Krisi bat, beraz, sistema bat, egoera edo jokaera oker bat zuzentzeko aukera dugu, azterketa-hausnarketa bidez. Edo grezieraz esanda, "kritika" egitea.

Azken urteotako krisi finantzario bortitz hau gure sistema eta ohitura ekonomikoak berraztertu, zuzendu eta hobetzeko aukera apartena dugu!

Gure erakunde, banku eta agintariei kritika gogorrak egin dizkiegu, sakonago edo azalekoagoak. Hauek kritikatu bai, baina errazegi ahazten dugu gutako bakoitzak herritar mailan dugun erantzukizun etiko-ekonomikoa. Norberak epaiketa egin beharko genieke gure kontsumo ohiturei, diruen erabilera eta jarrera politikoei, ahal beste zuzendu eta hobetzeko. Greziera garbian esanda, "autokritika" egitea.

Aukera aparta eta kritiko hau aprobetxatu ezean, herritar mailan gure jokaera ekonomikoa hobetu ezean, berriz ere zuzen-zuzen daramagu gizartea lehengo arazo berberetara, gure sistemari egiten diogun epaiketaren azpitik biziz. Jarrera honi ere greziarrek izen bat eman zioten: "hipokresia".

## Torturaren Ikerketa Proiektuari buruzko argibideak emango ditu Paco Etxeberriak otsailaren 18an

Oñatiko Euskal Memoria taldeak gonbidatuta dator datorren eguenean Paco Etxeberria auzi medikua. Torturaren Ikerketa Proiektuaren gaineko argibideak emango ditu Etxeberriak. Hala, besteak beste, azalduko du: egun zein egoeratan dagoen ikerketa, datuak jasotzeko ze metodologia erabiltzen dabiltzan, ze arlotako ikerlariak dabiltzan lanean, zenbat testigantza jaso dituzten, nola egiaztatzen dituzten testigantzak (Istanbulgo protokoloa), ze helburu duen ikerketa honek... Gainera, duela urte batzuk, Oñatiko Euskal Memoria taldeko kideak torturaren gaia lantzen ibili ziren, eta hainbat datu eta testigantza batu zituzten. Bada, orduan batutako datu eta testigantzak ikerketa horretan barneratuko dira orain.

Hitzaldia otsailaren 18an izango da, eguena, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

# Olinpiar Jokoetan izango da Aitor Biain oñatiarra

Irabazi duen lehiaketa bati esker, euskal kirolariak jarraituko ditu Basque Team–erako

**O.E.** | OÑATI

*Gazteaukera* atariak eta Basque Team-ek elkarlanean sustatu duten ekimenaren irabazleetako bat da Aitor Biain kazetari oñatiarra. Abuztuan Rio de Janeiron egingo diren Olinpiar Jokoetara joateko txartela irabazi du.

Olinpiar Jokoetan gertatzen denaren berriemaileetako bat izango da Biain, beste zazpi lagunekin batera. Batez ere, Basque Team-eko kirolarien jarraipena egingo dute.



Aitor Biain. | O.E.

**Martxoan**

Aitor Biain pozik dago lortutako txartelarekin, baina sariari buruz asko gehiago ez dakiela adierazi du: "Irabazi dudala bai, baina hortik aurrera gauza gutxi dakigu oraindik. Datorren hilabetean, martxoan, dugu bilera bat eta han emango dizkigute argibide guztiak". Hamar izeneko lanarekin irabazi du Biainek Rio de Janeirorako txartela. Lau lagunek Olinpiar Jokoak landuko dituzte eta beste lauk Paralinpiar Jokoak. Azken multzo horretan dago Uxue Otxoa arrasatearra.



IMANOL SORIANO

## Bigarren irteera bihar kintoek

Herriko kaleetan zehar ibili ziren kantuan eta dirua batzen joan den domekan aurtengo kintoak, eta herriko auzoetan egingo dute gauza bera bihar, zapatua. Makilak eskuetan dituztela eta trikitia eta panderoa etxean ahaztu gabe joango dira auzotarrengana, talde txikietan banatuta.

# Ludoteka ibiltaria Olakuara doa

**O.E.** | OÑATI

Txaloka ludoteka ibiltariak aurtengo lehen ibilbidea abiatuko du herriko auzoetara. Bihar, zapatua, esaterako, Olakua auzoan egongo da.

Ume eta gaztetxoendako jolasak eta eskulanak izango dituzte bihar Olakuan, 10:30etik 13:00etara bitartean. Ateri egonez gero, auzo horretako jolasgunea, saskibaloi kantxa, hartuko dute jolasak egiteko. Euria eginez gero, berriz, Olakua dorreko beheko solairuan egongo dira. Txalokako begiraleek material ezberdinak eramango dituzte umeekin batera jolasteko.

Ludoteka ibiltariak otsailean egingo duen irteera izango da biharkoa. Ludoteka bera, dena dela, egunero egoten da zabalik 16:45etik 19:45era. Edonor sar daiteke ikustera.


Urgain eskolako txikienak dantzan ipotxez mozorrotuta. URGAIN


Ikastolako ikasleak kalejiran *Zakuzaharraren* eskutik helduta. | TXANTXIKU IKASTOLA


Elkar Heziko ikasleak kalejiran bikingoz mozorrotuta. | ELKAR HEZI


Martitzen arratsaldeko txokolate-jana udaletxeko arkupeetan. | ARANTZAZU EZKIBEL

# Txokolate-janarekin eta disko festarekin amaitu ziren Aratusteak Oñatin

- Txokolate beroa eta txurroak jan zituzten arkupeetan
- Euriaren ondorioz Gaztelekuan egin zen disko festa

**IRATI ELORTONDO** | OÑATI

Ederto moldatu ziren txikienak dantzan egubakoitzean eta martitzenean Oñatiko eskoletako aratusteetan. Egubakoitzean Urgaingo eta Txantxiku ikastolako ikasleak irten ziren kalera; martitzenean, berriz, Elkar Hezikoak. Txokolate beroarekin eta txorizo-opilekin ekin zieten Aratusteei egubakoitzean Txantxiku ikastolako eta Urgaingo ikasle, irakasle eta gurasoek.

### Mitologia Urgainen

Egubakoitz arratsaldean Errekalde eskolako patiora atera ziren mozorrotuta ikasle guztiak, irakasle eta gurasoekin batera. Mitologia gai nagusia izanik, gela bakoitzak mozorro bana aukeratu zuen. Errekaldeko patioa ipotxez, Tartaloz, sorginez, eguzkiz, lainoz, laminaz, deabruz eta ilargiz bete zen. Asteetan zehar entseaturiko dantzak eginez eman zioten amaiera egunari.

### Euskal Inauteriak Ikastolan

Txantxiku ikastolako ikasleak euskal Inauterietako mozorroak jantziz *Kotilungorri-z* eta *Zakuzahar*-ez bete ziren Oñatiko kaleak. Kalejiran jaitsi ziren plazara, bertan *Kotilungorri*-en azken dantzak egitera. Amaitzeko, Txantxiku Ikastolako patioan txorizo-opila janez eman zioten amaiera jaiari eta Amaia Txintxurretak girotu zuen festa musika jarri eta abestuz.

### Bikingoak Elkar Hezin

Bikingoz mozorrotu ziren Elkar Heziko txikienak martitzenean, bai haur, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleak. Goizeko hamar eta erdietan haur eta lehen hezkuntzako eskolan hasita Santa Marina plazara abiatu ziren txikienak kalejiran. Bertan bigarren hezkuntzakoekin elkartu eta bikingoen itsasontziarekin batera Oñatiko plazara jaitsi ziren. Bertan amaitu zuten dantzaldia, Aratusteei agur esanda.

### Txokolate-jana euripean

Martitzen arratsaldean txokolate beroarekin eta txurroekin batera girotu zuten oñatiarrek arratsalde euritsua udaletxeko arkupeetan. Oñatiko Gaztelekuan eman zioten amaiera Aratusteei disko festarekin. Euria zela-eta kanpoan dantza egiteko aukera egon ez bazen ere, jende ugari batu zen bertan. Gaztetxoenak ederto moldatu ziren dantzan Gaztelekuan. martitzenari amaiera primeran emanda.



# DEBAGOIENEKO ARATUSTEAK 2016


OÑATI


ANTZUOLA


ELGETA


ARETXABALETA



ARETXABALETA


ESKORIATZA

**BABESLEAK**

ARETXARGI
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

ARGI-PLASTIK
LEIHOAK

JAVIER ETA JVAN
HARATEGIA

Irudi
ILE APAINKETA

MAKAI
LOREZAINTZA

TABERNA-BERRI
JATETXEA


ARAMAIO


LEINTZ GATZAGA


ARRASATE


BERGARA


ARRASATE



ARETXABALETA

Gemes estetika
Basabe Jatetxea
Gertu
GUREA TABERNA
LEIBAR ARRAINDEGIA
itesa



Udalbatzako kideak astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran elkartuta. | MIRARI ALTUBE

# Bederatzi milioi euro pasako aurrekontua onartu du udalbatzak

- Iazkoarekin alderatuta ia %2ko igoera izan du
- EH Bilduko hiruk alde eta batek aurka bozkatu zuten
- Irabazi zuzenketa bi aurkeztu eta abstenitu egin zen

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aratuste biharamunean egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak 2016ari dagokion udal aurrekontua: 9.046.213 eurokoa, hain zuzen ere. Pertsonal gastuak dira 1.863.194 euro; gastu arruntak, 4.714.650 euro; eta inbertsioak, 467.855 euro. Urats Gain zaharren egoitzari dagokiona, ostera, 320.576 euro da; hortaz, 2016ko aurrekontu finkatua honako hau da: 9.219.222 euro.

**Partidei eutsi**

Partidek ez dutela izan aldaketa handirik iragarri zuen Unai Elkoro alkateak, eta asko "iazko oso antzekoak" direla: "Askatasun handirik ere ez dago horiek moldatzeko". Hala ere, inbertsioak eta mantentze-lanak egin ahal izateko milioi erdi euro gordetzen saiatu izana azpimarratu zuen.

**EH Bildu, alde eta aurka**

Oposizioko alderdiak ez ziren guztiz bat etorri aurkeztutakoarekin, baina bai EH Bilduk bai Irabazik "adostasuna lortzeko egindako ahalegina" onartu zuten.

Hala, EH Bilduko lau zinegotzitik hiruk aurrekontuaren alde bozkatu zuten, eta bakarrak aurka. "Hiruk baietz esan dugu bai berdintasunean eta bai ongizatean murrizketak iragarri ondoren gure ekarpen batzuk onartu egin dituztelako. Eta ezezkoa esan dugu agintaldirako helburu nagusirik ez dutelako zehaztu oraindik, ezta zein ildo jorratuko diren ere", zioen Oihane Etxebarria zinegotziak, eta gaineratu: "Ekintza puntualetara mugatu beharrean ikus dezagun zein baliabide dauden, zein behar dauden, zein herri nahi dugun eta horren arabera planifikazio zehatz eta aktibo bat egin".

Joxe Migel Uribarren zinegotziak EAJko kide legez erantzun gura izan zion EH Bilduri esanaz, hauteskunde programan hamar puntu zehaztu zituztela eta horiek "betetzen hasita" daudela: "Puntu horietako bat da antolamendu plan orokorraren gainekoa eta helduko diogu horri ere".

**Irabazi, abstenitu**

Irabaziko Luis Mariano Gomezek, ostera, zuzenketa bi aurkeztu zituen. Batetik, eskatu zuen Udal Liburutegiaren zerbitzua luzatzea abuztuan, aste bukaeretan eta azterketa garaian. Onartu zuten abuztuan hamazortzi egunez zabaltzea, eta gainerakoa aztertzekotan geratu ziren.

Eta bestetik, enplegu planari 50.000 euro gehitzea eskatu zuen, baita herriko langabeei hainbat lan ematea ere udalerrian, eraikinetako aurrealdeak

**OHARRA**

**Aurrekontuaren harira, udal talde guztien ikuspuntua jaso nahi izan du GOIENAk, baita PSE-EE alderdiarena ere, baina horien baloraziorik ez da iritsi.**

---

**Unai Elkoro** | Alkatea

## "Milioi erdi euro gorde ditugu inbertsioetarako"

"Gustura" dago onartutako aurrekontuarekin, nahiz eta jakin inbertsio handirik ezingo dela egin.

**Iazkoa baino zerbait altuagoa...**

Bai, iaz onartutakoa baino %3 altuagoa. Baina gero, iaz maiatzean, kreditu handi bat sartu zen eta hori baino 700.000 euro baxuagoa da oraingoa.

**Zein ezaugarri ditu?**

Nahikoa buruhauste eman digu egiteak... Esandako moduan, iazko behin betiko aurrekontua handiagoa izan zen eta orain jaitsi beharra egon da... Hori kosta egin zaigu. Helburua izan da milioi erdi euro gordetzea inbertsioetarako eta beste konponketa-lan batzuk egiteko, eta hortxe ibili gara, nahikoa larri. Gastua ondo neurtu gura dugu eta gutxieneko mantentze-lanak eta inbertsioak egin, azken urteotan geldi egon direnak.



M.A.

**"Gastua ondo neurtu gura izan dugu aurrekontuan"**

**Zein lehentasun ezarri dituzue?**

Askatasun handirik ez dago, egia esan, gastu asko bideratuta daudelako. Gure arazorik handiena zorra da, aurrekontuaren %10 zorra ordaintzera doalako, eta horrek asko mugatzen du dirua nora bideratu erabakitzeko orduan. Partida asko iazko oso antzekoak dira.

**Partidaren batek izan du jaitsiera nabarmenik?**

Ez; batzuk jaitsi ditugu, baina iaz ere ez zelako diru guztia gastatu. Gure asmoa izan da kreditu orokorrean diru gehiago sartu, gero ez dadin diru faltarik egon partidetan.

**Eta igoerarik?**

Herri barruko errepideen konponketarako 100.000 euro sartu ditugu, behar handia dagoela jaso dugu-eta herritarrengandik.

**Inbertsioetan, lanak nagusi.**

Mojen komentua ordaintzen hasiko gara, batetik, eta Geltoki plazako lanen bigarren zatia ordainduko dugu, bestetik. Gero, beste lan txiki batzuk egingo ditugu, Errekabarren kaletik Txarapea ibilbidera igotzeko fundamentuzko bidea eta oztopo arkitektonikoak kendu, besteak beste. Azken horretarako eskaera handiagoa dago, eta, ildo horretatik, parrokia alboko espaloia zabaldu egingo da. Gainera, Deba ibai osteko bide berria Lausitta kalearekin elkartuko dugu, orain zebra-biderik ere ez dago eta. Eta bide hori kiroldegiraino iritsi ahal izateko proiektua egingo dugu.

**Inbertsioak zehazterakoan irizpideren bat jarraitu duzue?**

Mantentze-lanak egin beharrekoak dira, eta, inbertsio handitarako dirurik ez dugunez, herria txukuntzen joatea erabaki dugu.

**EH Bildukoek esan dizuete lan txikiak bai, baina epe luzerako planifikaziorik ez duzuela...**

Ez dakit aurreko urteetan halako planifikaziorik egon den... Egia da, gauza handirik ezingo dugu egin, baina Udalak aktibo ugari ditu eraikinetan —komentua, Basotxo, kuartela, udaletxea, hainbat lokal...—, eta horiekin epe luzerako plangintza bat egin behar dela argi dugu. Baina lehenengo, parte-hartze ordenantza egingo dugu, eta gero erabaki zelan heldu horri.

**Azken bi urteetan soberakina egon da; aurten?**

Aldundiaren aurreikuspena zen Foru Fondotik dirua itzultzea, baina, azkenean, negatiboa izan da likidazioa, eta aurtengoa zelan joango den beldur gara. Argi dugu iaz jasotakoaren 800.000 euroren antzekorik ez dela egongo.

**EH Bildukoek bozkatu dute hiruk alde eta batek kontra, eta Irabazikoa abstenitu egin da. Zein irakurketa egin duzu?**

Ni gustura nago onartutakoarekin. Oposiziokoek ekarpenak egin zituzten eta denak ez ditugu kontuan hartu, baina batzuk bai.

**Eta Udalaren egoera ekonomikoa zelakoa da?**

Bost milioi euro inguruko zorra geratzen zaigu ordaintzeko, eta hori ordaindutakoan hobea izango da, noski. Hala ere, nahiago izan dugu kreditua bukatzen denean bukatu eta ez luzatu hori, agintaldi gehiago ez sakrifikatzeko.

---

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

## Inbertsio esanguratsuenak

**PARROKIA ALBOKO BIDEA ZABALDU** Larrin plaza eta Iturrizar plaza elkartzen dituen espaloia zabaldu egingo dute, oso estua delako. Horrekin batera, zebra-bide berria egingo dute Deba ibaiaren alboko bidegorria eta Iturrizar plazatik datorrena elkartzeko. Oraingo lurzorua Iturrizar plazan jarritako moduko lauzarekin estaliko dute. Lan horietarako gorde dituzte 70.000 euro.

**MOJEN KOMENTUA** Urtarrilean erosi zituen Udalak komentua eta lursaila, 660.000 euroren truke, zazpi urtean ordaintzeko. Aurten 100.000 euroko ordainketa egingo dute.

**GELTOKI PLAZAKO LANAK** Iaz urrian hasi zituzten Geltoki plazako bidegorriaren lanak, eta martxoan bukatuko dituzte. 117.890 eurorekin bigarren zatia ordainduko dute.

**SKATE PARKA** Ibarra kiroldegi aurreko zelaian skate parka egitekotan dira, eta 60.000 euroko partida daukate.

**PROIEKTUAK IDAZTEA** Proiektuak idazteko 20.000 euro gorde dituzte. Ez dute zehaztu zeintzuk lehenetsiko dituzten, baina euren artean dago ibaiaren beste aldeko bidegorria Loramendi kaletik kiroldegiraino luzatzea.

**TXARAPEARA IGOTZEKO BIDEA** Errekabarren kaletik, Deba ibaiaren alboko bidegorritik gora, Txarapea ibilbidera joango den bidearen —arrapala-eskailera— proiektua idatzi egingo dute lehenengo, eta gero egin. Aurretik bizilagunek egindako eskailerak egon ziren han, baina ez zuten irisgarritasun araurik betetzen, eta orain, arau guztiak kontuan hartuta egingo dituzte. 27.000 euroko partida zehaztu dute.

## 2016KO UDAL AURREKONTUA

| | |
|---|---|
| Pertsonal gastuak | 1.863.194 |
| Gastu arruntak | 4.714.650 |
| Finantza gastuak | 66.244 |
| Transferentzi arruntak | 792.531 |
| Kreditu globala | 42.336 |
| Inbertsio errealak | 467.855 |
| Kapital transferentziak | 267.428 |
| Finantza aktiboak | 5.409 |
| Finantza pasiboak | 826.565 |
| Guztira Udala | 9.046.213 |
| Urats Gain zaharren egoitza | 320.576 |
| Aurrekontu finkatua (Urats Gaini emandakoa Udalak kenduta) | 9.219.223 |

## PARTIDA BATZUK

| | |
|---|---|
| Zor publikoa | 892.809 |
| Garapen ekonomikoa | 136.841 |
| Gizarte Zerbitzuak | 235.892 |
| Genero berdintasuna | 63.581 |
| Etxerik etxeko zerbitzua | 350.000 |
| Kultura (liburutegia barne) | 592.138 |
| Gazteria | 186.574 |
| Hezkuntza | 362.304 |
| Euskara | 257.833 |
| Kirolak (kiroldegia barne) | 1.000.960 |
| Ingurumena | 46.685 |
| Hondakinen bilketa, kudeaketa eta tratamendua | 692.739 |
| Kale garbiketa | 384.000 |
| Gipuzkoako ur kontsortzioa | 440.000 |
| Argiteria publikorako argindarra | 129.000 |
| Bide publikoen mantentze lanak | 205.900 |
| Parte-hartzea | 34.360 |
| Merkataritza | 11.600 |

**Oihane Etxebarria**
EH Bilduko zinegotzia


M.A.

### "Baliabideak egoki erabiltzeko beharren hausnarketa"

"Aretxabaleta aurrekontu bat garatzerakoan bi oztoporekin aurkitzen da. Bata, kiroldegiko zama: aurrekontuen %10ek azpiegitura bakar batek jaten du. Eta bestea, Udalak izaten duen inbertsiorako kapazitaterik eza. Dena dela, aurrekontu bat aurrera ateratzeko, funtsezko elementu batzuk egon behar dira. 2016ko aurrekontuetan hauek dira, gure ustez, garrantzitsuenak:
1- Planifikazio orokorra eta arlokakoa beharrezkoa da: oso garrantzitsua da dirua helburuen zerbitzura jartzea, eta ez alderantziz. EAJk ez du inongo plangintzarik aurkeztu eta beldur gara agintaldia inprobisazioan oinarrituko ote den. Arlo honetan eman dugu gure ezetz kritikoa.
2- Jendearen parte-hartzea ezinbestekoa da: orain arte ez da udalaren kultura politikoan hau txertatzea lortu. Aurten, pare-hartzea garatuko den ordenantzarekin hori zuzentzea espero dugu.
3- Talde politiko guztien ekarpen eta iritziak kontuan hartzea. Entzun gaituzte eta kontuan hartu dituzte guk planteatutako hainbat zuzenketa. Alde horretan bide onean goazela esan dezakegu.

Hau argi izanik, arloka zeintzuk diren gure oinarriak zerrendatuko ditugu:
1- Oinarrizko zerbitzuen kalitatea bermatuta egon behar da. Kultura, kirola eta beste zerbitzuetan martxan dauden zerbitzuak mantentzen dira.
2- Pertsonen ongizateari eusteko politika aktiboak sustengatu behar dira. Hasieran aurkeztutako aurrekontuetan gizarte larrialdietarako eta Hirugarren Mundurako dirulaguntzetan ere murrizketak planteatu ziren. Gure ekarpena onartu zen aurreko kopuruetan mantentzeko.
3- Berdintasun arloko dinamika aurrera atera ahal izateko duinezko partida egon behar da. Aldaketa batzuk egin dira, baina gure ekarpen txiki bat ere onartu zen. Planifikatu eta lanari ekitea falta da.
4- Hirigintzari dagokionez, kezkatuta gaude. Agintaldi hasieratik gai inportanteak daude mahai gainean: Azbe, komentua, kuartel zaharra... Tentagarria izan daiteke irtenbide partzialak ematea. Ez dugu antzematen ikuspegi globalik. Behingoz, alderdi guztien artean, herritarren eta eragileen parte-hartzearekin, ordena jarri behar dugu gure behar eta baliabideen artean. Horretarako, plan konkretu bat aurkeztu dugu datozen lau urteetan planifikazio orokor bat burutzeko.

Hau dena ikusita, gure baietza eman diegu aurkeztu dituzten aurrekontuei. Hori bai, ezezko boto bat ere erabili behar izan dugu planifikaziorik eza kritikatzeko".

**Luis Mariano Gomez**
Irabaziko zinegotzia


M.A.

### "Enpleguaren gaineko eskaera ez dute onartu"

"Irabazik abstenitzea erabaki du, aurrekontu oso estuak direla eta horiekin jokatzeko askatasun handirik ez dagoela ulertuta ere, eskatutako hainbat kontu ez direlako bete.

Udal gobernuari aitortzen diogu oposizioak egindako hainbat eskaera eta zuzenketa onartu izana, batez ere Ongizate Sailean eta Berdintasunean, baita elkarteei eta Hirugarren Munduarekin lan egiten dutenei ematen dieten diru laguntzei dagokienez ere. Hori horrela, 2015eko aurrekontuaren oso antzekoa da aurtengoa.

Baina Irabaziren hainbat eskaera ez dira bete, bereziki enpleguari dagozkienak. Aretxabaletan 283 lagun daude lanik gabe eta arazo larri horri irtenbidea topatzea izan behar da erakunde publikoen ardurarik handiena. Horregatik, lan poltsa bat sortzea proposatu dugu eta orain dagoen 131.000 euroko partidari beste 50.000 euro gehitzea. Izan ere, uste dugu mankomunitateak dituen enplegu egitasmoak ez direla nahikoa gure herriko langabeendako. Era berean, proposatu dugu 2016ko aurrekontuan sartutako hainbat lan epe luzeko langabeek egitea, horien artean daude honako hauek: eraikinen aurrealdeak garbitzea, seinaleak margotzea, hondakinak zintzilikatzeko zutoinak kentzea eta baserriko bideen mantentze lanak.

Guk eskatutako hori ez dute onartu eta ondorioz abstentziora jo dugu".

garbitzeko eta baserrietako bideak mantentzeko, besteak beste. Zuzenketa hori bertan behera utzi zuten, baina konpromisoa hartuta langabeendako postuok aztertuko dituztela. Hori horrela, abstenitu egin zen Gomez: "2015ekoaren oso antzeko aurrekontua da aurkeztutakoa, baina Irabaziren hainbat eskaera ez dira bete, batez ere enpleguarekin zerikusia dutenak. Lanpostuak sortu ahal izateko kolaborazioa eskatu dugu, baina ez dute onartu eta horregatik abstentziora jo dugu".

**Lanpostuen zerrenda onartuta**
Aurrekontuarekin batera, udaletxeko lanpostuen zerrenda onartu zuten, Irabaziko ordezkariaren abstentzioarekin, eta hor ez dago aldaketa handirik. Lan jardunak gehituko dizkiote informatikariari, %75etik %100era, eta berdintasun teknikariari %50etik %75era eta Euskara Sailean hutsik zegoen lanpostu bat kendu egin dute.

Debagoieneko Mankomunitatearekin hitzarmena egitea ere adostu eta onartu zuten udalbatzarreko kideek, argiterian dirua aurrezteko.


Txarapea ibilbidera igotzeko aldapa. | M.A.

## Mugimendu eta marrazketa tailerra Jaikirekin

KOMUNITATEA GOIENA | JAIKI ELKARTEA | ARETXABALETA

Jolastu nahi al duzu? Dantzatu eta marraztu? Zure gorputz osoa mugituko duzu, barrukoa eta kanpokoa sentituaz. Jolaskideen artean elkarri eragingo diogu. Marrak trazatuko dituzu paperean, airean, zure gorputzarekin eta zure gorputzean, baita besteengan ere; edo zuk irudikatu, ikusi eta begiratzen duzun hartan... Jolasaren bitartez gure gorputza, keinua eta trazua harremanetan jarriko dituen modu eta formak ikertuko ditugu. Begirada eta irudimena ere bertan egongo dira. Erabiliko ditugun tresnak plazera eta bat-batekotasuna izango dira. Edozein eskarmentu maila egokiak izango dira.

Otsailaren 21ean (17:00-20:00) kuartel zaharrean elkartuko gara (16 urtetik gorakoak) Laia Bedosekin. Izena emateko: *jaikielkartea@yahoo.es*, 943 53 43 96 eta Facebook.

## 'Margotu familian' saioa antolatu du Kuku Mikuk

Kuku Miku elkarteak *Margotu familian* saioa antolatu du azken urteotan legez 3 eta 6 urte arteko umeendako eta horien gurasoendako. Otsailaren 20an izango da (17:30-18:45) Kuku Mikuren egoitzan eta Laia Bedos adituak gidatuko du. Izena emateko idatzi honako helbide honetara: *kukumikuelkartea@gmail.com* (3 euro familiako).

berbetan
HIZKUNTZ ESKOLA
MATRIKULA-EPEA ZABALIK
(otsailaren 24ra arte)
INGELESEKO IKASTARO TRINKOAK
Astean 4 edo 6 ordukoak.
**Noiz:** otsailaren 29tik ekainaren 9ra arte.
**Maila:** azterketa ofizialak (B1, B2); nagusiendako ingelesa (oporretan joateko, lanerako...)
Interesatuok deitu **943 79 00 69** telefonora 16:00etatik 19:00etara
Belorrieta 4 • Aretxabaleta

# Sexualitatea, aitatasuna eta elikadura berbetarako gai Guraso Foroaren eskutik

## Haurtzaroaren gaineko formazio zikloa egingo dute eta hitzaldietarako izen-emate epea zabalik dago

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Aretxabaletako gurasoek –Kurtzebarriko Gurabarri eta Batera elkarteak, Arizmendiko eta Pausokako guraso elkarteak, eta Kuku Miku– eta Udalak osatutako Guraso Foroak haurtzaroaren gaineko formazio zikloa antolatu du. Hiru hitzalditan gai guztiz ezberdinak landuko dituzte adituen laguntzarekin: sexualitatea, elikadura eta aitatasuna. "Benetan gai interesgarriak dira eta haurren heziketan gurasooi sortzen zaizkigun kezkak argituko dizkigute", jakinarazi du Maider Etxanizek, Udaleko Gazteria teknikariak, eta gaineratu du: "Aitatasunaren hitzaldira gonbidatuko nituzke, bereziki. Aitak, askotan, baztertuak sentitzen dira familian, batez ere ume jaioberria datorrenean, eta zelan jokatu, zein paper duten eta beste kontu askoren berri emango du Eduardo Portillak".

Izena emateko epea zabalik dago eta gura den hitzaldia hautatu daiteke. Horretarako gertatu duten fitxa bete behar da, eta Arkupe kultur etxera eraman edo Gazteria sailera bideratu; helbidea honako hau da: *gazteria@aretxabaleta.eus*. Azken eguna da otsailaren 22a, astelehena.

### EGITARAUA

**SEXUALITATEA**

**Hitzaldia:** Gure seme-alaben sexualitatea eta bere arreta: lehenengo pausuak, 0-6 urte.

**Hizlaria:** Ana Ramirez de Ocariz (Emaize sexologia zentroa).

**Eguna:** Otsailak 24, euskaraz.

**Eguna:** Martxoak 1, gazteleraz.

**Ordua:** 18:00.

**Non:** Ibarra kiroldegia.

**ELIKADURA**

**Hitzaldia:** Elikadura orekatua haurtzaroan. Nola ekidin gain-pisua eta nola uztartu jangelako eta etxeko menuak.

**Hizlaria:** Amaia Diaz de Monasterio (dietista).

**Eguna:** Martxoak 2, euskaraz.

**Eguna:** Martxoak 7, gazteleraz.

**Ordua:** 18:00.

**Non:** Ibarra kiroldegia.

**AITATASUNA**

**Hitzaldia:** Aitatasuna. Etxean berdintasunez hezi. Nola handitu aitaren inplikazioa seme-alabekin.

**Hizlaria:** Eduardo Portilla (Berdintasun teknikaria, Ezberdin zentroa).

**Eguna:** Martxoak 9, euskaraz.

**Ordua:** 18:00.

**Eguna:** Martxoak 9, gazteleraz.

**Ordua:** 15:00.

**Non:** Ibarra kiroldegia.

**Mendi irteera bihar**

Bestalde, bihar, hilak 13, otsaileko mendi irteera egingo dute Guraso Foroak eta Murrukixok elkarlanean antolatuta. 4 eta 12 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako da gonbidapena, eta Muru mendia ezagutzera joko dute. Ez dago aurrez izenik eman beharrik, eta Herriko Plazan elkartuko dira 10:00etan; oraingoan autoan joango dira mendi barreneraino eta gero oinez egingo dute ibilbidea. "Aretxabaletako mendi bazterrak, bidezidorrak eta parajeak ezagutzera ematea da asmoa, naturarekin gozatu bitartean", jakinarazi dute antolatzaileek.

Hurrengo irteera martxoaren 5ean izango da, eta Areantza auzoko elurzuloa ezagutzera joango dira orduan.

### EMAKUMEEN II. FRONTENIS TXAPELKETA

## Final-zortzirenak domekan

Urtarrileko azken aste bukaeran hasitako txapelketak aurrera jarraitzen du, eta dagoeneko agerian geratu da zeintzuk izango diren aurrera egingo duten bikoteak: "Aste bukaera honetako partiduen ostean, pena handiarekin, baina, bikote batzuek bakarrik jarraituko dute aurrera", jakinarazi dute antolatzaileek, UDAko kideek.

Taldeen arteko fasea bukatuta, final-zortzirenak jokatuko dituzte, eta oraingoan partidu guztiak domekan izango dira, Iturrigorri pilotalekuan. Aurrekoetan legez, harmailak betetzea da antolatzaileen helburua, eta, hala, giro ona sortu frontenisaren inguruan.

Txapelketa bukatuko dute Emakumeen Nazioarteko Egunarekin batera eta finala izango da martxoaren 6an, domeka.

**BIGARREN JARDUNALDIKO EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Rebeka Ubera -Miren Argi Zeziaga / Marina Retolaza - Elena Egino | **23-25** |
| Lore Martinez - Rosa Ojuel / Ainara Muga - Amaia Ariznabarreta | **20-25** |
| Larraitz Iñurrategi - Aitziber Kintanilla / Lur Delgado - Dorleta Elkorobarrutia | **2-25** |
| Leire Valle - Maite Fraile / Idoia Elkoro - Iratxe Bravo | **25-14** |
| Naiara Alonso - Maite Otxoa / Ariane Unanue - Ibone Arrieta | **-** |
| Amaia Bolinaga - Maite Txintxurreta / Amaia Gastañaga - Jasone Garzia-Etxabe | **25-15** |
| Eli Berridi - Ane Aspe / Naiara Amezua - Anais Fernandez | **25-15** |
| Anabel Aranzadi - Marijo Bastardo / Eneritz Ollobarren - Yaiza Cid | **25-3** |
| Ariane Unanue - Ibone Arrieta / Eneritz Ollobarren - Yaiza Cid | **25-5** |
| Larraitz Iñurrategi - Aitziber Kintanilla / Naiara Amezua - Anais Fernandez | **4-25** |
| Idoia Elkoro - Iratxe Bravo / Ainara Muga - Amaia Ariznabarreta | **13-25** |

**HIRUGARREN JARDUNALDIKO PARTIDUAK-OTSAILAK 14**

| | |
|---|---|
| **9:00** | Larraitz Iñurrategi - Aitziber Kintanilla / Naiara Alonso - Maite Otxoa |
| **9:30** | Lur Delgado - Dorleta Elkorobarrutia / Eneritz Ollobarren - Yaiza Cid |
| **10:00** | Eli Berridi - Ane Aspe / Anabel Aranzadi - Marijo Bastardo |
| **10:30** | Marina Retolaza - Elena Egino / Leire Valle - Maite Fraile |
| **11:00** | Rebeka Ubera - Miren Argi Zeziaga / Lore Martinez - Rosa Ojuel |
| **11:30** | Amaia Bolinaga - Maite Txintxurreta / Idoia Elkoro - Iratxe Bravo |
| **12:00** | Naiara Amezua - Anais Fernandez / Ariane Unanue - Ibone Arrieta |
| **12:30** | Amaia Gastañaga - Jasone Garzia-Etxabe / Ainara Muga - Amaia Ariznabarreta |



M.A.

## 500 kriseilu "erabakia argitzeko"

Aretxabaletako zerua argitu zuten joan den zapatuan 600 bat herritarrek, Gure Esku Dago-k gonbidatuta. Haizeak traba egin zuen eta eskuratutako 500 kriseiluak ezin izan ziren zerura tu, baina erabakitzeko nahia argi utzi zuten. "Batzen gaituena desberdintzen gaituenaren gainetik jartzeko garaia da. Ahalmena badugula sarritan erakutsi dugu eta orain inoiz baino gehiago indarrak batu behar ditugu", irakurri zuen Maider Garaik. "Herri bat gara, Euskal Herria. Erabakitzeko eskubidea dugu, eta hori gauzatzeko, herritarron garaia heldu dela ozenki aldarrikatuko dugu gaur, kriseiluak lau haizetara askatuz eta bihar, hautetsontziak betez", esan zuen.

### OHARRAK

**'SUFRAGISTAS' FILMA**

Helduek *Sufragistas* (Erresuma Batua, 2016, 106 min.) filma izango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (15:00). Eta umeek *Koko dragoi txikia* marrazki bizidunen film luzea bihar eta etzi (17:00).

**BASOTXOTIK BENIDORMERA**

Benidorm eta inguruak ezagutzera joango dira Basotxo erretiratuen elkarteko kideak apirilaren 4tik 11ra. Prezioa da 383 euro bazkideentzat. Izena emateko epea zabalik dago eta horretarako Basotxoko bulegotik pasatu behar da astelehenetik egubakoitzera bitartean (11:00-12:00)

**BERTSO AFARIRAKO TXARTELAK SALGAI**

Otsailaren 26an Hibai Gain elkartean Agin Laburu eta Iker Zubeldiarekin egingo duten bertso afarirako txartelak salgai dauzkate Loramendin eta Urbaltz eta Gurea tabernetan. Bazkideek ordainduko dute 18 euro eta gainerakoek, 20 euro. Erosteko azken eguna otsailaren 25a da.



AMAIA TXINTXURRETA



IMANOL SORIANO

## Aratusteak... ondo baino hobeto!

Etorri eta joan egin dira Aratusteak, baina jai giro bikainarekin ospatu ondoren. Domekan kuadrillek girotu zituzten kale bazterrak, eta irribarrea atera zieten herritarrei Santa Ritako mudantzen kamioiak, sakristauaren agurreko taldeak eta selektiboen kamioiak, besteak beste. Martitzenean, ostera, ikastetxeetako umeek hartu zuten txanda eta pilotalekua eta kiroldegia kantuekin eta dantzekin bete zituzten.

# Udal etxebizitzak alokatzeko deialdia

## Eskaerak aurkezteko azken eguna otsailaren 26a izango da, Udaleko erregistro nagusian

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak hiru etxebizitza alokairuan jartzeko dei egin du. Herrian alokairua sustatzeko eta etxebizitzarik ez dutenek eskuratzeko helburuarekin. Dena den, eskaintzak baloratu eta onena aukeratzeko hainbat esleipen irizpide hartuko dira kontuan.

San Pedro auzoa 9, 5.a ezkerra (80 m2), San Pedro auzoa 9, 5.a eskuina (80 m2) eta Intxartxueta auzoa 26, 2.a eskuina (79,90 m2) dira Udalak alokagai jarri nahi dituen etxebizitzak. Kontratu bakoitzak urtebeteko iraupena izango du, eta ordainketak errentamendu egunetik kontatzen hasita, errenta hilero eta modu aurreratuan ordaindu beharko da, hil bakoitzeko lehen zazpi egunen barruan.

Errentaria behartuta dago kontu korronte edo banku-libreta bat izatera ordainketa-helbide bezala, hileko kuotak bertatik kobratzeko. Kontu edo libreta zenbakia jakinarazi beharko dio alokatzaileari. Berme hori honako hauei erantzuteko da: kontratuaren betebeharrei, eragindako kalte eta galerengatiko kalte-ordainei eta kontratuak ezarritako zigorrei.

Bizikidetza-unitatetik kanpo beste pertsona batzuek etxebizitza horretan bizi gura izanez gero, errentaria behartuta dago horretarako baimena idatziz eskatzera Udalari.

### Kontratuari uko egitea

Etxea alokatzen duenak kontratuari uko egin diezaioke indarraldiko edozein unetan, betiere, gutxienez bi hilabete aurretik dagokion aurreabisua egiten badio alokatzaileari.

Errentaren prezioa 130 eurotik hasita izango da, eta eskaerak aurkezteko azkenengo eguna otsailaren 26a izango da, 13:30ak arte, Udaleko erregistro nagusian, –astelehenetik egubakoitzera 09:30-13:30–. Informazio gehiago nahi duenak *eskoriatza.eus* webgunean jaso dezake.

# Karmelo Oñate ilustratzaileak erakusketa jarriko du

I.B | ESKORIATZA

Karmelo Oñate ilustratzaileak marrazki erakusketa jarriko du otsailaren 15etik 29ra bitartean Inkernu eta Hotela tabernetan. Urtarrilean, Elgetako Espaloia kafe antzokian izan ditu ilustrazioak ikusgai, eta, izan duten harrera ona ikusita, orain Eskoriatzan jarriko ditu.

Oñateren ilustrazioak mendiarekin lotuta daude. Alde batetik, arroila jaitsieren marrazkiak ditu, eta bestetik, alpinismo eta eskiarekin lotutakoak. Guztira, 30 marrazki prestatu ditu erakusketarako, eta, bi lekutan zeintzuk jarriko dituen oraindik zehaztu barik badauka ere, guztiak sartzea espero du.

Erakusketaz gain, enkarguak ere egiten ditu, eta marrazkien tamainaren arabera saldu ere egiten ditu; 50x40 tamainakoak 55 eurotan eta 70x50ekoak 120 eurotan.

### Marrazkien prozesua

Marrazkiak egiterakoan hainbat prozesu erabiltzen dituela azaldu du Karmelo Oñatek: "Lehenengo, eskuz egiten ditut, arkatzez marra zuzenak. Gero, eskaneatu ondoren, Photoshopen filtroak eta efektuak jartzen dizkiot, marrazkiek bizitasuna lortzen dute".

# 'Hemen bizi, hemen erosi' zozketako sariak banatu ditu Axtroki Merkatari Elkarteak

I.B | ESKORIATZA

Axtroki Merkatari Elkarteak egindako *Hemen bizi, hemen erosi* zozketan hainbat sari banatu ditu herritarren artean. Guztira, 1.500 axtroki zozketatu dituzte herriko merkatariek, eta sarituak izan dira Nagore Carballares, Kontxi Atxa, Maria Jesus Diaz de Gereñu, Loredi Beitia, Manuel Molina, Gene Castañeda eta Juan Karlos Altuna.

### 500 axtrokiko bi sari

Guztira, 500 axtrokiko bi sari eta 100 axtrokiko bost sari banatu dituzte elkarteko Jabi Altunak eta Manolo Gonzalezek.

Bi sari potoloen irabazleak Nagore Carballares eta Kontxi Atxa izan dira. Beste bost pertsonak, aldiz, 100 axtroki jaso dituzte, Eskoriatzako Axtroki Elkarteko kide diren komertzioetan gastatu ditzaten.



Zozketako irabazleetako batzuk, Axtroki elkarteko bi alboan dituztela. | I.B

# 'Pepper' pelikula eskainiko dute domekan Zaldibarren

Hizketan dakien txakurraren eta Felix mutikoaren abentura kontatzen da *Pepper* pelikulan. Adiskidetasunezko istorioa da, eta hamaika arriskuri egin beharko diote aurre bi protagonistek. Filma domekan, 17:00etan emango dute Zaldibar antzokian. Sarrerak bi eurotan salduko dituzte.

# Eskia eta snowboarda egitera joango dira gaztelekukoak

Otsailaren 27rako eski eta snowboard irteera antolatu du Eskoriatzako gaztelekuak. Ezkaraira joango dira goizean, eta Valdezcarayko pistetan eguna pasa ondoren etxera itzuliko dira. Plazak mugatuak izan arren, otsailaren 21era arte dago aukera izena emateko. Informazio gehiago nahi duenak gaztelekura joan besterik ez du.

# Mozorro orijinalek bete dituzte aurten ere Eskoriatzako Inauteriak

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako Inauteriek arrakasta izan dute aurten. Batez ere, zapatuan, eguraldiak lagunduta, parte-hartze handia izan dutelako. Hainbat talde aurkeztu ziren mozorro desfile lehiaketara, eta, horrez gain, herri bazkarian ere giro aparta izan zen Aratusteetako zapatuan.

### Aratuste-martitzen bikaina

Aratusteetako azken egunean umeak izan ziren protagonista. Goizean ikastetxeetakoen jaialdia izan zen frontoian, eta dantzan ondo dakitela demostratu zuten. Arratsaldean, berriz, kukumarroak eta DJak izan zituzten egunari amaiera paregabea emateko.



IMANOL SORIANO

**MASAI TRIBUKOAK** Eskoriatzako Aratusteetako mozorro desfileko sari nagusia irabazi zuten. Dantzak, garrasiak, danbor hotsak... egin zituzten egun osoan zehar.



I.B

**KUKUMARROAK** Eskoriatzan ohitura dira, eta aurten ere ez dute hutsik egin. Eguraldia lagun ez izan arren, ederki pasatu zuten umeek kukumarroak zirikatzen.



I.B

**IKASTETXEETAKOEN JAIALDIA** Arizmendi eta Luis Ezeiza ikastetxeetako haurrek dantzak egin zituzten frontoian taldetxoetan banatuta.


Erretiratuek mozorro festa egin zuten martitzenean. | MAIDER ARREGI


Makil dantza egin zuten Zurrategin domekako saioan. | IMANOL SORIANO


Autotxokeek bazkalostea girotu zuten pilotalekuan. | MONIKA BELASTEGI


Txikitxoenek txokolatea eta torradak dastatu zituzten. | AMAIA MUNDIÑANO

# Aratuste festak urtetik urtera indar eta harrera hobea dauka antzuolarrengan

Aratuste-martitzenean erretiratuen txanda izan zen eta haiek ere mozorro festa egin zuten

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

"Egun borobila izan zen domekakoa. Goiz osoan zehar inoiz baino jende gehiago ibili zen mozorrotuta. Kuadrillak, norbanakoak, bikoteak, denetarik... Askotariko mozorroak zeuden. Urtetik urtera geroz eta gehiago izateaz gain, orijinalagoak eta landuagoak dira", azaldu du Kultura teknikari Jone Larrañagak.

Goizeko protagonistak Hartza, Hezitzailea, Tximinoa eta dantzariak izan ziren eta eguerditik aurrera herritarren txanda iritsi zen. Pilotalekua lepo bete zen. "Bazkaltzen inoiz baino jende gehiago izan da: 215. Bazkalosteko mozorro jaira ez genekien jendea animatuko zen; baina, lehen aldia izateko, parte-hartze ona izan zen. Datorren urtean ere egingo dugu eta hobetu egingo dugu, gainera". Saria Hartza eta Tximinoa pertsonaiek jaso zuten. Baina autotxokeek jarritako giro ezin hobea ere saritua izan zen domekan.

Landatxopeko erretiratuek mozorro festa martitzenean egin zuten. 77 lagun batu ziren eta 14 litro txokolate dastatu zituzten.

## Santa Ageda bezperan, santa eskean eta koplaka sahararrei laguntzeko

**KOMUNITATEA GOIENA** | ANELKAR | ANTZUOLA

Santa Ageda bezperan, abesbatza eta antzuolarrak, Anelkarren laguntzarekin batera, kantuan irten ginen. Aurten, santa eskean batutako dirua Saharari laguntzeko bideratu dugu; eta kopla eta kopla artean, 728 euro batzea lortu dugu. Guztira, 40-50 lagun inguru batu ginen Santa Ageda bezpera ospatzeko, otsailaren 4an. Herriko Plazatik abiatuta, herriko kaleetan barrena ibili ginen. Gauean, aldiz, afaria eginez borobildu genuen eguna. 24 lagun batu ginen eta koplek eta kantuek jarraitu zituzten trikiti eta pandero doinuen laguntzarekin batera.

Mila esker parte-hartzeagatik antzuolarrei!


Santa Ageda bezperan kalez kale koplaka ibili ziren antzuolarrak. | JABIER ETXANIZ

## OHARRAK

**A8M**
Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketa jokatuko da bihar, zapatua. 10:30ean, helduen lasterketa abiatuko da; eta 11:00etan, txikitxoenendako plastikozko moto txikien lasterketa egingo da. Bi proben ostean, hamaiketakoa egongo da parte-hartzaile guztientzat eta herritarrentzat. 13:00 inguruan, sari banaketa egingo da.

**PILOTA**
Gaur, otsailak 12, infantil mailako Gipuzkoako txapelketa jokatuko da. Olalde taldeko pilotariak Legazpikoarekin neurtu beharko ditu indarrak.

**FUTBOLA**
Domekan, otsailak 14 16:30ean derbia Eztalan: Antzuola-Bergara.

## Domekako pintxo banaketako zenbaki saritua 367 da

Pintxo banaketako zozketako irabazlea 367 zenbakia da; ordezkoa, 369. Irabazleak 645 71 63 86 telefonora deitu behar du. "Ezker abertzaleak antzuolarrak eskertu gura ditu Herrerako martxa antolatzeko modu batean edo bestean laguntzeagatik. Autobusean izena eman daiteke oraindik Aitz Garbi tabernan; doakoa da".

## NIRE USTEZ

**ANTONIO DEOGRACIAS**



# The Caver

Gazteenentzat, edo hain gazte ez diren batzuentzat, akaso ez du esanahirik izango berba horrek, baina nerabe nintzela diktadura militar faxista bizitzea tokatu zitzaigun, eta Francoren erregimenak baimentzen zigun askatasun bakarra politikaz aritzen ez ziren aldizkariak leitzea izaten zen.

Behinola, *Fans 1965* izeneko bat agertu zen kioskoetan. Horrela jakin genuen The Beatles taldea ezagun egin aurretik Liverpool hiriko The Caver izeneko leku batean aritu zela zuzenean jotzen, egubakoitzero.

Pare bat hilabete dela gazte batzuek berrireki duten herriko taberna batean sartu nintzen eta sekulako sorpresa atsegina hartu nuen hormatik zintzilik dauden zuri-beltzeko argazkiak ikusita; rockak eman dituen handienak: Jimmy Page gitarra jotzen Robert Planten ondoan! Une batez pentsatu nuen lekuak izan zezakeela antzekotasunik Beatlesek beste famatu batzuen bertsioak jotzen zituzten haitzuloarekin. Eta pentsatu nuen Page eta Planten ondoan ere ondo asko egon zitekeela Paco de Lucia, Camaron de la Islaz lagunduta.

Horretan nintzela zur eta lur geratu nintzen. Barrako mutilak pentsamendua irakurri zidala zirudien: bozgorailuetatik Camaron hasi zen *La Leyenda del Tiempo* abesten! Leku xarmagarria iruditu zait, sorgintzailea, eta neska-mutilek bikain artatzen zaituzte. Gutxien espero duzunean, gainera, kontzertu akustikoren bat antolatzen dute, herriko eta inguruetako jendearekin. Eta, garrantzitsuena: adin guztietakook daukagu lekua bertan!

Eskerrik asko, benetan, ekarri duzuen haize freskoagatik! Onena opa dizuet!

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA
HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

# Eskolako gaztetxoek musikarekin agurtu dituzte Aratuste jaiak

## Martitzenean erakustaldia egin zuten senideen aurrean frontoian



Haur Hezkuntzako neska-mutikoak mexikarrez mozorrotu ziren. | A.E.



Nagusitxoak heavy doinuekin dantzan. | A.E.




Joxean Tolosa eta Xabier Euzkitze Aramaion izan ziren. | IMANOL SORIANO



Suhiltzaile txikiak ere ibili ziren zapatuko desfilean. | AITOR AGIRIANO

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARAMAIO

Koloretsuak eta orijinalak izan dira aurten ere Aratusteak Aramaion. Martitzenean agurtu zituzten jaiak, San Martin eskolakoek egindako ekitaldiarekin. *Musika estiloak* izan da aurten aukeratu duten gaia. Haur Hezkuntzako neska-mutikoak mexikarrez mozorrotu ziren. Eurek hasi zuten ikuskizuna: mariatxi doinuekin, frontoira joandako guraso eta senideak txaloka jarri zituzten.

### Lehen Hezkuntzakoak

Mailaka banatuta irten ziren agertokira LHkoak. Lehenengo mailakoak batukadaz mozorrotu ziren, eta irakaslearen laguntzarekin dantzan ibili ziren. Bigarren mailakoak tunaz mozorrotu ziren. Gitarra eskuetan, ondo baino hobeto pasa zuten neska-mutikoek. Hirugarren mailakoek txaranga xelebrea irudikatu zuten; koreografia eta guzti, ederto ibili ziren euren instrumentuak jotzen. Laugarren mailakoek country doinuak eraman zituzten frontoira. Bosgarren mailakoak heavy doinuekin irten ziren agertokira; ileak mugituz eta gitarra gogor joz ibili ziren, ikusleen txalo artean.

Frontoiko erakustaldia amaitutakoan eskolara joan ziren, txokolate beroa hartzera.

### Zapatuko kalejira

Haur, gazte zein helduek hartu zuten parte kiroldegitik abiatu eta Bizente Goikoetxea plazan amaitu zen desfilean. Sarituak izan ziren: 14 urtetik gorakoetan 1. saria *Suxibai* eta 2. saria *Aramaioko suhiltzaileak*; 14 urtetik beherakoetan 1. saria *Estelarra* eta 2. saria *Aitona-amona festazaleak*; originaltasunaren sarietan, 1. saria *Ehiztariak* eta 2. saria *El Gallego*.

# Santikurtz abadearen plazatxoan konponketak egin dituzte

**A.E.** | ARAMAIO

Hainbat konponketa egin dituzte Santikurtz abadearen plazatxoan azkenaldian. Trafiko handia duen plaza da; ondorioz, lurzorua egoera txarrean zegoen. 2015eko abendu hasieran galtzada-harriak konpondu zituzten: hautsita zeudenak aldatu egin zituzten. Udaletik azaldu dute ez dela "behin betiko konponbidea" izango, baina "oraingoz putzu gehienak kentzea" lortu dela.

### Autobus geltokia

Autobus geltokian ere egin dituzte konponketak; hala ere, geltokia bera txukun jartzea falta da. Egin dituzten lanak izan dira: autobus geltokiko eserlekua eta beste aldeko lau aulki txikiak lixatu eta bernizatu.

Iturriaren ingurua ere txukundu dute. Petril txiki bat jarri dute eta areka bat egin da hartxinga plazatxoan ez sartzeko. Gainera, hango bi eserlekuak lixatu eta margotu egin dituzte, farolen zuloak estali egin dira eta iturriaren askan zementu kapa bat jarri dute barrutik. Azken konponketa horrekin saihestu gura dena da urak askatik ihes egin eta izoztea.

# Umeendako materiala herritarren esku utzi dute

**A.E.** | ARAMAIO

Haurreskolako hainbat material Udaleko almazenetan gordeta daude. Bada, egunotan, almazena txukuntzen ibili dira, eta, materiala aztertu eta txukundu ostean, hainbat gauza herritarrei eskaintzea erabaki dute. "Egoera onean dagoen eta erabiltzen ez den" materiala da herritarrentzat utzi dutena. Interesa duenak Udalean egin beharko du eskaera otsail amaiera baino lehen. Modu horretan, berrerabilpena bultzatu gura dute kontsumoaren aurretik.

Eskaini duten materiala da: umeendako jostailuak, hainbat pelutxe, kuxin lunbar bat, 2 arrainontzi, 10 plastikozko adur-zapi, 2 hamaka eta trona bat. Objekturen batek eskaera bat baino gehiago izanez gero, zozketa egingo dute.

## Barajuenen koplak kantatzen

Santa Ageda bezperan koplak kantatzen ibili ziren Barajuengo auzotarrak. Ohitura zaharrei eusten diete Barajuenen; gazte eta nagusi, denak batera ibili ziren auzoan, baserriz baserri Santa Agedaren omenez abesten. Baserrietan jasotako arrautza, txorizo eta bestelakoekin bazkaria egin zuten zapatuan auzoko elkartean. 40 bat lagun batu ziren bazkaritarako.



OIHANA GARRO

## OHARRAK

**ARAMAIO, TELEBISTAN**

Huheziko ikasleek *Aramaio ezagutzera nator!* saioa estreinatuko dute datorren eguenean, otsailak 18, Goiena telebistan. 22:00etan izango da emisioa. Josu Urrestarazu aurkezlea Juanito Saizarrekin, Lierni Altunarekin, Mikel Bengoarekin eta eskolako ikasleekin egongo da.

# Armategi batek gordeko ditu errekreazioa egiteko armak

## Hitzarmena sinatu dute Elgetako Udalak eta Eibarko Armas Izarra enpresak

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Astelehenean sinatu zuten hitzarmena Elgetako Udalak eta Eibarko Armas Izarra armategiak. Iraitz Lazkano alkateak azaldu duenez, Udalak 3.300 euro ordainduko ditu eta Eibarko armategia arduratuko da Intxortako borrokaldien errekreaziorako erabiltzen diren eta udaletxeko jabetzakoak diren armak modu legalean gordetzeaz. "Arma horiek izango dira udaletxearen jabegokoak, baina egongo dira Armas Izarra armategiaren bilduman erregistratuta", azaldu du Lazkanok. 40 bat fusil dira eta aurrerantzean Armas Izarraren egoitzan egongo dira gordeta. "Errekreaziorako behar direnean armategia arduratuko da Guardia Zibilarekin koordinatu eta agiri guztiak bete ostean modu legalean ekartzeaz", azaldu du.


Errekreazioa egiteko material banaketa, orain bi urte, Asentzion. | L.Z.

**Errekreazioaren aurkezpena**

Apirilaren 24an egingo dute aurten borrokaldien errekreazioa. Boluntarioak behar dituzte, eta interesatuek udaletxean zein herriko tabernetan eman dezakete izena. Aurkezpen ekitaldia otsailaren 27an egingo dute, eta 22:30ean El Drogas & Desmemoria Band taldearen kontzertua dago iragarrita Espaloian (ikus Puntua, 38. orrian).

## Etorri berriek euskara ikas dezaten Aisa harrera ikastaroa eskainiko dute Elgetan

**L.Z.** | ELGETA

Euskara ezagutzen ez dutenendako da Aisa ikastaroa, eta laster Elgetan ere egongo da eskaintza hori Elgetako Udalaren eta Uemarekin eskutik.

Ikastaroa 60 ordukoa da eta diruz lagunduko du Udalak. Izen-ematea 18 euro da, eta kurtsoa amaituz gero ikasleak hamar euro jasoko ditu bueltan. Interesatuek otsailaren 24ra arteko epea dute udaletxean izena emateko. Argibideak behar izanez gero ere bertan emango dituzte. "Euskara ezagutzeak duen garrantzia kontuan hartuta, ahalegin berezia egin nahi izan dugu elkarlanean herritarroi erraztasunak eskaini eta euskara hasieratik ikasteko pausoa ematera anima daitezen", adierazi dute udal arduradunek.

### Kantsatzeke mendi taldeak zortzi irteera iragarri ditu 2016rako, lehenengoa martxoaren 13rako

Araban dagoen Badaia mendilerroko Ganalto tontorrera iragarri du Elgetako mendi taldeak 2016ko lehen irteera. Ondotik etorriko dira Arriurdingain, Izarraitz, Orixol, Ganekogorta, Andutz, Andraitz eta Karaketa. Argibideak: *facebook.com/kantsatzeke*.

### Domekan, 11:30ean, familia osoarendako sormen tailerra tenperekin, buztinarekin eta eraikuntzekin

Onditz Mendizabalek Sormening saioa egingo du Espaloia kafe antzokian. Familia osoarendako eskaintza da eta ordu eta erdiko iraupena izango du. Prezioa da: bi lagunendako, 15 euro; hirurendako, 20 euro; eta laurendako zein bostendako, 25 euro.

### Ruper Ordorikaren kontzertua iragarri du Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak martxoaren 6rako

Espaloia kafe antzokian izango da abeslari oñatiarra martxoko lehen domekan, 19:00etan. Bakarkako emanaldia egingo du. Sarrerak salgai daude Elgetako kafe antzokian eta Bergarako Pol Pol tabernan zortzi eurotan, eta bazkideendako bost eurotan.


LUIS MARI ARANTZETA

## Txokolatea eta bingo jokoa

Elgetako erretiratuek martitzenean ospatu dute Inauteria. "Urteroko txokolate-jana egin genuen Ozkarbi elkartean, eta ondoren bingoan eman genuen arratsaldea. Bazkideei jakinarazi nahi diegu eguenean, hilak 18, egingo duela podologoak otsaileko bisita"

KOMUNITATEA GOIENA | ELGETA
XALBADORPE ERRETIRATUEN ELKARTEA

## Konponketa lanak egin dituzte skate parkean

**L.Z.** | ELGETA

Otsailaren 4ean eta 5ean itxita egon zen Bolatokiko kantxaren ondoan dagoen skate parkea. Konponketa lanak egiteko itxi zuten. Egurrezkoa da skate parkearen egitura nagusia eta denborarekin handitu eta apurtu egin dira hainbat taula. Hondatutako piezak kendu, eta berriak ipini dituzte. Elgetako Udalak aditzera eman duenez, konponketa lanen aurrekontua izan da: 1.776 euro + BEZa. Skate parkea erabilgarri dago berriz ere.

### OHARRAK

**ARETO FUTBOLA**

Aste bukaeran jokatuko dira hurrengo partidak. Zapatu arratsaldean izango da, pilotalekuan.

**GARBIGUNE IBILTARIA**

Eguaztenean Salbador kalean izango da, 10:00etatik 21:00etara.

**AURKEZPENA**

Udalak eguaztenean, hilak 17, egingo du herritarren parte hartzerako udal ordenantza proposamenaren jendaurreko aurkezpena. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da, 19:00etan.

LEINTZ GATZAGA

# Nabarmen handitu dira museoko bisitak

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Geroago eta bisitari gehiago ditu udalerriko Gatz Museoak. "2015ean web orriaren bitartez egindako promozioa ari da fruituak ematen", esan du Aitor Larrañagak, Gatz Museoko arduradunak. Eta esandakoa datuekin indartu du: "Iaz baino bisita gehiago gabiltza izaten, %30-edo handitu da bisita kopurua".

Xehetasunen arabera, ikastetxeak dira Gatz Museoa gehien bisitatzen jarraitzen dutenak, baina "asteburuetan gero eta familia gehiago dator", dio Larrañagak.


Aitor Larrañaga bisitariekin, asteburuan. | GATZ MUSEOA

**Iturburua garbituta**

Bestalde, Gatz Museoko arduradunak jakinarazi du bertako gatzuraren iturburua garbitu egin dutela auzolanean. "Burdina pilatzen da eta kendu egin behar izaten da. Barrura sartu eta aitzurrarekin kentzen da lehenengo, eta gero mangerarekin garbitu; orain dela pare bat aste garbitu genuen, eta urtean behin edo birritan egiten da hori", esplikatu du Larrañagak.


UBANE MADERA

LEINTZ GATZAGA

## Akelarrean dantzan

Udalerriko gaztetxoenek Eskoriatzako Joseba Iñurrategi pilotalekuan jardun zuten akelarrea dantzan, eskolan bertan landutako sorgin mozorroak soinean zituztela, Aratuste-martitzenean. Bertan izan ziren, baita ere, ikuskizunera bertaratzeko aukera izan zuten senideak.

ESKUBALOIA

# Lagun artean afaldu aurretik borroka estua izango da Zubietako kantxan

- Oñatiarrek garaipena behar dute aurrealdeko taldeek ihes egin ez dezaten
- Iturripen jokatutako partiduan Ford Mugarri Arrasatek erraz irabazi zuen (26-19)

**XABIER URZELAI** | ARRASATE

Zapatuan, partiduaren amaieran [Zubikoa, 18:15], Izarraitz Aloña Mendiko eta Ford Mugarri Arrasateko ordezkariek elkarrekin afalduko dute. Orduan hasiko da errugbian ezagun den *hirugarren zatia,* lagun artekoa. "Partiduak irauten duen bitartean, berriz, ez da egongo lagunik".

**Errebantxa gogoarekin**

Harmailek itxura paregabea erakutsiko dute bihar, ligako partidu erakargarrienetako bat da-eta hirugarren dagoen Izarraitz Aloña Mendik eta lider dagoen Ford Mugarri Arrasatek jokatuko dutena. Joanekoan, Iturripen, oñatiarrek ez zuten batere gozatu, eta arantza atera gura dute, etxeko zaleen aurrean, gainera. Horixe azaldu dio GOIENAri bigarren entrenatzaile Rafa Zuluetak: "Goiz iritsi zitzaigun partidu hura, eta sentsazio txarrak utzi zizkigun. Urteak ziren bi taldeek elkarren kontra jokatzen ez genuela, eta ez ginen ondo egon".

Arrasatekoen eta Oñatikoen artean dagoen *pike* sanoa alde batera utzita, oñatiarrek errebantxa hartzea baino askoz ere gehiago dute jokoan, joan den astean Zarautzen kontra estropezu egin ostean Basaurik eta Ford Mugarri Arrasatek aldea handitu egin dute eta. Arrasatekoek 30 puntu dituzte, Basaurikoek 29 eta oñatiarrek, berriz, 25 –txantxikuek partidu bat gutxiago jokatu dute–. Hala, ezinbestekoa dute Ford Mugarri mendean hartzea, aurrekoengandik ez aldentzeko: "Pena izan zen joan den astean Zarautzen galdu izana. Egia da aurreko biekin alderatuta partidu bat geratzen zaigula jokatzeko, baina, hala ere, zapatuan galduz gero Arrasatek 5 puntuko abantaila izango luke; hain zuzen, liga osoan barkatu duten puntu kopuru berbera". Zarautzen kontrako partiduak, gainera, porrotaz batera beste albiste txar bat utzi zuen, Jon Irizarren lesioa.

Arrasate aldean ere ez daude gogo faltan: "Badakit jokalariak oso motibatuta daudela", dio Andoni Arandok. "Pertsonalki, gustatuko litzaidake igoera faserako gurekin batera oñatiarrak sailkatzea, baina liga amaieran ikusiko da hori. Oñatiarrei irabazten badiegu, *koltxoi* polita izango genuke, eta garrantzitsua da hori; izan ere, partidu asko geratzen dira, eta edozein momentutan izan dezakegu beherakadatxo bat. Gainera, liga amaiera gogorra izango dugu, Urdulizen, Basauriren eta Corazonistasen kontra".



Arrasateko jokalariak erasoan eta oñatiarrak defentsan, Iturripen jokatutako partiduan. | IMANOL SORIANO

ESANAK

**"Joaneko partiduarekin ez ginen batere pozik geratu"**

RAFA ZULUETA | IZARRAITZ ALOÑA

ESANAK

**"Oñatin irabazita 'koltxoi' polita izango genuke"**

ANDONI ARANDO | FORD MUGARRI

ATLETISMOA

# Jabe berria du Zufiriaren txapelak: Istar Dapenak 5,05eko marka egin du

Gipuzkoan Jon Karla Lizeagak baino ez du lortu pista estalian salto hori egitea



Fernando Zufiriak jarri zizkien dominak Istar Dapenari –urrea– eta Jonathan Perezi –zilarra–. | ARRASATE ATLETIKO TALDEA

**XABIER URZELAI** | ARRASATE

Joan den zapatuan egin zituzten pista estaliko Gipuzkoako txapelketak, Anoetan, eta pertika -saltoan Istar Dapenak marka pertsonala ondu zuen (5,05), eta baita lehenagotik haren irakasle Jonathan Perezek egindako marka gainditu ere (5 metro). Gipuzkoan, Dapenaz gain, Jon Karla Lizeagak bakarrik lortu du pista estalian marka hori egitea. Izan ere, aire librean Jonathan Perezek 5,10 metroko marka dauka, 2006an Zaragozan lortu zuena. Eta hamarkada bat geroago, 4,90 metroko saltoa egiteko gauza izan da –zilarra jantzi zuen–.

Belaunaldi berriak datoz, baina ohitura zaharrek bere horretan jarraitzen dute. Duela urte batzuk, Jonathan Perezek bost metroko marka egin zuenean Fernando Zufiriak txapela bota zion harmailetatik, eta zapatuan Anoetan keinua errepikatu zuen ostera ere, Istar Dapenari ere promesa bera egina zion eta. Hala, entrenatzaileak pozarren pasa dio erreleboa ikasleari, eta baita zoriondu ere: "Zorionak Istarri, nik neukan bost metroko marka birrindu egin duelako 5,05eko metroko saltoa eginda. Hala, Gipuzkoako txapeldunak Arrasatekoa izaten jarraitzen du, hamasei urtez jarraian!". Dominak, berriz, Zufiriaren eskutik jaso zituzten, federazioko ordezkariek halaxe eskatuta.

**Malen Ruiz de Azuak ere urrea**

Gainontzeko atletei dagokienez, Malen Ruiz de Azuak urrea jantzi zuen 3,95 metroko saltoarekin. Eta Maialen Axpek zilarrezko domina ekarri zuen etxera (3,85).

200 metroko lasterketan, ostera, Eneko Carrascalek (23.09), Ibai Fernandezek (23.36) eta David Garciak (34.33) hartu zuten parte. Eta 400 metroko lasterketan, Daniel Martinezek brontzezko domina irabazi zuen (52.00). Bestetik, Zaragozan atletismo topaketa egin zuten eta Iñigo Uribarrenek parte hartu zuen, salto hirukoitzean; arrasatearrak arazoak izan zituen, ez zuen gura beste gozatu lasterkako tartean, orpoa ez zuelako behar den moduan sartzen, baina, hala ere, bigarren postuan sailkatu zen (15,22).

Hurrengo hitzorduak Anoetan izango dira: kadete eta gazte mailetako Euskadiko Txapelketa egongo da jokoan.

MENDI-LASTERKETA

# Lokatz artean egingo da Antzuolako 8 Miliak proba

- 13,8 kilometroko bidea egin beharko dute lasterkariek
- 262 korrikalarik eman dute izena laugarren edizio honetan

**IMANOL BELOKI** | ANTZUOLA

Domekan izango da Antzuolako 8 Miliak probako laugarren edizioa, eta 262 korrikalarik eman dute izena. Aurreko urteetan moduan, lasterketako ezaugarriek ez dute aldaketarik izango, nahiz eta eguraldi nahasia eta bidea lokatzez beteta izatea espero duten antolatzaileek. Ibilbidea, Antzuolatik hasi, Irimora igo eta buelta izango da, urtero moduan.

Lasterketa 10:30etan hasiko da, eta bidearen desnibel positiboa 835 metrokoa izango da. Korrikalariek 13,8 kilometro egin beharko dituzte, eta hamaiketakoa Antzuolako eskolako patioan.

**Aurtengo berritasuna**

Lasterketa amaitzean egiten den hamaiketakoa korrikalarientzat izan ohi da, baina aurten ikusleak ere gonbidatuko dituzte antolatzaileek. Bestalde, lasterketaz gain, mendi astea ere antolatu dute Antzuolan. Hitzaldiak eta ibilaldiak izan dira, txikienak kirola egitera bultzatzeko helburuarekin, eta datorren astean ere hainbat ekintza egingo dituztela adierazi du Aritz Saidik, lasterketako antolatzaileetako batek.

**Boluntarioentzat detailea**

Aurreko urteetan moduan, 70 boluntariotik gora batu dira lasterketa egunerako, eta detailetxo bat jasoko dutela adierazi dute antolatzaileek.

ESANAK

**"Eguraldi nahasia eta lokatza espero dugu"**

ARITZ SAIDI | ANTOLATZAILEA



2014ko lasterketan, korrikalari multzo bat. | GOIENA

SASKIBALOIA



Mondragon Unibertsitatekoak Valladoliden aurkako partiduan. | IMANOL SORIANO

## Kamiseta morearekin joateko dei egin du MU saskibaloi taldeak

**I.B** | ARRASATE

EBA mailako MUk zapatuan jokatuko du partidua, 18:00etan, Iturripen, Santanderko La Gallofa Cantbasket taldearen aurka. Arrasatearrek azken bi partiduak etxetik urrun jokatu dituzte, eta zapatuan etxean jokatuko dute, garaipena eskuratzeko asmoz. Bada, sailkapen taulan gauzak ez doaz hain ondo Mondragon Unibertsitatekoentzat, eta partidua irabaztea garrantzitsua izango da kategoria mantentzeko lehiari eusteko.

Taldea indartzeko eta partidua animatzeko asmoz, Ointxe elkartekoek deialdia egin diete zaleei: kamiseta morea eroatea Iturripera. Honela azaldu du Jon Basurko presidenteak: "Kamiseta morea daramaten guztiei doan sartzen utziko die elkarteak. Bazkideei ere bai, jakina".

Aurkariek bederatzi partidu irabazi dituzte eta seigarren postuan daude. Hiru jokalari amerikarrez gain, Migel Angel Blanco 42 urteko taldeko bigarren saskiratzailea dute.

**Natra Oñati, azkenen aurka**

Probintzial mailako Natra Oñati taldeak, aldiz, Portugaleteren aurka jokatuko du zapatuan, Zubikoan, 18:00etan. Oñatiarrak laugarren postuan daude eta aurkariak, berriz, azken postuan.

FUTBOLA

## Derbi bikoitza izango da erregional preferentean

**I.B** | ARRASATE

Bailarako taldeen arteko bi norgehiagoka jokatuko dira asteburuan: batetik, Antzuolak eta Bergarak Estalan, 16:30ean; eta bestetik, Aretxabaletak eta Mondrak Ibarran, ordu berean.

Antzuola burua ezin altxa dabil sailkapeneko azken postuan zazpi punturekin eta Bergara, berriz, seigarren postuan dago goiko postuen bila borrokan, 30 punturekin. Bergarak hiru puntuak lortu zituen aurreko jardunaldian, bere atzetik doan Ikasberri taldearen aurka, eta Antzuola, berriz, sei gol jasota bueltatu zen Azpeititik. Antzuola ondo ez dabilen arren, etxean jokatuko du, eta, hala, dena emango du.

Mondra, berriz, liderraren atzean da, bigarren postuan, eta, Aretxabaletari tarte handia ateratzen dion arren, ez du bigarren postutik jaitsi gura. Aretxabaleta hamaikagarrena da sailkapenean, eta, aurreko bi jardunaldietan porrota jasota, irabaztea tokatzen zaio.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**HIRUGARREN MAILA**
Aretxabaleta-Vitoria
Domeka. 16:30. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Real Union-Aloña Mendi
Domeka. 16:00. Gal.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Antzuola-Bergara
Zapatua. 16:30. Estala.
Aretxabaleta-Mondra
Zapatua. 16:30. Ibarra.

**EMAKUMEZKOEN LIGA**
Arizmendi-Urnieta
Domeka. 13:00. Ibarra.
Amara Berri-Mondra
Domeka. 12:15. Martutene.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Ordizia-Aretxabaleta
Zapatua. 18:15. Altamira.
Mondra-Amaikak Bat
Zapatua. 16:00. Mojategi.
Bergara-Aloña Mendi
Domeka. 16:30. Agorrosin.

**OHOREZKO KADETEAK**
Anaitasuna-Bergara
Zapatua. 12:30. San Juan.
Beasain-Aloña Mendi
Zapatua. 11:15. Igartza.
Urki-Arrasate
Domeka. 13:30. Unbe.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**
Scalibur-Aretxabaleta
Zapatua. 16:15. Artunduaga.
Eraso Aiara-Eskoriatza
Zapatua. Zehaztu barik. Bañueta.

**LEHENENGO MAILA**
Pescados Ferreres-Pizza Per Tutti Mondrate
Egubakoitza. 22:00. Donibane.

**EMAKUMEZKO SENIORRAK**
Eskoriatza-Zaldibia
Domeka. 11:30. Manuel Muñoz.

**GIPUZKOAKO GAZTEAK**
Laskorain A-Pizza Per Tutti Mondrate
Zapatua. 09:00. Usabal.

**ESKUBALOIA**

**EUSKAL LIGAKO SENIORRAK**
Izarraitz taberna Aloña Mendi-Ford Mugarri
Zapatua. 18:15. Zubikoa.

**EUSKADIKO TXAP. EMAKUM.**
Aiala-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Aritzbatalde.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
Ordizia Amonane-Bergara
Zapatua. 12:15. Majori.

**SASKIBALOIA**

**EBA**
MU-La Gallofa Cantbasket
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**BIGARREN MAILA**
Natra Oñati-Portugalete
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**GIZONEZKO SENIORRAK**
MU-Zast Zarautz
Zapatua. 16:00. Musakola.
Soraluce Bergara-Errotaundi
Zapatua. 19:30. Labegaraieta.

**EMAKUMEZKO SENIORRAK**
Eskoriatza-Cafes Aitona Askatuak
Egubakoitza. 20:15. Manuel Muñoz.

**ERRUGBIA**

**SENIORRAK, 2. MAILA**
Escor Gaztedi B-ART
Domeka. 11:30. Gamarra.

**PILOTA**

**OÑATI**
**Egubakoitza, 18:45ean hasita:**
Aloña Mendi1-Tolosa (gazteak).
Aloña Mendi2-Mundarro (gazteak).
Aloña Mendi1-Tolosa2 (kadeteak).
Aloña Mendi-Eple (nagusiak).

**ANTZUOLA**
**Egubakoitza, 19:00etan hasita**
Olalde-Legazpi2 (infantilak).

**BERGARA**
**Egubakoitza, 19:15ean hasita**
Bergara-Azkoitia1 (gazteak).
Bergara-Beloki (nagusiak).

**ARETXABALETA**
**Egubakoitza, 19:30ean hasita**
Aretxabaleta-Pagazpe (kadeteak).

**ARRASATE**
**Egubakoitza, 20:00ean hasita**
Arrasate-Aretxabaleta1 (alebin.)
Arrasate-Antigua (kadeteak).



UDA–Mondra derbian. | GOIENA

SOKATIRA

## Jone Elortza oñatiarra Euskadiko goma gaineko sokatira txapeldun berria da

Gasteizko Badoitz taldean ari da Jone Elortza oñatiarra, eta pasa den aste bukaeran 500 kiloko modalitatean txapela lortu zuen, taldekideekin batera. Euskal Herrian ez ezik, mundu mailan ere hainbat sari lortutakoa da Elortza talde arabarrarekin, eta, lau urte kirol honetatik aldenduta egon ostean, berriz ere gorenera itzuli da.

AIZKORA

## Urrezko Aizkorako finalerdi erabakigarria domekan jokatuko da Oñatiko foruen plazan

Domekan, hilak 14, Urrezko Aizkorako finalerdi erabakigarria jokatuko da Oñatin: Jon Errekondo eta Ruben Saralegi, Jose Lopez Azpilikuetaren eta Joseba Otaegiren aurka. Proba Foruen enparantzan jokatuko da, 12:00etan, baina euria bada Zubikoa kiroldegian izango da. Proba irabazten dutenek txapela lortzeko aukera izango dute otsailaren 28an Azpeitian jokatuko den finalean.

PILOTA

## Pilotari profesionalekin gozatzeko aukera izango da domekan Zubikoan

Ezkurdiak eta Barriolak Artolaren eta Albisuren kontrako eskuz binakako txapelketako final-laurdenetako partidua jokatuko dute Zubikoa kiroldegian domekan. Euren aurretik, 17:00etan, Mendizabal eta Erostarbe Elordiren eta Irustaren aurka lehiatuko dira. Sarrera guztiak agortuta, pozik daude Aloña Mendiko pilota sailekoak.



Joseba Ezkurdia. | DIARIO DE NAVARRA

# KULTURA



UNAI BEROIZ

Patxi Zubizarreta idazleak irabazi du lehenengo saria (Ordizia, 1964).



GOIENA

Eneko Barberenak jasoko du bigarren sariaren zati bat (Arrasate, 1983).



AINARA ELIZONDO

Ainara Elizondorentzat da bigarren sariaren beste erdia (Oiartzun, 1979).



AINHOA PARDINA

Ainhoa Pardinak eskuratu du bergarar onenarena (Bergara, 1997).



MARIA OSES

Maria Osesendako da gazte saileko aurtengo saria (Arrasate, 2000).

# Debagoieneko amodiozko hiru gutun irabazle Jardunen 24. lehiaketan

- 94 gutun jaso dituzte aurtengo edizioan; horietatik hamasei eskualdeko idazleenak dira
- Irizar jauregian banatuko dituzte sariak bihar, zapatua (12:00); ondoren luntxa izango da

**A. ARANBURUZABALA** | BERGARA

"Aurkeztutako lanen kalitateari eta kopuruari dagokionez, aurtengo Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketako balorazioa oso positiboa da. Aipagarria da lanen heterogeneotasuna; maitasunaren gaiari saihets guztietatik heldu dakiokeela erakusten duena. Itzalen bat aipatzekotan, sentimenduak adierazteko zenbaitek erakusten duten ezina, zeinak nahikoa garbi erakusten duen zeinen idealizatuta daukagun maitasunaren ikuspuntu erromantikoa" azaldu du aurtengo epaimahai nagusiak.

Aurreko edizioetan moduan, bi epaimahai taldek izan dute jasotako lanak irakurri eta saridunak erabakitzeko ardura. Andoni Urzelai idazleak, Agin Laburu bertsolariak, Arianne Unamuno musikariak eta Iosune De Goñi iazko irabazleak osatu dute epai-mahai nagusia. Aranzadi Ikastolako eta Ipintza Institutuko lau ikaslek izan dute, berriz, 26 urtez azpiko parte hartzaileen gutunak irakurtzeko ardura.

**Sariak baino irabazle gehiago**

Lau dira aurten ere banatuko dituzten sariak; bost, baina, aurtengo saridunak. "Originaltasuna eta estiloa lehenetsi ditugu, eta sari nagusia jaso duen Patxi Zubizarretarenak bietatik du sobera. Maitasun istorio intentsua da eta ohiko parametroetatik aldentzeko ahalegin bizia egin duela erakusten du autoreak. Irakurtzen hasi eta jakin-minez jarraitzeko gogoa ematen du", azaldu du Andoni Urzelaik. "Batzuetan, helduen eta gazteen arteko maitasuna gurutzatu egin daitekeela adierazi nahi nuen. Biolin irakasle baten eta harpa jotzaile baten artekoa da. Sortuko zaien musikak, baina, garai bateko oihartzuna ekarriko du... Fraideekin ikasi nuen eta neskekin ibiltzeak erakarri beste kikildu egiten gintuen. Ezintasunez eta frustrazioz betetako garai hark gerora nolako arrastoa utzi zigun azaldu nahi nuen. Aurreko hilabeteetan García Márquezen *El amor en tiempos de cólera* liburua berriro irakurri izanak ere, seguruenik, eragina izan du", dio Patxi Zubizarretak.

Bigarren saria Ainara Elizondoren eta Eneko Barberenaren artean banatu dute, aipagarriak iruditu zaizkielako biak ala biak. "Elizondok umore eta ironiaren bidetik lan dibertigarria bezain originala ondu du, non Mari Domingik Olentzerorengatik sentitzen duena erakusten duen sarkasmoz idatzitako gutunean. Barberenak, berriz, ustez batere amodiorik ez dagoen politikarien arteko harremanean amodioa txertatu du. Ez ulertzeak eta ezinak zapuztutako harremana deskribatzen du abileziaz", azaldu du Urzelai epaimahaikideak. "Idatzi nuen momentuan, Gabonen hondarrean, Kataluniako presidentearen negoziaketa drama gisa bizi genuen askok, nik barne. David Fernandezek Artus Mas besarkatu zuenean kritika asko jaso zituen. Niri asko gustatu zitzaidan haren erantzuna, eta buelta batzuk eman nizkion gaiari", dio Barberenak. Honako hau dio, berriz, bigarren sariaren beste erdia jasoko duen Elizondok: "Argi neukan Euskal Herriarekin zerikusia duten pertsonaiekin osatu gura nuela gutuna, eta, egia esan, ez nion pertsonaiak



Maitane Arizabaleta, Arianne Unamuno, Iosune de Goñi eta Andoni Urzelai, Miguel Angel Elkoroberezibar. | JARDUN

## Aurtengo Amodiozko Lehiaketako gutun irabazlea

*Adiorik ez*

*Agurra besterik ez zait bururatzen, orain, gutun ezinbesteko honi hasiera emateko eta neure barrena asaskatzeko. Amodioa eta adioa nahasten zaizkidan honetan, eztia dastatu berritan: agurra.*

*Baiezkoa eman nien adiskideei Maria Schneider-en atzo iluntzeko kontzerturako proposamena egin zidatenean. Saioa bikaina iruditu zitzaidan eta, gero, nik egin nien kopa bat hartzeko gonbita. Antzoki parean bertan babestu ginen eta gauak bigarrengoz oparitu zidan zure presentzia. Aurrena, eszenategi gainean, harpan akupuntura egiten; eta, hurrena, barran, zure beso biluziak kristalean antxumaturik ikusi nituenean: Allegro.*

*Baiezkoarekin erantzun nien atzera adiskideei, ezagutzen ote zintudan galdegin zidatenean. Baina haiek bertakoa zintugula adierazi nahi zuten, gure kontserbatorioan ere ibili zinela, nahiz eta atzerrira jo behar izan zenuen harpa ikasketak egitera. Ordutik aurrera josi nizkizun begirakuneak desiozkoak iruditu omen zitzaizkizun zuri, baina aitor dut gehienbat jakinminezkoak zirela, nik zu ezagutu ez arren, bazelako zuregan zerbait, ez jakin zertan, ezaguna zitzaidana, haur denborako usain bat bezalakoa. (...)*

*Eta eskutik heldu didazu, harpari heltzen zenion delikatezia, finezia berberarekin. Baina preludioa besterik ez da izan, laster etorri baita zure gorputzaren terra incognitan barneratzeko eta kartografiatzeko proposamen desiozkoa. Bestelakoa. Eta hortxe agertu zait, gutxien ustean, memoriaren bidegurutze nahasgarria, ataka asaldagarria, hain zuzen ere zure ezker ipurmasaileko oreztari antzeman diodanean. Orduan oroitu dut zuregan bazela hasieratik ezaguna zitzaidan zerbait, haur denborako zapore bat bezalakoa, zeu bitarte beste norbait oroitarazten zidana: Andante. (...)*

*Agur hori besterik ezin bururatu, beraz, «Adiorik ez», etxera lehenbailehen itzuli, eta, nire nahasmenduan, ezinbesteko gutun hau idaztera eseri naizenean. Baina orain ezin jakin nori zuzendu edo bidali beharko niokeen: oraindik ere nire zaitudan zuri, zuk gogorarazi didazun horri, edo neure buruari berari. (...).*

*Adela, Juanjo, Angel agurgarriak:*

Patxi Zubizarreta

> aukeratzerakoan buelta handirik eman. Berak egiten duen lanaren garrantzia aldarrikatzen du Mari Domingik. Ilunabar batean ekin nion gutuna idazteari; afaria prestatzen hasi behar nuen, gutuna bukatu nahi baina denboraz justu nenbilen, eta erdi pipertuta ere bai. Azkenean, maitasun gutuna baino gehiago, gutun aldarrikatzailea idatzi nuen. Dena den, maitasun ukitua ere badu".

Eskarmentua dutenak eta idazten hasi berriak direnak batu ditu aurtengo edizioak ere. Orain dela urte asko lehiaketa bereko epaimahaikide izan zela dio Zubizarretak. Barberenak eta Elizondok ere aurkeztu izan dituzte aurrez lanak; azken hori izan zen 2001eko irabazlea. 18 urte besterik ez du, berriz, Bergarako lan onenaren saria eskuratu duen Ainhoa Pardinak. "Nesken arteko laguntasuna gaitzat hartuta, hitanoa erabiltzeko egin duen ahalegina nabarmendu dugu. Gazteentzako oso gertuko gutuna da", dio Urzelaik. Aipatzekoa da, era berean, Bergarakoak bost gutun aurkeztu dituela. "Iaz ere parte hartu nuen. Barruan nituen kezkak azaleratu ditut aurten. Gutun irabazlea lagun bati idatzitakoa da. Hitanoan idaztea erabaki nuen galtzen dabilela iruditzen zaidalako".

Estreinakoz aurkeztu da gazte sailaren saria jasoko duen Maria Oses 16 urteko arrasatearra. Ahizpari eskaini dio gutuna. "Bera egongo ez balitz bizitza nolakoa izango zatekeen imajinatu nuen. Hitzez esatea kostatzen zaidan hori guztiori adierazteko modu bat izan da", dio Osesek.

**Lehiaketa, idazteko akuilua**

24. urtea bete du aurten Jardunek antolatutako lehiaketak. Irabazleek asko eskertzen dute euskara elkarteak egiten duen apustua, erakusleiho ona izateaz gainera, idazten jarraitzeko akuilu aproposa dela argudiatuta. Guztiek diote sorpresaz eta pozik hartu dutela sariaren berri. Bostak izango dira bihar, zapatua, Irizar jauregian, 12:00etan egingo duten sari-banaketan. Askotarikoak dira saria inbertitzeko dituzten asmoak. "Hasteko, otsaileko autonomo kuota ordainduko dut", dio Patxi Zubizarretak. "Bat edo batek nire lepotik otorduren bat egin nahiko du, seguru", esan du Elizondok. "Etxeko alokairuaren zati bat ordaintzeko ondo etorriko zait", gaineratu du Barberenak. "Kapritxoren bat erosteko aprobetxatuko dut nik", erantzun du Osesek. Eta honako hau kontatu du Pardinak: "Nik baino behar handiagoa duen jende asko dagoela uste dut; horregatik, bada, sariaren zati bat eskaleei ematea pentsatu dut. Beste zatia egunero egiten dudan Bergara eta Gasteiz bitarteko hilabeteko autobus bidaiak ordaintzeko erabiliko dut".



*Begiradak dantzan* ikuskizunaren une bat. | EGAPE

# Urnietakoak eta Arrasatekoak Amaia antzokian dantzan

**A. A.** | ARRASATE

Urnietako Egape ikastolako dantza taldeak urtero egiten du santamas egunean Arrasaten emanaldia. Aurten ezin izan dira etorri, eta bihar, zapatua, Amaia antzokian eskainiko dute, 18:30ean, *Begiradak dantzan* ikuskizuna.

Urnietakoen aurretik, herriko bi taldetako 32 ordezkarik lau dantza egingo dituzte elkarrekin. Sarrera doan da.

**Estreinakoz herritik kanpo**

Iazko ikasturte amaieran ikastolan egin zuten saioa ekarriko dute gonbidatuek Amaiara. "Oso eskertuta gaude eman diguten aukeragatik. 15 eta 20 urte bitarteko 45 dantzariren artean hamabost koreografia egingo ditugu. Hiru taldetan banatuta, talde bakoitzak bosna koreografia egingo dituzte. Ez dugu istorio zehatz bat kontatzen baina koreografiak elkarrekin lotzen dituzten ardatz nagusi bat dago, hau da, dantzariek soinean duten antifaza. Hortik dator ikuskizunaren izenburua" azaldu du Edu Muruamendiarazek, Egape dantza taldeko koreografoak.

Euskal dantza tradizionalaren eta dantza garaikidearen arteko nahasketarekin osatutako ordubeteko saioa da. "Euskal Herriko txoko askotako dantza ezagunak gure erara moldatu ditugu. Ez duzue, bada, ohiko euskal dantza saio bat ikusiko".

# Verdiren 'Rigoletto' opera Amaia antzokian

**A. A.** | ARRASATE

Ozenki elkarte lirikoak antolatuta, otsailaren 24an, eguaztena, 20:00etan, Verdiren *Rigoletto* opera ikusteko aukera izango da. Urtarrilean jarri zituzten Opera 2001 konpainiaren emanaldirako sarrera guztiak salgai –aurreko asteko GOIENA paperean argitaratu zen oraingo astean elkarteak sarrera berri gehiago jarriko zituela–.

Antolatzaileen esanetan, sarreren salmenta oso ondo doa eta oraindik ere 140 daude eskuragarri. Ohiko bideetatik eros daitezke, 30 eurotan: Kutxabanken bidez, Amaia Antzokiko txarteldegian, *Arrasate.eus* atarian eta Ozenki elkarteari honako helbide honetara mezua bidalita: *ozenkielkartea@hotmail.es*.

**Parte hartu zozketan**

Goiena Klubeko kideek eta Arrasate Irratiko entzuleek bi gonbidapen eskuratzeko aukera izango dute. Datorren asteko zozketan parte hartzeko, idatzi mezua *kluba@goiena.eus* edo *irratia@goiena.eus* helbidera, edo deitu 943-25.05.05 telefonora.



# 'Amama' filmeko artelanak bertatik bertara ikusgai Bergarako Aroztegi aretoan

- Gaur inauguratuko dute erakusketa, 19:00etan
- Asier Altuna zuzendari bergararra han izango da



Maite Agirre, Maider Osa eta Asier Altuna erakusketa aretoan. | M.T.

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Gaur, otsailak 12, zabalduko dute Bergarako Barrenkaleko Aroztegi aretoan Asier Altunaren Amama filmaren gaineko erakusketa. Ateak seietan zabalduko dituzte eta inaugurazio ekitaldia, berriz, zazpietan izango da. Bertan izango dira, besteak beste, Altuna bera eta Kirmen Uribe idazlea -bere poema bat ikusgai dago erakusketan-. Otsailaren 28ra bitartean izango da Aroztegi aretoan.

Pelikulako aktoreak ageri diren argazki orijinalak, argazki-muntaiak, Super 8 formatuan grabatutako irudiekin egindako zazpi minutuko bideo bat, poema bat eta gidoiko hainbat sekuentziaren idatziak aurkituko dituzte, besteak beste, erakusketa ikustera gerturatzen direnek. Bestalde, filmean garrantzi berezia duen egurrezko ohea ere bertan jarri dute, baita arte galeriako sekuentzian agertzen den artelan abstraktua ere. Artelan hori Josean Iza bergarararrarena da, Altunaren lehengusuarena, hain zuzen. Horretaz gain, sarreran, ate ondoan, Altunak hasiera batean filma iragartzeko erabili nahi zuen kartela ere badago, azkenean beste bat erabili zuten arren. Lan guztiak filma ekoizten aritu den lantaldeak eginak dira: Javier Agirre, Sebastian Gomez, Mikel Serrano, Laurent Dufreche...

> **ESANAK**
>
> **"Jolas baten modura hasi ginen obra guztia sortzen"**
>
> ASIER ALTUNA | ZINEMAGILEA

"Amama pelikulako Amaia pertsonaia artista da, eta berak egindako argazkiak, muntaiak eta Super 8ko bideoak jarri ditugu", azaldu du Asier Altunak. Aipatutako bideo hori ikusteko gelatxo txiki bat egokitu dute aretoan.

### Lehen aldia

Erakusketa egitearena "jolas baten modura" sortu zela azaldu du zinemagileak: "Aktoreei argazkiak ateratzen hasi ginen eta poliki -poliki Amaiaren obra guztia sortzen joan ginen". Gaineratu du erakusketa bat prestatzen duen lehen aldia dela hau, eta "mundu polita" iruditu zaiola. Bestalde, aipatu du berezia dela bere jaioterrian jartzea erakusketa lehen aldiz. Oraingoaren ostean, Baionan eta Iruñean ere erakutsi nahi dute lana.

### *Amama* munduan barrena

*Amama* filmari dagokionez, pasa berri diren Goya sarietarako Iraia Elias aktorea -filmean Amaia pertsonaia jokatzen duena- izendatuta egon da, saririk lortu ez duen arren. Orain, Altunak eta haren taldekideak filma aurkezten dihardute batetik bestera.

Zuzendaria Norvegiatik itzuli berria da. Orain, Ipar Euskal Herriko aretoetan dago filma, eta datorren astean Ajaccion (Korsika) aurkeztuko dute, festibal batean. Horren ostean, Reykjaviken (Islandia) emango dute –Altuna bera han izango da–, eta ondoren Mexikon, Guadalajaran.

Bestalde, Aste Santuan Frantzian zehar ibiliko dira. Lyonen, Montpellierren eta Grenoblen aurkeztuko dute filma eta ondoren solasaldiak egingo dituzte. Hitzordu horietarako gogo bereziz azaldu da Altuna, "zinea asko zaintzen duen herrialdea" baita Frantzia, haren ustez.

Horretaz gain, hil honen 15ean, datorren astelehenean, hain zuzen, filma DVD formatuan eskuragarri izango da, baita Interneteko Filmin plataforman ere.

---

'GALDE GAZTE' GOIENA TELEBISTAN




Ezkerretik eskuinera: Jokin Bereziartua (aurkezlea), Pello Reparaz (Vendetta taldeko abeslaria, lehen gonbidatua), Bergarako Ipintza Institutuko ikasleak eta Oihane Isasi (errealizatzailea). | MONIKA BELASTEGI

**Debagoieneko udalek, ikastetxeek eta Goiena Komunikazio Taldeak elkarlanean landutako egitasmoa da *Galdegazte*, 14-18 urte arteko gazteei zuzendutakoa. Hauxe da lehen saioaren aurrerapena.**

## Vendetta barrutik ezagutzeko aukera

J.B. | ARRASATE

Vendetta taldeko *frontman* Pello Reparaz "oso gustura" sentitu da Goiena Telebistako *Galdegazte* saioan: "Ederra da ideia, oso polita. Benetan interesgarria da gazteek eurek egitea galderak, gazteak eurak izatea elkarrizketatzaileak. Saio honetan gazteen ikuspuntua bermatu egiten da; hala behar du, gainera". Telebistako platora sartu aurretik oso gogotsu zegoen musikari ezaguna: "Ez dut uste galdera arriskutsuak egingo dizkidatenik. Prest nago galdera guztiei erantzuteko".

### Bergarako Ipintza Institutua

Bergarako Ipintza Institutuko Paula, Ainara eta Ainhoa izan dira Vendettako abeslaria elkarrizketatu dutenak: "Elgetan emandako kontzertu baten ezagutu genuen eta ordutik jarraitzaile gara. Aukera oso ona da Vendetta eta Pello bera gertutik ezagutzeko", diote. "Oso urduri" egon arren, "gustura" amaitu zuten elkarrizketa. Reparazi hainbat konturen gainean galdetu diote Ipintzako ikasleek; tartean, otsailaren 27an Durangoko Landako gunean ospatuko den *40 minutu rock* jaialdiko kontzertuan abesti berririk entzuteko aukerarik egongo den.

Galdera sorta ederra prestatu dute, eta, horri esker, *13 Balas* diskoaren sorkuntza nolakoa izan zen, Vendettak aurten disko berririk aterako duen edota *Una canción por el Sahara* lehiaketa irabazi izanak zer ekarri zion jakin ahal izango dute ikus-entzuleek, besteak beste. Finean, Vendetta eta Reparaz bera hobeto ezagutzeko aukera ederra da.

Galde GAZTE

**SAIOA IKUSTEKO:**
GOIENA TELEBISTA
Eguaztena, otsailak 17
22:00etan.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Baserria salgai Arraga auzoan. Lursailarekin. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 615 71 02 07 edo 615 70 59 96

**Aramaio.** Bi logelako etxebizitza salgai. Guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua ditu. Errentan hartzeko aukera ere bai. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 679 45 57 62 edo 664 74 90 23

### 102. EROSI

**Baserria erosi.** Baserri bat erosi nahi da. Ez du axola baserriaren egoerak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 663 80 50 14

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Hiru edo bi logelako etxebizitza errentan hartuko genuke Arrasate erdialdean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 34 29 60

**Arrasate.** Hiru edo lau logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 34 00 17

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 46 19 26

**Baserria errentan.** Baserri bila gabiltza Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza inguruan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 28 99 06

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean, ahal bada Matxiategin edo San Lorentzon. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 76 32 72 (Ainhoa)

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan, bi logela eta berokuntzarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 82 45 52

**Bergara.** Hiru pertsonarendako modua etxebizitza behar dugu errentan. Bi logelakoa ondo legoke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

**Etxea errentan hartuko nuke.** Bergaran edo Deban etxea errentan hartuko nuke denbora luzerako. Pertsona bakarrarentzat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 675 00 93 22

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Erdigunean logela ematen da errentan. Telebistarekin eta sarrailarekin. Wifi konexioarekin. 603 14 28 89

**Arrasate.** Neska langilea logela bila. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 82 69 68

**Logela errentan Oñatin.** Logela errentan ematen da erdigunetik oso gertu dagoen duplex berri batean. Pertsona arduratsua eskatzen da. Wifi konexioarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 74 29 49

## 3. LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Lokala ematen da errentan alde zaharrean, Artekale 5ean. Bi solairukoa, guztira 150 metro koadro ditu. Errenta ekonomikoa. Negozioa jartzeko edo 18 urtetik gorako partikularrendako. Harremanetarako: 645 00 71 46

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**MEKANIKARIA**
Autoak konpontzen esperientzia duen mekanikaria behar da.
607 44 89 51

### 402. ESKAERAK

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Etxean bertan bizi izaten umeak eta nagusiak zaintzeko gertu nago. Baita nagusiekin paseoan irteteko ere. Zerbitzari moduan hiru urteko esperientzia dut. Gozoki eta arropa dendatan ere bai. Lan egin beharra daukat eta segituan hasiko nintzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 676 44 85 58

**Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza.** Erizain titulua daukan mutil euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Dependentziadun pertsonak zaintzen eskarmentuduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 69 98 13

**Arrasate.** 48 urteko emakume euskalduna, etxez etxeko zerbitzuko laguntzailea eta arlo horretan esperientziaduna, orduka nagusiei laguntzeko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 71 50 14 (Maribel)

**Arrasate.** 57 urteko emakume euskalduna gertu orduka edo egun osoz lan egiteko: pertsona nagusiak eta umeak zaintzen, etxeko lanak egiten eta abarrean. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943 79 60 89 edo 688 66 66 91

**Bergara edo Arrasate.** Esperientziadun neska gertu goizetan nagusiak zaintzeko. 696 84 19 51

**Bergara, Arrasate eta Oñati.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

**Bergaran eta inguruan.** Mutila sukalde laguntzaile moduan lan egiteko gertu. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 687 69 71 86 (Jesus)

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan formakuntza daukan gizona orduka lan egiteko prest. Goizetan edo gauetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 13 26 76

**Debagoiena.** Andrea prest adineko pertsonak zaintzeko, garbiketak egiteko edo sukaldari laguntzailea izateko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 691 03 25 02

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu nagusi eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo egun osoz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 94 31 60

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxe, atari eta abarrak garbitzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko. Esperientzia handia ostalaritzan. Gertu baita ere bestelako lanetarako. Autoa daukat. 663 43 92 53

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi edo gaixoak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 37 74 21

**Debagoiena.** Emakumea gertu zaintza lanak egiteko: etxean bertan bizi izaten, egunez eta baita gauak egiten ere. Harremanetarako: 672 98 20 91

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Nagusi edo umeak zaintzen, garbiketan edo etxeko lanak egiten. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita baserrietan ere. Lege agiriak dauzkat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 64 16 09

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile ikasketak dituen neska arduratsua, nagusiak edota laguntza behar duten pertsonak zaintzeko gertu. 620 23 58 15

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile titulua daukan mutil euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 622 69 98 13 edo 943 79 63 97

**Debagoiena.** Esperientzia eta erreferentzia onak dituen mutila zaintza lanetarako gertu. Etxeko lanak egiten eta bertako jana prestatzen ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Etxean bertan bizi izaten, gauak egiten, edo edozelako ordutegiarekin. 662 43 08 54

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu nagusi eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Autoa daukat. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita baserrietan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697 20 00 86

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke, zaintzan. Arrasaten bizi naiz.Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697 22 80 04

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 46 41 76

**Debagoiena.** Etxeko eta baserriko lanetan, nagusiak zaintzen zein denetariko garbiketak egiten lan egingo nuke. Bertan bizi izaten edo bestela. 608 49 89 95 (Judith)

**Debagoiena.** Garbiketan, nagusi eta umeak zaintzen edo sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. 634 84 41 94

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu: banaketak, garbiketak edo bestelakoak. Autoa daukat. 632 77 35 38

**Debagoiena.** Gizona prest margo lanak egiteko, zerbitzari edota adineko pertsonak zaintzeko. Tel.: 697 88 35 62

**Debagoiena.** Gizona zaintza lanak egiteko gertu. Autoa daukat eta ordutegi arazorik ez. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 09 55 46

**Debagoiena.** Lan bila nabil. Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten, baita garbitasun lanak egin ere. 40 urte ditut eta eskarmentua daukat antzeko lanetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 06 80 31

**Debagoiena.** Mutila gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Hiru urteko esperientzia daukat eta agiriak aurkez ditzaket. 678 25 95 46

**Debagoiena.** Mutila gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Umeak zaintzen, garbiketak egiten edo sukaldari laguntzaile ere lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 64 85 64

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko, mekanikari, ostalaritzan eta abarrean. Ikasketak ditut. Kontratuarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 674 50 83 61

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta sukaldean ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. 647 01 74 66 (Cristino)

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 30 12 37 (Arelis)

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608 89 32 50 (Dora)

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago. Arratsaldetan orduka edo asteburuetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 24 86 64

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen eta garbiketak egiten aritzeko gertu nago. Esperientzia daukat eta erreferentziak aurkez ditzaket. 686 44 70 38

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientzia dut eta erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 14 27 02

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. 617 72 94 98 (Rosario)

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 639 02 00 81 edo 632 98 17 79

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia daukat. Sukaldean ondo moldatzen naiz. Autoarekin. 660 90 51 50 (Argelis)

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, garbiketak egiten eta abarrean lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 35 54 96 (Carmen)

**Debagoiena.** Nagusiei laguntzen, umeak zaintzen, tailerrean, lantegiak garbitzen zein bestelako lanetan aritu izan naiz. Ordutegi aldetik arazo barik. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 615 06 28 04

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 85 44 78

**Debagoiena.** Neska gertu goizetan nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 655 15 36 59

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo gaixoak zaintzeko. Eskarmentu handia dut eta geriatria titulua. Bestela, etxeetan orduka zein jardun osoz ere lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 00 51 60

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko eta baita garbitasun lanak egiteko ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: Ordutegi arazo barik. 639 34 70 53

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Esperientzia daukat zerbitzari moduan. Garbiketan edo tailerretan ere arituko nintzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 09 37 90 (Eva)

**Debagoiena.** Neska zaintza lanetan aritzeko gertu. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 672 57 73 13

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen 6 urteko esperientzia daukan emakumea, etxeko lanetarako edo pertsonak zaintzeko prest. Aurretik lan egindako familiarekin hitz egiteko aukerarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 00 30 33

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen esperientzia daukan emakumea, orduka edo etxean bertan bizitzen lan egiteko prest. Aurretik lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666 07 49 24

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketa lanak egiten esperientzia daukan emakumea, orduka pertsona nagusiak edo garbiketa lanak egiteko prest. 632 85 12 14

**Debagoiena.** Urte askoan jendaurrean lan egindako emakumea lanerako gertu. Dendan edota nagusiak zaintzen, garbiketan eta abarretan ere lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izanda, jardun osoz edo orduka. Ordutegi arazo barik. 665 35 38 11 (Idalma)

**Neska gaztea haurrak zaintzeko.** Neska gaztea haurrak zaintzeko prest. Orduak eta egunak hitz egin behar dira. Udan ere lanerako prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 42 85 11

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Lizaria, 50m², 2 logela, Eraikuntza berria. Garajea barne. 197.000€. Eguzkitsua.
- Zabalotegi, 79m², 3 logela, igogailua, eguzkitsua. Ez du obrarik behar. 165.000€.
- Artzamendi, 7m², 3 logela, trastelekua eta garajea. 153.000€. Ez du obrarik behar.
- Aranerreka, 80m², 3 logela, trastelekua, igogailua. 130.000€. Garajea aukeran.
- Madura, 65m², 4 logela, bi balkoi. 110.000€. AUKERA ONA.
- Bidekurutzeta, 130m², 4 log, 320.000€. PREZIO JAITSIERA. Terraza, igogailua, patioa.
- Irizar, 93m², 2 logela, 2 balkoi. Erdialdean. 180.000€. PREZIO JAITSIERA.
- Ibargarai, 105m², 4 logela, balkoia. 420.000€. Garajea aukeran.
- Artekale, 83m², 3 logela, trastelekua eta igogailua. 155.000€ AUKERA ONA.
- Ernai, 52m², atikoa, 2 logela eta terraza handia. Etxebizitza tasatua. 178.000€.
- San Lorenzo, 85m², 3 logela, garajea eta trastelekua. 150.000€.
- Koldo Eleizalde, 74m²+30m² ganbara, duplexa egiteko aukera 170.000€.
- Koldo Eleizalde, 76m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000€. NEGOZIAGARRIA.
- Koldo Eleizalde, 87m², 3 logela, oso ondo apaindua. Fatxada berriztua. 210.000€.
- Burdiñate, 93m², 3 logela, igogailua. 210.000€. PREZIO JAITSIERA. Garajea aukeran.
- Masterreka, 7m², duplexa. 150.000 € ESTREINATZERA. AUKERA ONA.
- Simon Arrieta, 68m², 2 logela, 80 m2ko terrazarekin. 132.600€.
- Simon Arrieta, 82m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000€.
- Zubieta, 125m², terraza eta 2 orturekin. Bi etxe egiteko aukera. 192.000€.
- San Pedro, 90m², 4 logela. 95.000€. AUKERA ONA.
- Zabalotegi, 80m², 2 logela, berriztua. 156.263€.
- Zabalotegi, 62m², 3 logela. Berritzeko. 80.000€.
- Artekale, 108m², 3 logela. 120.000€. OSO OSO NEGOZIAGARRIA.
- San Antonio, 86m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000€.
- Zubiaurre, 60m², 2 logela, trastelekua eta igogailua. 98.000€. AUKERA ONA.
- Ibarra, 62m², 3 logela. Trastelekua. 86.000€. PREZIO JEITSIERA. AUKERA ONA.

**ANGIOZAR:**
- Etxebizitza, 60m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000€.
- Baserria, 233m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko baimenarekin. 250.000€.
- Erretegia alokairuan. Erretegi bezala erabiltzeko dena hornitua eta martxan.

**OSINTXU:**
- Osintxu, 85m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu, 61m². 3 logela eta ganbara. BERRIZTEKO. 43.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu, 70m². 2 logela eta igogailua. 62.000€. AUKERA BIKAINA.

**ANTZUOLA:**
- Buztin-zuri, 65m², 2 logela. Ez du obrarik behar. 180.000€. Garajea aukeran.
- Errekalde, 78m², 3 logela, Berriztua. 130.000 €. Garajea aukeran.
- Ibarrondo, 90m², 3 logela. Trastelekua, eguzkitsua. 190.000€. Garajea barne.

**ELGETA:**
- Gudarien Bidea, 75m², berritzeko. 72.000€. AUKERA BIKAINA.
- Torrealdea, 77m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150m² + 45m² garajea + 90 m² lursaila.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Txinerako eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. Egubakoitzetan, 17:00etatik 18:30era izango litzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 40 55 95

**Ingelesa.** Ingeles eskolak jasoko nituzke Bergaran. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646 36 68 02

## 6. MOTORRA

### 602. EROSI

**Autokarabana erosiko nuke.** 10.000 euro baino gutxiagoko autokarabana erosiko nuke. Zaharra bai, baina barrutik zein mekanika aldetik ondo zaindua behar du. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660 43 64 29

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Arrasate.** 2.400 metro koadroko eraikigarria ez den lursaila salgai Makatzena auzoan. 15 metro koadroko zementuzko etxola eta komuna dauka. Ureztatze sistema dauka, frutadun eta basoko zuhaitzekin. Hesidun lursaila eta autoa sartzeko sarbidearekin. 60.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608 66 86 81 edo joxanaupatu@yahoo.es

### 802. EROSI

**Borda.** Borda erosiko nuke Bergara inguruan. Iristeko bide egokiarekin eta ura badago, hobeto. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646 36 68 02

### 806. GALDU

**Betaurrekoak Arrasaten.** Graduatutako betaurrekoak galdu ditut Arrasaten. Silhouette etxekoak, estutxe gogor beltz baten barruan. Aurkitu badituzu, deitu mesedez zenbaki honetara: 634 40 14 28

**Mugikorra galdu dut Bergaran.** Samsung etxeko mugikorra galdu nuen otsailaren 2ko iluntzean Artzamenditik plazara bidean. Aurkitu baduzu, mesedez, deitu zenbaki honetara: 943 76 05 54

**Txamarra trukatuta Oñatin.** Otsailaren 6an, zapatuan, nire txamarra hartu eta beste bat laga zuten Oñatiko Txaketua tabernan. Beltzak eta iledun txanodunak dira biak; baina nire lumazkoa da. Nire itzuli eta zure hartzeko, deitu zenbaki honetara mesedez: 662 04 46 80

## 9. HARREMANAK

### 903. DEIAK

**Alemana praktikatzeko Bergaran.** Alemana praktikatu ahal izateko, taldea sortu dugu Bergaran. Oraingoz, egubakoitzero elkartzen gara 18:30etik aurrera. Gurekin alemanez berba egiteko interesa baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan. 663 65 76 06 edo maitemugica@yahoo.es

## ZORION AGURRAK



ARRASATE
**Nahia Corral Aceiton**
Otsailaren 18an, 7 urte. Zorionak eta patxo handi bat familia osoaren partetik!



ARRASATE / BERGARA
**Noa Laiseka Leturia eta Garazi eta Libe Ugarte Leturia**
Otsailaren 18an, 7 urte. Zorionak, hirukote! Jada 7 urte; ze handi zareten! Txokolatadarako prest? Ondo-ondo pasatu zuen eguna eta patxo handi bat. Naroa, Jon, Ximun, Hur, aitatxo, amatxo, aitaita eta amamak eta tia, tio,... Eta danon partetik!



ARETXABALETA
**Izaro Maskariano De San Justo**
Otsailaren 15ean, 4 urte. Zorionak, maitxia. Oso ondo pasatu zure eguna. Maite zaitugu. Aitatxo, Aner eta amatxo.



ARETXABALETA
**Jare Berezibar Epelde**
Otsailaren 14an, 7 urte. Zorionak, Jare! Ondo-ondo pasatu zure zazpigarren urtebetetzean. Musu handi bana familixako danon partetik.



OÑATI
**Uxue eta June Iñurritegui Inza**
Otsailaren 13an, 6 urte. Zorionak, familiako danen partetik! Muxu handi bana!



OÑATI
**Kepa Oses Egaña**
Otsailaren 13an, 5 urte. Zorionak, polit hori! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo pila bat, familiakoen eta, batez ere, Uxueren, Jakesen eta Iratiren partetik. Maite zaitugu.



BERGARA
**Kemen Bilbao Alvarez**
Otsailaren 13an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eta zorionak beti! Patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
**Malen Gartziaetxabe eta Nerea Olmedo**
Otsailaren 12an, Nereak 34 urte eta otsailaren 14an, Malenek 4 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen eguna. Marrubizko laztan bana, etxekuen partetik.



ARRASATE
**Sergio Hernando**
Otsailaren 12an, 39 urte. Zorionak, Sergio! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat, zure familiaren partetik!



OÑATI
**Beñat Larrea Negeruela**
Otsailaren 12an, 4 urte. Zorionak, Beñat. Lau patxo handi etxeko danon partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Pa!



ARETXABALETA
**Manex Arriaran Oyanguren**
Otsailaren 12an, 6 urte. Zorionak, Manex! Azkenien heldu da hainbeste espero zauen eguna! Ondo-ondo ospatu eta ea opari asko jasoten dozun! Musutxuak!



BERGARA
**Ane Elkoroberezibar Rivas**
Otsailaren 11n, 9 urte. Zorionak familia guztiaren partetik. Ondo pasatu eguna eta jarraitu beti bezain alaia izaten.



OÑATI
**Elene Aramendi Fuente**
Otsailaren 10ean, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, etxekoen eta Oihanen partetik.



BERGARA
**Noa Revilla Urrutia**
Otsailaren 10ean, 2 urte. Zorionak, maittia! Patxo pila bat etxekoen eta, bereziki, Ainararen partetik.



OÑATI
**Felisa Aiastui Bikuña**
Otsailaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, Maiñako familia osoaren partetik.



ARETXABALETA
**Silvia Herrera Fernandez**
Otsailaren 10ean, 41 urte. Zure eguna dela-eta, zoriontsu izan zaitez. Bihotz-bihotzez muxu handi bat eta 41 belarri tirakada zure familiaren izenean.



OÑATI
**Eki Gartzia Aiastui**
Otsailaren 9an, 4 urte. Zorionak, potxolo, etxeko denon partetik! Ondo pasatu!



ARRASATE
**Jurgi Unamuno Garcia**
Otsailaren 9an, 5 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik. Jarraitu gure bizitzak alaitzen. Muxu handi-handi bat.



OÑATI
**Julen Aranburu Gomendio**
Otsailaren 8an, 12 urte. Zorionak, Julen! Dagoeneko 12 urte! Ondo-ondo ibili zure urtebetetze egunean eta muxu handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Intza Esnaola Osinaga**
Otsailaren 7an, 4 urte. Zorionak, *guapa*! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea eguna. Patxo potolo bat, etxeko danen partetik.




ARETXABALETA
**Jokin Jausoro Zubizarreta**
Otsailaren 6an, 2 urte. Zorionak! Etxeko danen partetik, patxo pila bat.



ARETXABALETA
**Iratz Berezibar Epelde**
Otsailaren 5ean, 4 urte. Zorionak zure laugarren urtebetetzean. Besarkada handi bat eta musu pila bat, familiakoen partetik.



ARRASATE
**Elene Loiti eta Ane Barrenetxea**
Anek urtarrilaren 30ean eta Elenek otsailaren 5ean, 9 urte. Zorionak! Segi horrelako jator, bikote! Muxu handi bat lagunen eta familia osoaren partetik.



ARETXABALETA
**Albina Errasti Zumalde**
Otsailaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, Maiñako familiaren partetik.



ARRASATE
**Ander Urrutia**
Otsailaren 4an, 21 urte. Nahiz eta berandu, azkenean heldu da zure eguna. Zorionak zure lagun pazientziadunen partetik.



ARRASATE
**Carmen eta Maria Murillo Delgado**
Otsailaren 2an, 12 urte. Amaren partetik, txapeldunak izateagatik eta asko maite zaituztedalako, zorionak eta patxo handi bat.



BERGARA
**Unax Bakerin Zabaleta**
Urtarrilaren 31n, 9 urte. Zorionak etxekoen eta lagunen partetik!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.
**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

# ASTEA GOIENAN


GOIENA

## 'Beltzean mintzo' ikus-entzunezkoa

Garabidek aurkeztutako *Beltzean mintzo: Ameriketako jatorrizko hizkuntzen arnasaz* dokumentala eskainiko da martitzenean. Zazpi hizkuntza komunitatetako hamalau pertsonak euskararen herriari buruzko gogoetak eskainiko dituzte.

**'Beltzean mintzo'**
Martitzena, 22:00


GOIENA

## Euskal kulturgintza berbetagai

MUk Euskal Kulturgintzaren Transmisio aditu tituluko saioen harira jasotako lehenengo gogoeta sorta eskainiko da eguenean, kulturgintzaren egoerari buruz. Parte hartuko dute, besteak beste, Jon Sarasua soziologoak eta Kike Amonarriz soziolinguistak.

**'EKT'**
Eguena, 22:30

## GOIENA TELEBISTA

### EGUBAKOITZA, 12

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Ur eta lur
**13:00** Korapilo
**13:30** Jaiak: Aratusteak 2016
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Zaindu zaitez
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Sagarrondotik
**17:30** Ikusi irratia
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Kantari
**19:30** EKT
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Jaiak: Aratusteak 2016
**23:30** Jaiak: Aratusteak 2016
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

### ZAPATUA, 13

**10:00** Korapilo
**10:30** Kantari
**11:00** Debagoiena zuzenean
**12:00** Astea iruditan
**12:05** Jaiak: Aratusteak 2016
**12:55** Zorion Agurrak
**13:00** Ihauteriak 2016
**13:40** Ihauteriak 2016
**14:30** Hurbilean
**15:00** Debagoiena zuzenean
**16:00** Astea iruditan
**16:05** Platopic
**16:30** Kantari
**17:00** Korapilo
**17:30** Amaia DJ
**18:00** Bertso saioa
**19:00** Debagoiena zuzenean
**19:55** Astea iruditan
**20:00** Kantari
**21:00** Jaiak: Aratusteak 2015
**21:50** Astea iruditan
**22:00** Debagoiena zuzenean
**23:00** Aratuste kontzertua
**00:00** Kontzertua: Gautxori
**00:50** Debagoiena zuzenean
**01:50** Astea iruditan

### DOMEKA, 14

**10:00** Korapilo
**10:30** Kantari
**11:00** Platopic
**11:15** Aratuste kontzertua
**12:30** Debagoiena zuzenean
**13:30** Astea iruditan
**13:35** Ertzak
**14:00** Jaiak: Aratusteak 2016
**14:50** Ihauteriak 2016
**15:30** Ihauteriak 2016
**16:00** Amaia DJ
**16:30** Kantari
**17:00** Korapilo
**17:30** Platopic
**18:00** Aratuste kontzertua
**19:30** Debagoiena zuzenean
**20:30** Astea iruditan
**20:40** Jaiak: Aratusteak 2016
**21:30** Debagoiena zuzenean
**22:30** Astea iruditan
**22:35** Amaia DJ
**23:00** Debagoiena zuzenean
**00:50** Bertso saioa

### ASTELEHENA, 15

**12:00** Debagoiena zuzenean
**13:00** Korapilo
**13:30** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Jaiak: Aratusteak 2016
**17:45** Ihauteriak 2016
**18:30** Berriak
**19:00** Kantari
**19:30** Amaia DJ
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harmailatik
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Jaiak: Aratusteak 2016
**00:20** Debagoiena zuzenean
**00:50** Berriak
**01:20** Harmailatik

### MARTITZENA, 16

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Harmailatik
**13:00** Ertzak
**13:30** Kantari
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harmailatik
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ertzak
**17:30** Geure altxorrak
**18:00** Platopic
**18:30** Berriak
**19:00** Korapilo
**19:30** Harmailatik
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Dokumentala: Beltzean mintzo
**22:50** Debagoiena zuzenean
**23:20** Berriak
**23:45** Harmailatik
**00:15** Dokumentala: Beltzean mintzo

### EGUAZTENA, 17

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Dokumentala: Beltzean mintzo
**13:30** Korapilo
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Dokumentala: Beltzean mintzo
**16:00** Zaindu zaitez
**16:30** Berriak
**17:00** Kontzertua: Gautxori
**18:00** Harmailatik
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Dokumentala: Beltzean mintzo
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Galdegazte
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Dokumentala: Beltzean mintzo
**23:45** Harmailatik
**00:20** Debagoiena zuzenean
**00:50** Berriak

### EGUENA, 18

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Galdegazte
**13:00** Ertzak
**13:30** Kantari
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Onein
**15:30** Hurbilean
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Galdegazte
**17:30** Ertzak
**18:00** Ur eta lur
**18:30** Berriak
**19:00** Korapilo
**19:30** Galdegazte
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Aramaio ezagutzera nator!
**22:30** EKT
**23:00** Debagoiena zuzenean
**23:30** Berriak
**00:00** Galdegazte
**00:30** Debagoiena zuzenean
**01:00** Berriak

## ARRASATE IRRATIA

### Vanesa Gonzalez ipuin kontalaria asteleheneko saioan

Astean Arrasaten egingo dituen ipuin kontaketen inguruan hitz egingo du Vanesa Gonzalez ipuin kontalari arrasatearrak astelehenean *Igo autobusera!* irratsaioan 11:00etan. Goiena telebistako *Korapilo* saioko aurkezlea ere bada eta horren gainean ere jandungo du hizketan.

### 'Heroiak' antzezlana ikusteko sarrerak zozketatuko dira

Ander Lipusek zuzendutako *Heroiak* antzezlanerako sarrerak zozketatuko dira hurrengo egubakoitzean Arrasate Irratian. Hilaren 21ean 19:30ean izango da Amaian, eta zozketan parte hartu nahi izanez gero, 943 25 05 05era deitu edo *irratia@goiena.eus*-era idatzi beharko da.

# GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 12** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea, 1 | 943 79 22 26 |
| **Zapatua, 13** | IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Domeka, 14** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea, 1 | 943 79 15 15 |
| **Astelehena, 15** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Martitzena, 16** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **Eguaztena, 17** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea, 38 | 943 77 16 30 |
| **Eguena, 18** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea, 1 | 943 79 15 15 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 12** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Zapatua, 13** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Domeka, 14** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Astelehena, 15** | OIARBIDE | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Martitzena, 16** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Eguaztena, 17** | ALVAREZ MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| **Eguena, 18** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 12** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Zapatua, 13** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Domeka, 14** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Astelehena, 15** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Martitzena, 16** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguaztena, 17** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Eguena, 18** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |

**Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

# EGURALDIA ASTEBURUAN

## DEBAGOIENA



Max. 14º
Min. 8º

**ZAPATUA, 13**
Eguraldi euritsua espero da zapaturako, ez da ostarterik zabalduko eta tenperaturak behera egitea espero da.



Max. 13º
Min. 7º

**DOMEKA, 14**
Euria egiten jarraituko du domekan ere eta zerua estalita egongo da. Litekeena da tenperatura pixka bat gehiago jaistea.

## EUSKAL HERRIA




# GAZTE INFORMAZIOA

### EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN

**Eusko Jaurlaritza.** Udako hilabeteetan garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetza lanak egiteko Eusko Jaurlaritzako programa da. 23-30 urte arteko gazteei zuzenduta. Epea: otsailak 22.

### LANA

**Osasun eta gizarte zerbitzu-burua.** Tolosako Udala. Baldintzak: gizarte lanean diplomatura edo gradua, prestakuntza espezifikoa, euskara 4 HE. Azken eguna izango da: otsailak 25.

**Irakaskuntza.** Eusko Jaurlaritza. DBHn aritzeko 577 plaza. Epea: otsailak 29.

**Teknikariak.** Bizkaiko Foru Aldundia. Goi mailako teknikarien 35 plaza betetzeko deialdia (23 txanda askean). Baldintzak: gradua zientzia politikoetan, zuzenbidean, ekonomi zientziatan, enpresa zientziak. Azken eguna izango da: otsailak 17.

**Ikertzaileak.** Ikerbasque. 15 kontratu ikertzaile gazteentzat. Baldintzak: doktoretza osteko 15 kontratu Euskadiko ikerketa-zentroren batean aritzeko (unibertsitateetan, ikerkuntza zentroetan, biomedikuntza-eta teknologia-erakundeetan, besteak beste). Azken eguna izango da: apirilak 4.

### BEKAK

**Masterrak edo doktoretzak.** Boiseko Unibertsitatea. Baldintzak: ingeniaritza, informatika, fisika, kimika, biologia, geologia tituluak; ingeles maila altua. Azken eguna izango da: otsailak 15.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate.eus
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

ESKER ONA

## Julian Ayerbe Jauregui



2016ko otsailaren 5ean hil zen, 79 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Haren aldeko meza domekan izango da, otsailaren 14an, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.
Bertaratuko zaretenoi, aurrez eskerrik asko.

**Arrasaten, 2016ko otsailaren 12an.**

ESKER ONA

## Pako Sasieta Bolinaga



2016ko urtarrilaren 30ean hil zen, Benidormen, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Bergaran, 2016ko otsailaren 12an.**

ESKER ONA

## Jose Antonio Cid Freitas



2016ko otsailaren 7an hil zen, 50 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,*
*ez zaitugu inoiz galduko,*
*gure bihotz barrenean*
*eramango zaitugu betiko.*

**Antzuolan, 2016ko otsailaren 12an.**

URTEURRENA

## Bixenta Aguirrebengoa Gabilondo



Simon Markuletaren alarguna

2015eko otsailaren 8an hil zen, 101 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, otsailaren 13an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2016ko otsailaren 12an.**

URTEURRENA

## Begoña Sorotegi Kortazar



Angel Gabilondoren alarguna

2015eko otsailaren 11n hil zen, 88 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 14an, 11:30ean, Aretxabaletako Jasokundeko amaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Aretxabaletan, 2016ko otsailaren 12an.**

URTEURRENA

## Jose Miguel Egaña Garrastazu



2015eko otsailaren 13an hil zen, 52 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 14an, 11:00etan, Antzuolako Errukizko amaren parrokian.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko*
*ez zaitugu inoiz galduko*
*gure bihotz barrenean*
*eramango zaitugu betiko.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Antzuolan, 2016ko otsailaren 12an.**

OROIGARRIA

## Javier Alkorta Osoro



2014ko otsailaren 10ean hil zen, 66 urte zituela.

*Beti izango zaitugu gogoan.*

**Bergaran, 2016ko otsailaren 12an.**

## HILDAKOAK

**Pako Sasieta Bolinaga.** Bergaran, urtarrilaren 30ean. 83 urte.
**Frantzisko Canelo Ibañez.** Arrasaten, otsailaren 3an. 80 urte.
**Maria Teresa Telleria Olañeta.** Bergaran, otsailaren 4an. 80 urte.
**Maria Angeles Arakama Diaz.** Aretxabaletan, otsailaren 5ean. 79 urte.
**Rosa Fernandez Berriozabal.** Bergaran, otsailaren 5ean. 70 urte.
**Luis Arregi Liziaga.** Arrasaten, otsailaren 5ean. 75 urte.
**Julian Aierbe Jauregi.** Arrasaten, otsailaren 5ean. 79 urte.
**Felipe Gorosmendi Egiguren.** Arrasaten, otsailaren 6an. 93 urte.
**Tomasa Jauregi Lizarralde.** Antzuolan, otsailaren 7an. 82 urte.
**Jose Antonio Cid Freitas.** Antzuolan, otsailaren 7an. 50 urte.
**Purita Barrena Arregi.** Bergaran, otsailaren 8an. 92 urte.
**Florentzia Gartzia Manso.** Arrasaten, otsailaren 8an. 94 urte.
**Aureli Iriarte Urrutia.** Arrasaten, otsailaren 9an. 79 urte.
**Felix Arruti Rekondo.** Bergaran, otsailaren 9an. 80 urte.
**Martina Artano Sagastume.** Bergaran, otsailaren 10ean. 87 urte.

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*



**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**

**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**BERGARA** Jardun elkartea: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Los odiosos ocho**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Pinocho y su amiga Coco**
Domeka: 17:00.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**Un dia perfecto**
Domeka: 19:30.

**Atrapa la bandera**
Domeka: 17:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**La gran apuesta**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**El capitan Diente de Sable**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**Sufragistas**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Koko dragoi txikia**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

**COLISEO**

**Embarazados**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**El renacido**
Zapatua: 19:15, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Zoolander**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**ANTZOKIA**

**Zoolander**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Paperezko hegazkinak**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### GASTEIZ

**FLORIDA**

**El renacido**
Egubakoitzetik domekara: 18:40, 21:35.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:00.

**Zootropolis**
Egubakoitzetik domekara: 16:40, 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 21:00.

**La juventud**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

**La chica danesa**
Egubakoitzetik domekara: 17:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Zoolander**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:00, 22:30.
Astelehena eta eguaztena: 17:30, 20:00.
Martitzena eta eguena: 17:30.

**A cambio de nada**
Egunbakoitzetik domekara: 16:25.
Astelehenetik eguenera: 19:15.

**Carol**
Egubakoitzetik domekara. 18:10, 20:20, 22:30.
Astelehenetik egugnera: 17:00.

**Spotligth**
Egubakoitzetik domekara: 20:00.
Martitzena eta eguena: 21:00.

**Pesadillas**
Egubakoitza: 16:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**La ley del mercado**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 20:45.

**Truman**
Egunbakoitzetik domekara: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**La gran apuesta**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 21:00.

**La verdad duele**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00.
Martitzena: 17:30.

**El gran dia (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Alvin y las ardillas**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**BOULEVARD**

**Zootropolis**
Egubakoitzetik domekara: 15:45, 18:00, 20:15.
Egubakoitza: 17:30, 19:45.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:15.

**Zootropolis 3D**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 21:30.

**Zoolander**
Egubakoitzetik domekara: 18:10, 20:20, 22:30.
Zapatua: 00:40.
Zapatua eta domeka: 16:00.

**La verdad duele**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

**Mejor...solteras**
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 20:00, 22:15.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**El renacido**
Zapatua: 23:30.
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 19:00, 20:30, 22:00.
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Alvin y las ardillas**
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 19:45.
Zapatua eta domeka: 15:45.

**La quinta ola**
Egubakoitza eta domeka:15:30, 17:50.
Zapatua: 15:30, 17:50, 20:10.

**La leyenda de Rocky**
Egubakoitzetik domekara: 19:40, 22:20.

**La chica danesa**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.

**Truman**
Egubakoitza eta domeka: 20:10.

**La novia**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Pesadillas**
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 20:00.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Carol**
Zapatua: 00:35.
Egubakoitzetik domekara: 22:20.

**El viaje de Arlo**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Embarazados**
Egubakoitzetik domekara: 17:30.

**Carlitos y Snoopy**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Spotligth**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.

**Los odiosos ocho**
Zapatua: 23:45.

**Palmeras en la nieve**
Egubakoitzetik domekara: 21:45.ww

## KRITIKA

# Gizartearen oinarriak

**SPOTLIGHT** ★★★☆☆
**Zuzendaria:** Thomas McCarthy.
**Herrialdea:** AEB.
**Aktoreak:** Michael Keaton, Mark Ruffalo, Rachel McAdams.

The Globe Bostongo egunkari ospetsua da. Eta egunkariaren barnean Spotlight delako ikerketa talde bat dago. Interes handiko gaiak aukeratzen dituzte horien jarraipen eta ikerketa sakona egiteko. 1990eko hamarkadan egunkarira heltzen den editore berriak hiriaren eta gizartearen oinarriak astinduko dituen ikerketa bultzatuko du. Hiriko eliza katolikoaren barnean apaiz pederasta pila bat dago. Eta elizaren boterea handia denez, gertatutakoa banakako kasuak izango balira bezala aztertzea lortuko du: ezkutuan abokatuekin tratuak itxi dituztelako, sexu-abusuak jasan dituztenek euren traumak isilean eta gordeta mantendu nahi izan dituztelako edo ez dutelako aurkitu euren istorioak entzuteko prest dagoen jenderik. Azken finean, elizaren ekintzak ezkutuan geratu izan dira, hiriburu osoak, The Globe egunkaria barne, beste aldera begiratu duelako. Baina une baten, mugimendu bat sortuko da egunkarian, eta Thomas McCarthyren filmak begiak zabalduko dituen ikerketa prozesua xehetasun osoz azalduko du.

*Spotlight* filmak duintasun profesionalari buruz hitz egiten du. Askotan, komunikabideek sentsazionalismoa saltzen dute, ez dituzte gauzak behar bezala ikertzen, eta informazioa azkar kaleratzen da datuak behar den bezala egiaztatu barik. Filmak, lana ondo egin den kasu bat azaltzen du. Baina *Spotlight* ez da thriller bat. Ez dago abiadura handiko auto jazarpenik, ezkutatutako mikrofonorik, ezta tiroketarik ere. Dena arruntagoa da. Kasuan inplikatuta dauden guztiekin kontaktatzen ahaleginduko da kazetaria, eta hainbat artxibotan begiratuko du informazioa behar den bezala lantzeko. McCarthyren estiloa zuzena eta zehatza da. Kazetarien kroniken estilora hurbiltzen da: apaindura gutxikoa, informazio argia ematen duena. Ikuskizunetik ihes egiten du, kazetaritzak zer izan behar duen erakusteko.

ANTONIO ZABALA

# NON-ZER

OTSAILA **12**
OTSAILA **18**

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**OÑATI Bi Bala taldea**
Bertso-rock doinuak entzuteko aukera. Musikari eta hitzei garrantzia emanez grabatu dute *Gure heroiak* diskoa. Aurkezpen birako emanaldia egingo dute.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

**ARRASATE Anger eta FlyShit taldeak eta Basarana eta Pontxe DJak**
Anger arrasatearrek *Sute perfektua* biraren amaiera kontzertua egingo dute. Emanaldia bergararrek hasiko dute eta DJek bukatuko dute.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

**ARRASATE Aggressive Combat eta Hexen taldeak**
Oi! eta street punk doinuak izango dira nagusi. Sarrera, doan.
Bihar, zapatua, Jai Zale tabernan, 18:00etan.

**BERGARA Oscar Candendo Zabala**
Stoltz-Freres organoaren konponketarako dirua batzeko kontzertua. Sarrerak, bost euro.
Etzi, domeka, Santa Marinan, 19:00etan.

## ERAKUSKETAK

**ARRASATE Arbolapeta eta Muzibar arteko kalea berrantolatzeko aukerak**
Otalora Lizentziaduna kalea berrantolatzeko 21 proposamen ipini dituzte ikusgai. Udalaren webgunean ere ikusgai daude plano guztiak.
Otsailaren 18ra arte, Kulturaten.

**BERGARA Isidro Monzonen arkitektura**
Hainbat argazkiz, marrazkiz eta planoz osatutako erakusketa da. Monzonek bere eraikinak paisaian nola txertatu zituen erakusten du.
Martxoaren 13ra arte, Laboratorium museoan.

**BERGARA 'Amama' erakusketa**
Asier Altunaren pelikularen gaineko erakusketa. Filma egin duen taldeko kideek egindako lanak egongo dira ikusgai; besteak beste, argazkiak, bideoak edota gidoiko sekuentziak. Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute.
Otsailaren 28ra arte, Aroztegin.

**ARETXABALETA 'Elkarlanean gizarteratzen'**
Gu Haziak Gara elkartearen erakusketa. Aste bukaeretan egongo da zabalik.
Otsailaren 26ra arte, Arkupen.

**ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'**
Bixente Barandiaranen lanak, eta burdinak Arrasaten izandako eragina ikusgai.
Harresi aretoan ikusgai

## ANTZERKIA

**BERGARA 'Amodioaren ziega'**
Lauka teatroaren helduentzako lana. Preso dagoen Aitorren eta bisitan joaten zaion Miren bikotekidearen istorioa kontatzen du. Nazaret Froufe, Urki Murgurutza, Joana Ocaña eta Eneko Sagardoy oholtza gainean. Sarrerak, zortzi euro.
Bihar, zapatua, Zabalotegin, 20:00etan.

## HITZALDIAK

**OÑATI Mexikoko herri indigenak**
Iaz Chiapasen brigadista gisa egon zen Ane Zendegi oñatiarrak hitzaldia egingo du.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 18:30ean.

**ARRASATE Testamentuak eta oinordetzak**
Testamentuetan eta oinordetzetan dauden berrikuntzak, auto-tutoretza eta bizi-testamentua izango ditu hizpide Jose Luis Amerigok.
Otsailaren 15ean, Kulturaten, 18:30ean.

**OÑATI 'La empatía en las personas'**
Oñatiko parroko Joxan Larrañagaren hitzaldia.
Otsailaren 16an, Pake Lekun, 17:30ean.

**OÑATI 'Torturaren ikerketa proiektua'**
Auzitegiko mediku Pako Etxeberriaren hitzaldia.
Otsailaren 18an, Santa Anan, 19:00etan.

## DANTZA

**ARRASATE Egape taldea**
*Begiradak dantzan* delako emanaldia egingo dute, Santamas Komisiñoak gonbidatuta. Arrasateko Lore Gazteak eta Arrostaitz taldeek parte hartuko dute emanaldian. Sarrera, doan.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 18:30ean.

## GAZTELEKUAK

**OÑATI Kuboa apaindu**
*Otsail musikala* girotzeko apainketa lanak egingo dituzte otsailaren 12ra arte.
Aipatutako egunetan, 17:00etan.

**ARRASATE Mahai-jolasak**
Askotariko joko eta jolasak egingo dituzte zapatuan eta domekan: kooperatiboak, tradizionalak, bizkortasunezkoak, estrategiazkoak...
Aipatutako egunetan, erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.

**ESKORIATZA Sukaldaritza tailerra**
Askotariko platerak prestatzen ikasiko dute.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 16:30ean.

**ESKORIATZA Bidaien kronikak**
Egindako bidaien kontakizuna egingo dute gazteek: argazkiak, pasadizo ezberdinak...
Etzi, domeka, gaztelekuan, 16:30ean.

**BERGARA Eskiatzera**
Martxoaren 5ean eguneko irteera egingo dute Valdezcarayra, 12-17 urte artekoendako. Bergararrek lehentasuna izango dute. Izena emateko epea zabalik dago Xabaloten eta Jardunen.
Aipatutako lekuetan, egunero.

## UMEAK

**ESKORIATZA Karaoke eta dantza saioa**
Kantuan eta dantzan egiteko aukera izango dute umeek.
Gaur, egubakoitza, ludotekan, 17:30ean.

**ARRASATE Ludoteka ibiltaria**
Bi hezitzaile egongo dira umeei lagun egiten eta eurekin jolasten. Otsaileko hiru zapatuetan eta martxoko lehenengoan egingo dituzte ekintzak.
Bihar, zapatua, Musakolako ludotekan, 10:30ean.

**OÑATI Ludoteka ibiltaria**
3-10 urte arteko umeendako jokoak eta jolasak.
Bihar, zapatua, Olakuako dorrean, 10:30ean.

**ELGETA 'Sormening' tailerra**
Familia osoarendako sormen tailerra, Onditz Mendizabal elorriarrak gidatuta.
Etzi, domeka, Espaloian, 11:30ean.

**ESKORIATZA 'Zuk zeuk sortu panpina' tailerra**
Etxeko materialekin panpinak nola egin ikasteko aukera.
Otsailaren 17an, ludotekan, 17:30ean.

## LITERATURA

**OÑATI Gonbidapenen banaketa**
*Ostegun kontalariak* ekimenaren barruan, Izaskun Mujikak hilaren 25ean egingo duen saiorako gonbidapenak gaur, egubakoitza, banatuko dituzte. 3-6 urte arteko umeendako emanaldia izango da.
Egun osoan zehar, liburutegian.

**BERGARA Amodiozko gutunak**
24. lehiaketako sari banaketa ekitaldia egingo dute. Irabazleak gutuna irakurriko du.
Bihar, zapatua, Irizarren, 12:00etan.

**ARETXABALETA Irakurketa kluba**
Urtarrilean lehen saioa egin ostean, bigarrengoz elkartuko dira. Helburuetako batzuk dira: irakurketa sustatu, kalitatezko euskal bibliografia ezagutu, eta gurasoen eta haurraren arteko irakurketa giroa sortu.
Otsailaren 16an, Arkupen, 17:00etan.

**BERGARA Errefuxiatuekin elkartasun jaia**
Hotz elkarteak askotariko ekintzak egingo ditu bihar, zapatua: arropa bidaltzeko diru bilketa, *Basque Lifeguards* delako hitzaldia (18:30), Pelax eta Cowboys Orchestra taldearen kontzertua (19:30) eta Antonio Cossa argazkilariaren erakusketa. Azken hori domekan zabalduko dute.
Bihar, zapatua, gaztetxean.


ARROSASAREA.EUS

**ARRASATE Ipuin kontaketa**
Vanessa Gonzalezek 5 urtetik gorakoendako saioa egingo du.
Otsailaren 16an, Santa Marinako bibliotekan, 18:00etan.

**ARRASATE Ipuin kontaketa**
Vanessa Gonzalezek 3-4 urte artekoendako saioa egingo du.
Otsailaren 18an, Kulturaten, 18:00etan.

## DEIA

**BERGARA Batzarra erretiratuendako**
Bailara mailako batzarra eta protesta ekitaldia egingo dute. Pentsioen eta murrizketen gainean egingo dute berba, besteak beste.
Otsailaren 16an, Irizarren, 10:30ean.

**OÑATI Osakidetzan arreta euskaraz**
Aplikazio informatikoak erabiliz, Osakidetzak euskaraz erantzuteko eskaerak jaso gura dituzte herritarrengandik. Deialdi irekia egin dute.
Otsailaren 17an, Bidebarrietako gelatan, 17:00etan.

**ARRASATE 'WhatsArt' proiektua**
Bailarako 15-18 urte arteko gazteendako batzarra egingo dute. Artea eta kultura bateratzen dituen proiektuari buruz egingo dute berba.
Otsailaren 18an, gaztegunean, 19:00etan.

## IRTEERA

**ARETXABALETA Murura mendi irteera**
Guraso Foroaren eta Murrukixo mendizale elkartearen eskutik, 5-12 urte arteko umeendako eta horien gurasoendako.
Biharm, zapatua, Herriko Plazan, 10:00etan.

**ARRASATE Santiago Bidea**
Bigarren etapa –Donostia-Zarautz– egingo dute otsailaren 28an. Martitzenetan eta eguaztenetan eman daiteke izena Besaideren bulegoan, 19:30etik 20:30era.
Izen-ematea, aipatutako egunean eta orduan.

**OÑATI Eski zeharkaldia**
Candanchu eta Astun inguruetan egingo dute, martxoaren 5-6ko aste bukaeran. Eraman beharrekoa: eskiak, kutxillak, larruak, botak, bastoiak, pioleta, kranpoiak, ARVA, pala eta zunda. Izena emateko azken eguna otsailaren 22an, Aloñaren egoitzan.
Izen-ematea, aipatutako lekuan.

## AURKEZPENA

**ARRASATE 'Ametsen liburua'**
Liburuan parte hartu duten herriko preso ohiek eta liburuaren koordinatzaile Jokin Uriak egingo dute berba. Bideoa ere erakutsiko dute.
Otsailaren 16an, Kulturaten, 19:30ean.

## KIROLA

**OÑATI Urrezko Aizkora**
Binakako Urrezko Aizkora txapelketako azken finalerdia. Eguraldi txarra egiten badu, Zubikoan.
Etzi, domeka, Foruen plazan, 12:00etan.

## AZOKA

**BERGARA Eguaztenetako azoka**
Baserritarren produktuak erosteko aukera. Gainera, umeendako globoflexia tailerra egongo da eta Kajoi tabernak pintxo-potea eskainiko die herritarrei.
Otsailaren 17an, Oxirondon, 18:00etan.

## IKASTAROAK

**ARETXABALETA Mus ikastaroa**
Musean jokatzen irakatsiko dute otsailean: 15etik 19ra eta 22tik 26ra, 17:30etik 19:00etara. Irakaslea da Roman Lopez Rubio eta izena emateko epea zabalik dago Basotxoko bulegoan, 11:00etatik 12:00etara, astelehenetik egubakoitzera.
Izen-ematea aipatutako lekuan eta orduan.

**BERGARA Fandangoa eta arin-arina**
Musika eta dantza eskolak bederatzi saioko ikastaroa egingo du, martxoaren 1etik maiatzaren 10era, zapatuetan, 19:00etan. Izena emateko epea: otsailaren 11tik 26ra,
Izen-ematea aipatutako lekuan eta orduan.

**BERGARA Larrain dantza**
San Martzial egunean dantzatzen den dantza ikasteko sei saio egingo dituzte maiatzaren 24tik ekainaren 28ra arte, martitzenetan. Irakaslea Eneko Galdos izango da. Izen-ematea eta informazioa 943-76 57 80 telefonoan.
Izen-ematea aipatutako lekuan eta orduan.

**ARRASATE Biodantza ikastaroa**
Mentxu Arjonillak emango du ikastaroa martitzenetan, 18:30ean. Izena emateko: 626 66 12 92.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

**ARETXABALETA Yoga ikastaroa**
Encarna Mendezek emango ditu eskolak martitzenetan (17:30 eta 20:00) eta eguenetan (17:30). Interesatuek 616 96 57 95 telefonora deitu beharko dute.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

**ARRASATE Yoga ikastaroa**
Encarna Mendezek emango ditu nagusiendako eskolak astelehenetan eta eguaztenetan (16:45). Izena emateko edo informazioa eskatzeko 616 96 57 95 telefonora deitu behar da.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

## IZEN-EMATEA

**ARRASATE 'Berrekin.Berregin'**
Debagoienean ekintzailetasun sozial eta komunitarioa sustatzeko programan parte hartu ahal izateko izena emateko epea bukatzear dago: hilaren 15ean bukatuko da. Izen-ematea: *www.berrekinberregin.com* atarian.
Izen-ematea, aipatutako webgunean.

**DEBAGOIENA Fit-bike maratoia**
Seigarrengoz egingo dute lau orduko maratoia Oñatin (martxoak 12, 16:00), eta dagoeneko zabalik dute izen-emate epea. Leku mugatuak daude: 140 bizikleta. Fit-bike zerbitzuko irakasleek eta beste gonbidatu batzuk parte hartuko dute. Izena emateko: *www.oñati.eus* ataria.
Izen-ematea, aipatutako webgunean.

**DEBAGOIENA Zumba maratoia**
Bigarrengoz egingo dute bi orduko maratoia Oñatin (martxoak 12, 10:00), eta dagoeneko zabalik dute izen-emate epea. Leku mugatuak daude: 120 pertsona. Izena emateko: *www.oñati.eus* ataria. Zunba irakasleak izango dira gidariak.
Izen-ematea, aipatutako webgunean.

Opus Lirica-ri esker
La Traviata opera ikusteko sarrerak ditugu.
Donostian, Kursaal-en.
Otsailaren 21ean, 19:00etan.
ZOZKETAN PARTE HARTZEKO (OTSAILAREN 17RA ARTE)
E-posta: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA Latraviata [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta *goienakluba.com* webgunean agertuko dira euren izen–abizenak.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus
goienakluba


Elgetako Espaloia Kafe Antzokiari esker
DKdenzia antzerki taldearen Mikro–antzerkiak ikusteko sarrerak ditugu.
Elgetan, Espaloia Kafe Antzokian.
Otsailaren 20an, 22:00etan.
ZOZKETAN PARTE HARTZEKO (OTSAILAREN 19RA ARTE)
E-posta: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA DKdenzia [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta *goienakluba.com* webgunean agertuko dira euren izen–abizenak.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus
goienakluba


Aretxabaletako Udalari esker
'Eidabe: Futbolariak eta printzesak' antzezlana ikusteko sarrerak ditugu.
Aretxabaletan. Zaraia aretoan.
Otsailaren 21ean, 12:00etan.
ZOZKETAN PARTE HARTZEKO (OTSAILAREN 19RA ARTE)
E-posta: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA Eidabe [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta *goienakluba.com* webgunean agertuko dira euren izen–abizenak.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus
goienakluba


Arrasateko Udalari esker
'Etxekoak' antzezlana ikusteko sarrerak ditugu.
Arrasaten, Amaia Antzokian.
Otsailaren 21ean, 19:30ean.
ZOZKETAN PARTE HARTZEKO (OTSAILAREN 19A BAINO LEHEN)
E-posta: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA Etxekoak [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta *goienakluba.com* webgunean agertuko dira euren izen–abizenak.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus
goienakluba


Ozenki elkarteari esker
Rigoletto opera ikusteko sarrerak ditugu.
Arrasaten Amaia Antzokian.
Otsailaren 24an, 20:00etan.
ZOZKETAN PARTE HARTZEKO (OTSAILAREN 22A BAINO LEHEN)
E-posta: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA Rigoleto [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta *goienakluba.com* webgunean agertuko dira euren izen–abizenak.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus
goienakluba

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Sirimiri jatetxeko zainzuriak gratinatuta izokinarekin eta ozpinetakoarekin



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba“







Jon Goikolea eta Jabi Zabala, Takashi Inui jokalariari liburua ematen –ezkerrean–; eta Jose Luis Mendilibar entrenatzailearekin –eskuinean–. | IMANOL SORIANO

# Takashi Inui, laster euskara ikasten

▶ 'Japoniar ideogramak' liburua oparitu diote Jon Goikoleak eta Jabi Zabalak Eibarko jokalariari

▶ Euskara eta japoniera hurbiltzeko egindako liburua da eta 2010ean argitaratu zuten

**MIRARI ALTUBE** | ARRASATE

Ez daki euskaraz, ez gazteleraz, eta ingelesez ere apenas, baina beti du irribarrea ahoan. Takashi Inui (Japonia, 1988) da, Eibarko futbol jokalaria. Orain, gura izanez gero, euskara ikasten has daiteke. *Japoniar ideogramak* liburua oparitu dio Jon Goikolea arrasatearrak; euskaldunok japoniera ikasteko Chieko Hatarekin batera argitaratutako liburua.

"Arrasaten bizi den Jabi Zabala laguna Eibar futbol taldearen zale amorratua da eta erdi brometan komentatzen genuen entrenamendu saio batera joango ginela Atxabalpera, baita joan ere", dio Goikoleak. Joan den egubakoitzean egon ziren, eta jakinik japoniar batek jokatzen duela, liburua eramatea burura-tu zitzaien: "Haren abizenaren ideograma ere agertzen da liburuan, eta euskaraz zelan ahoskatzen den erakutsi genion". Irribarretsu eman zizkiela eskerrak adierazi du. "Ondoren, Mendilibarri ere eman genion, eta erdi brometan esan ikas zezala japoniera, harekin elkar ulertu ahal izateko". Izan ere, itzultzailearekin ibiltzen da beti Inui: "Taldeko beste kide bat dela iruditu zitzaidan, eta harreman estua duela gainerako jokalariekin".

**Hizkuntza gaitzik ez**

Goikolearen esanetan, ez dago ikasteko hizkuntza zailik: "Japoniera urruti dagoen hizkuntza da eta gureak ez du inolako antzekotasunik harekin; horregatik, gaitza den itxura dauka, baina ez dago hizkuntza gaitzik". Hain zuzen, *Euskaldunondako japoniera ikasteko modurik errazena* leloa jarri zion liburuari izenburuaren azpian Goikoleak.

AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE



## Bergara 2016

Kulturaren urtea Donostian, Europako hiriburu, alajaina! Horrelako proiektuak hain gertutik ikusteko eta disfrutatzeko aukera oso gutxi izaten dugu. Ikus-entzunezkoak, antzerkiak, dantza, gastronomia, ekitaldi abangoardistak eta... musika!

Musika mailan izango du zer esanik Bergarak Donostia 2016 kultura hiriburuaren taula gainean. Datorren asteburuan *La Traviata* opera ikusi eta entzuteko aukera izango dugu Kursaalean, eta bertako eszenografia egile eta gidariak bergararrak dira. Europako kulturaren hiriburuan, urtetan modu xumean, aurrekontu eskasekin eta bergarar askoren esfortzuari esker Musika Eskolaren bitartez sortutako artista taldearen errekonozimendua!

Valen Moñux, Alex Odriozola eta Bergarako musika eskolari zorionak! Zorioneko daukagu kultura Bergaran, udal aurrekontuetan ere kultura arloari milioi bat euro gehituko baitizkio udal gobernuak Seminarioko aretoa egiteko eta musika ekitaldi handiek leku egokiagoa izan dezaten frontoiko proiektua ere abian jarriko dute aurten. Aspaldian aurrekontuetako ahaztua izan da kultura, baina iritsi zaigu Bergara 2016 kulturala.

Arrasaten
Benetan pisua galdu nahi duzu?
Esan baietz betiko



RPS: 741/13
Rosa Sarabia doktorea
CMU centro médico UDALAITZ
Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.
PronoKal metodoa
Zientzia eta zorroztasuna pisua galtzeko
– Kontrol mediku zorrotza
– Pisu galtze handia – Gose gabezia
Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna
OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA – EZPAINAK – MESOTERAPIA
BARIZEAK – HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK – SUDURRA – SABELALDEA
Medikuntza estetikoa eta kirurgia plastikoa
Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.